



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VI. legegintzaldia

Iruña, 2007ko otsailaren 14a

9. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan administrazio elektronikoa ezartze-koa ([2. or.](#)).
- Foru Lege proiektua, artxiboei eta dokumentuei buruzkoa ([18. or.](#)).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa ([31. or.](#)).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan administrazio elektronikoa ezartzekoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2007ko otsailaren 5ean hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan administrazio elektronikoa ezartzekoa Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.** Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

**2.** Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordearen esku uztea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun baliouduneko epea hasiko da eta 2007ko martxoaren 5eko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalgo dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2007ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

## **Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeko Foru Lege proiektua**

### **ZIOEN AZALPENEA**

“Informazioaren eta komunikazioen teknologiak” izenekoak, IKT siglarekin ezagunagoak diren horiek, aplikatzearen aldeko apustua egin duten administrazio publikoek hobekuntza nabarmena lortu dute, zalantzarik gabe, herritarrei zerbitzu publikoak emateko moduan.

Hasteko, administrazioa herritarrengana hurbiltzea lortu dute, prozedura administratiboak arinduz, malgutuz eta, finean, erosoago bihurtuz. Burokrazia murriztu egin da eta tramite administratiboak normalizatu dira, tramitazioaren jarraipena egiteko aukera emanez.

Nafarroako gizartea garapen sozioekonomiko aurreratuenetakoa da, bai Espainian bai Europar Batasunean. Indartsu sartu dira gurean informazioaren eta komunikazioaren teknologiak. Gaur egun, gizarte hori gizarte informatizatua dugu, tresna elektronikoak normaltasunez eta ohikotasunez erabiltzen dituen herritarren eta eragile soziales eta ekonomikoen arteko harreman nagusietan.

Nafarroako administrazio publikoak ez dira transformazio edo iraultza teknologiko horretatik kanpo gelditu, iraultza baita jokabide sozialak denbora laburrean goitik behera aldatzea. Administrazio publiko gehienak, handienak noski, sistema eta bitarteko elektronikoekin aritzen dira dagoeneko. Kudeatzen dituzten prozedura administratibo edo ematen dituzten zerbitzu publiko askotarako horrelako sistemak eta bitartekoak erabiltzen dituzte gaur egun. Arautze urriaren babesean jardun dute orain arte, ordea. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen agindu urri batzuetan jasotako zenbait aurreikuspen orokor kenduta, ez da izan lege esparru

orokorrik, ez estatuan ez foru erkidegoan (kasu honetan zerga ogasunaren edo kontratazio administratiboaren arloko arautze telematiko alde batera utzita), administrazioen eta herritarren arteko harremanetan edo administrazioen artekoetan IKT berriek eskaintzen dituzten aukerak bere baitan bildu dituenik.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan, giza baliabideen eta espedienteen kopuruari, dirubilketari eta inbertsio publikoen bolumenari dagokienez, behintzat, Nafarroako administrazio publikoetan nagusia den horretan, informazioaren eta komunikazioaren teknologia horien garapen maila on samarra da. Nolanahi ere, beste aurrerapauso bat eman beharra dago: foru lege bidez arautzea teknologia horien erabilera eta, horrekin batera, erabilera horren ondorioz herritarrei begira beharrezkoak diren berme juridikoak.

Foru eraentzaren ondorioz dituen eskumen eskusiboez baliatuz, egokituz jotzen dituen legeak onesteko bide emanen baitiote, Nafarroako Foru Komunitateak ezarri behar ditu Nafarroako berezko zuzenbidearen espezialitateetatik edo berezko antolaketatik datozen prozedura administratiboko edo, kasua bada, ekonomiko-administratiboko arauak eta, orobat, Foru Diputazioaren, bere administrazioaren eta bere menpe dauden entitate publikoen araubide juridikoari datzekionak, betiere, administrazio publikoetan administratu guztiak berdin tratatzeko eskubidea bermatuz. Halaxe dago ezarria Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1 artikuluko c) eta e) letretan.

Gaur egun, prozedura administratiboko arau horiek ez dira beste administrazio publiko batzuentzat komunak direnetatik oso bestelakoak. Are gehiago dira sistema elektronikoak sartu eta aplikatu izanak ekarri dituen berezitasunak. Horren garrantzia ukazezina da, ordea, herritarren eta administrazioaren arteko harreman klasikoaren ondorioak arautzen dituztelako baina bitarteko moderno batekin, bitarteko elektronikoarekin alegia.

Foru lege honen xedea da, aurreneko artikuluetan jaso denez, pixkanaka egiazko administrazio elektroniko bat ezartzen joatea, maiz erabiltzen den esamolde horrek egiaz esan nahi duenaren aldetik ulertuta: administrazio osotua eta norabide anitzekoa. Osotua, administrazioari dagokion informazio guztia sarean eskura izanen delako, eta norabide anitzekoa, batetik informazioaren jariora administrazioetik herritarrengana eta alderantziz ere joanen delako, eta bestetik, administrazioek elkarri lagunduko diotelako, dokumentazioa haien artean

eskuratzeko, herritarrei eskatu gabe. Administrazio elektronikoak, batik bat, eskuragarria izan behar du, eta erreza, erabilgarria, eroso, malgua, segurua, konfidentziala eta aldaketa berrietara egokitu.

Helburu nagusi horrekin batera, foru legea arduratzen da foru administrazioak hartzen duen itxura berriaren aurrean herritarrek dituzten eskubideak ezartzeaz. Eskubide horietako bik garrantzi berezia dute: datu pertsonalen babesa eta ohiko prozedura eta harreman administratiboetan herritarrek dituen berme juridikoei eustea. Administrazio elektronikoak herritarren eskubideak hobetzeko sortu da, inola ere ez horiek okerragotzeko edo era desegokian baldintzatzeko.

Foru legearen edukian Europar Batasuneko kide diren eta bide honetan pausak egin dituzten beste estatu batzuetako legeetan araututako alderdiak daude, eta beste batzuk azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasotakoak dira, baina asko eta asko berriak dira. Batzuen zein besteen oinarrian bi ideia daude: foru administrazioaren eta honen zerbitzua jasotzen duten herritarren arteko harremanak erraztea eta haien eskubideak bermatzea. Halatan, foru legeak alderdi hauek arautzen ditu, besteak beste: dokumentuen aurkezpena eta irteera, Foru Komunitateko administrazio osoarentzat eta haren erakunde publikoentzat erregistro orokor elektroniko bakarra sortzea aurreikusirik, beharrezkoa denean erregistro bereziak egotea galaziti gabe; administrazio egintza mota guztiak eta horien espezialitate elektronikoak, bereziki ziurtargiriak, kopiak etab.; administrazio egintzen jakinarazpena, iragarki ohol elektronikoak sortzea ere aurreikusirik; sinadura elektronikoak, beharrezkoa bai dokumentuak aurkezteko bai administrazio egintzak gauzatzeko; espediente eta artxibo elektronikoak; ofizioz hasitako prozeduren ezaugarri orokorrak eta alde batek eskatuta sortutakoak; organo kolegiatuen araubidea, bilkura birtualen aukera emanen duena; bitarteko elektronikoak erabiliz fakturak aurkeztea eta ordainketak egitea; Nafarroako Aldizkari Ofizialaren bertsio elektronikoan argitaratzea; eta beste.

Legearen amaieran antolaketaren arloko elementu batzuk bildu dira, beharrezkoak garapen egoki baterako: Administrazio Elektronikoaren Batzordea sortzea, prozedura administratibo elektronikoaren planifikazioaz eta ezarpen egokiaz arduratzeko; funtzionario publikoen hautaketa eta prestatuntza, sustatu nahi den administrazioarekin bat etor daitezen, eta herritarren eskubideak bermatzeari dagokionez gainbegiratzeko eginkizunak Foru Komunitateko Arartekoari esleitzea, antzeko

eginkizunak edukiko lituzketen unitate edo organo berriak sortu beharrea.

Azkenik, foru legeak ontzat hartzen ditu, ezin bestela izan, tributu prozeduretan eta kontratazio administratiboan gertatutako aurrerapenak. Kasu horietarako, foru legeak ordezkotza izatera hartzen du, eta gai horiei buruzko arau bereziak xedatu gabekoetan baizik ez da aplikatzekoa izanen.

## **I. KAPITULUA** **Xedapen orokorrak**

### **1. artikulua.** Xedea.

1. Foru lege honen xedea da herritarren zerbitzuko administrazio elektronikoa eraginkorra ezar dadin sustatzea, teknologiaren aurrerapenen arabera onargarriz hartzen diren teknika eta bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoa pixkanaka sartuz Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko eta haren erakunde publikoetako prozedura administratiboan tramitazioan eta kanpoko nahiz barruko harremanetan.

2. Zehazki hauek dira foru lege honen xedetak:

#### A) Orokorrak:

a) Nafarroako administrazio publikoen esparruan eta Nafarroako gizartearen informazioaren gizartearen garapenari laguntzea.

b) Operadore juridikoengan konfiantza sortzea informazioaren eta komunikazioaren teknologiaren erabilerari dagokionez, behar diren neurriak ezarritik pertsonen intimitatearekin lotutako oinarriko eskubideak urratzen ez direla zaintzeko, datuen eta komunikazioen segurtasuna bermatzeko eta euskarri elektronikoan ematen diren zerbitzuak babesteko.

c) Beharrezkotzat jotzen denean, herritarrei arreta emateko bulego telematikoa integratuak sortzea, administrazioaren arteko lankidetzan oinarrituak, bulego publikoetan herritarrei zerbitzu emanen dietenak, zein den ere gaiak arduratzeko eskumena duen administrazioa.

d) Administrazio publikoaren arteko bitartekaritza ahalbidetzea, herritarrei eskatutako tramite administratiboak ebazteko, horiek Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioaren eskumenekoak direnean.

#### B) Herritarrei dagokienez:

a) Eskubideez baliatzen eta betebeharrak betetzen laguntzea modu azkarragoan, merkeagoan eta fidagarriagoan, horretarako euskarri elektroni-

koak erabiliz eta inola ere kalterik eragin gabe haien berme juridikoei.

b) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde publikoetan dagoen informazioa atzitzen laguntzea.

c) Eskura dauden prozedura elektronikoen erabilera pertsonalizatua eta zuzenekoak izan dadin ahalbidetzea.

d) Jarduera administratiboan herritarren parte-hartzea handitzea.

C) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoiei dagokienez:

a) Eskumenak eta eginkizunak betetzen eraginkortasuna areagotzea, unean uneko sistema elektronikoa aurreratuenen bidez.

b) Printzipio hauek gauzatzea: herritarrengandik hurbil egotea eta jarduera administratiboaren gardentasuna.

c) Etengabe hobetzea interes publikoari ongi erantzuteko baldintzak, prozedura administratiboak sinplifikatuz.

d) Beste administrazio publiko batzuekin dituen harremanetan teknika elektronikoa eta telematikoa berrien erabilera sustatzea, administrazioaren arteko lankidetzaren eta laguntzaren barruan.

e) Eskuratu ahal diren informazio, zerbitzu eta transakzioen integritate, egiazkotasun eta gaurkotzearen erantzule egitea.

**2. artikulua.** Prozedura elektronikoen progresibitatea eta gaikuntza.

1. Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde publikoaren zerbitzu elektronikoa pixkanaka ezarriko dira eta, horretarako, kasuan kasuko prozedura administratibo elektronikoa onetsi beharko dira alde aurretik.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen den onspena gaiaren eskumena duen kontseilariak edo, prozedurak departamentu bat baino gehiago ukitzen duenean, lehendakariak kontseilari titularrak emaniko foru agindu bidez egingen da, abian jarri gogo den prozedura administratibo elektronikoa bakoitzeko.

3. Prozedura bakoitza onetsi aurretik, aginduzkoa izanen da antolaketa administratiboaren eta informazio sistemen gaitako eskumena duen unitateak eginiko txosten teknikoa, sistema osoaren segurtasuna, datuen funtzionamendua eta eskualdagarritasuna bermatuko dituen, bai eta igortzen den informazioaren benetakotasuna, konfidentzial-

tasuna, integritatea, eskuragarritasuna eta kon-  
tserbazioa ere.

4. Prozeduraren onespina Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, aukeran, Nafarroako Gobernuak interneteko web atarian, iragarki ohol elektronikoen atalean. Horrekin batera, prozedura sartzeko behar diren zehaztapen tekniko-  
ei publikitatea emanen zaie, jabetza industrial eta intelektualaren eskubideak errespetatuz.

5. Artikulu honetan xedatutakoa ez da aplikatu-  
ko ahalmenez baliatzeko tresna huts gisa erabil-  
tzen diren programa eta aplikazioen onspen edo  
erabileran, hau da, programa edo aplikazio horiek  
erabaki administratiboaren informazio-tratamendu  
osagarriak edo prestakizunak egiteko erabiltzen  
direnean, administrazioaren erabakien edukian  
zuzeneko eraginik izan gabe.

**3. artikulua.** Herritarren eskubideen eta bete-  
beharren aldaezintasuna administrazio prozedura  
erkidean.

1. Prozedura administratibo elektronikoa erabil-  
tzeak ez du inolako aldaketarik eragingo adminis-  
trazio prozedura erkidea osatzen duten adminis-  
trazio egintzen izaera eta ondorioetan, eta ez du  
berarekin ekarriko herritarrei onartu edo esleituta-  
ko eskubideak kendu, murriztu edo era desegoki-  
an baldintzatzerik, ez eta administrazio prozedura  
erkidea arautzen duen legeriak administrazioari  
ezartzen dizkion betebeharrak ere.

2. Foru Komunitateko administrazioak foru lege  
honetan xedatutakora egokituko ditu prozedurak  
arautzen dituen legeriak eskatzen dituen adminis-  
trazio egintzak, eta bide emanen du legeek herri-  
tarrei aitortzen dizkieten eskubideez balia daite-  
zen.

**4. artikulua.** Herritarren eskubideak bitarteko  
elektronikoekin dituzten harremanetan.

Herritarrek eskubide hauek izanen dituzte  
Nafarroako Foru Komunitatearekin eta haren era-  
kunde publikoekin bitarte elektronikoa erabiliz  
dituzten harremanetan:

a) Administrazioak onetsitako prozedura adminis-  
tratio elektronikoen erabileratik bereizkeria-  
rik ez pairatzekoa.

b) Prozedura administratibo elektronikoa gaztelania eta euskara erabiltzekoa, euskara arau-  
tzen duten legeetan ezarritako moduan.

c) Administrazio publikoari eskaerak egin, eska-  
riei eta ekintzei ekitea, akatsak zuzendu, alegazio-  
ak eta frogak aurkeztu eta haien egintzen kontrako  
errekurtso eta erreklamazio administratiboak egi-  
tekoa.

d) Ziurtagiri administratiboak bitarteko elektro-  
nikoen bidez eskuratzekoa.

e) Zailtasun handirik ez duten sistemak erabi-  
liz, ahal dela posta elektronikoen edo antzekoen  
bidez, informazioak eskatu eta lortu eta kontsultak  
egitekoa.

f) Interesdunaren izaera duen prozeduren tra-  
mitazioa zer egoeratan dagoen jakitekoa.

g) Tramite telematikoa lege ezarritako iden-  
tifikazio bideak erabiltzekoa.

h) Sinadura elektronikoa edo antzeko iden-  
tifikazio sistema bat lortu eta erabiltzekoa lege ez-  
arritako baldintzetan.

i) Interesdunaren izaera duen prozeduren parte  
diren dokumentu administratibo elektronikoen  
kopia elektronikoa lortzekoa.

j) Administrazioak dokumentu elektronikoa eta  
artxiboa kudeatzeko eta espedientearen parte  
diren administrazio egintza elektronikoa gorde-  
tzeko zerbitzu bat bermatzekoa.

k) Bitarteko elektronikoen bidez jardura adminis-  
tratioaren parte hartzekoa, entzutea emanen  
edo jendaurrean jarriz lege hala aginduta dagoe-  
nean, edo inkesta eta kontsulta bidez gainerako  
kasuetan.

l) Zerbitzu eta prestazio publikoetan sartzekoa,  
unean-unean erabilgarri direnen artean herritarrak  
aukeratutako bitarteko edo baliabide teknologikoaz  
baliatuz.

m) Haren datu pertsonalen pribatasuna eta  
intimitate pertsonal eta familiarra izatekoa.

n) Datu pertsonalen babesa arautzen duten  
legeek eskatzen dituzten berme juridiko guztiak  
izatekoa.

ñ) Transmisio elektronikoa seguru eta kalitatez-  
koak izatekoa.

o) Jendearentzako arreta bulegoetan edo  
horretarako zehaztutako tokietan haien eskura jar-  
tzen diren bitarteko eta zerbitzu elektronikoa libre  
eta dohainik erabiltzekoa administrazio publikoeki-  
ko harremanetan.

## II. KAPITULUA

### Dokumentuen aurkezpena eta irteera. Erregistro orokor elektronikoa

#### 5. artikulua. Erregistro orokor elektronikoa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-  
ak erregistro orokor elektronikoa bat gaituko du,  
bitarteko telematikoen igortzen diren eskabide,

idazki, kontsulta eta komunikazioak jaso eta ateratzeko.

2. Erregistro orokor elektronikoa bat eta bakarra izanen dute Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde publiko guztiek, eta interesa duen ororen eskura egonen da Nafarroako Gobernuaren interneteko web atarian eta horretarako gaituko den helbide elektronikoa.

3. Oro har, lege batek kontrakoa xedatzen ez badu, herritarrentzat borondatezkoa izanen da erregistro orokor elektronikoa erabiltzea. Edozein kasutan ere erabilera doakoa izanen da.

4. Erregistro orokor elektronikoa bide emanen du eskabideak, idazkiak, kontsultak eta komunikazioak aurkezteko urteko egun guztietan, eguneko hogeita lau orduetan.

Aurrekoa gorabehera, epeen legezko kontaktaren ondorioetarako, organo edo entitatearentzat balio gabea den egun batean sartzen diren agiriak hurrengo egun balioduneko lehenbiziko orduan sartu balira bezala hartuko dira. Agiriak benetan jaso diren eguna eta ordua inskribatuko dira sarretarako idazpenean, baina jasorik geratuko den sarrera eguna hurrengo egun balioduna izanen da, eta ordua, berriz, 00:00 eta segundo bat.

5. Eskabideak, idazkiak, kontsultak eta komunikazioak jasotzeko zerbitzua eten ahalko da justifikaturiko arrazoiak daudenean –mantentze-lan tekniko edo operatiboak–, behar-beharrezkoa den denboran soilik. Etenaren berri eman beharko zaie erregistro telematikoa balizko erabiltzaileei ahalik eta aurrerapen handienaz. Erregistroko funtzionamenduaren etenaldia aurretik planifikatzen ez den kasuetan, ahal denean, erabiltzaileak egoera horren berri ematen dion mezua ikusiko du.

6. Egundun balio gabeetan, erregistro orokor elektronikoa ez du idazkien eta komunikazioen irteerarik egiten ez eta haren idazpenik ere.

7. Erregistro orokor elektronikoa gaikuntza juridiko eta administratiboa Nafarroako Gobernuaren foru dekretu bidez egiten da, lehendakaritza, antolaketa administratibo eta informazio sistemen gaitetan eskumena duten kontseilariak proposaturik; ondoren, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, unitate administratibo eskudunek egiaztatu ondoren erregistroak betetzen dituela informazioaren eskuragarritasun, benetakotasun, integritate, konfidentziaztasun eta kontserbazioaren irizpideak eta errespetatzen dituela erregistro publikoari aplikatzeko zaien araudiak eskatutako bermeak eta bebeharrak.

Foru dekretuan erregistro orokor elektronikoa funtsezko ezaugarriak ezagutaraziko dira.

8. Aurrekoa gorabehera, Nafarroako Gobernuak, foru dekretu bidez eta lehendakaritza, antolaketa administratibo eta informazio sistemen gaitetan eskumena duten kontseilariak proposaturik, erregistro elektronikoa berriazkoak sortzea baimendu edo arautu ahalko ditu, sortzea justifikaturik dagoenean gaiaren berezitasuna, kudeatu beharreko dokumentuen kopurua edo beste arrazoi batzuk direla eta.

**6. artikulua.** Dokumentu elektronikoen aurkezpena.

1. Bide elektronikotik aurkezten zaizkion eskabide, idazki, kontsulta edo komunikazioei dagokien, erregistro orokor elektronikoa:

a) Horien integritate eta benetakotasunari buruzko egiaztapenak egiten ditu, eta deuseztu ahalko ditu sistemaren segurtasunerako arriskua izan dezaketen dokumentuak. Halakoetan, dokumentua ez aurkeztutako joko da, eta igorlea identifikaturik egonez gero, ahal den azkarren jakinaraziko zaio dokumentua deuseztu dela.

b) Dokumentu elektronikoa aurkeztu den egun eta ordu zehatzak kreditatuko ditu, penintsulako orduarekin sinkronizaturik.

c) Egiten den idazpenari hurrenkerako zenbaki bat ezarriko dio eta dokumentuak hasten duen administrazio prozedura elektronikoa, hala gertatzen bada, eskabidea edo errekurtsioa denean.

d) Dokumentu elektronikoa aurkeztu duenaren posta elektronikora edo sinadura elektronikora sistemara mezu elektronikoa bidaliko du, dokumentua teknikoki onartu eta administratiboki erregistratu dela egiaztatzen duena, betiere dokumentua eskatutako agindu teknikoak betez aurkeztu bada eta eskura badago, administrazioak erabil dezan, dokumentua kudeatzeko aukera ematen duen jasotze- edo datu-sistema batean. Dokumentua jaso izanaren berrespen hori sistemaren erantzun automatiko gisa igorri ahalko da edo beste edozein modutan.

Dokumentua ez bada jasotzen edo jaso izanaren berrespena egiten ez bada, erabiltzailea ohartarazi beharko dute horretaz, eta kasu horretan dokumentua ez dela jaso ulertuko da.

e) Aurkeztutako dokumentazioaren kopia gordetako du, eta artikulua honen 5. idatz-zatian aurreikusten den ahalmenaz baliatu ahalko da.

2. Agiri bat jaso izanaren berrespena, erregistro orokor elektronikoa interesdunaren posta elektronikora edo sinadura elektronikoa sistemara igorritakoa, aurreko d) letran xedatutakoari jarraituz,

paperean inprimatu edo informatikoki artxibatzeko modukoa izan beharko da, eta dokumentazioa administrazioan aurkeztu zuen egun eta ordua egiaztatuko dituen agiriaren izaera izanen du interesdunarentzat, administrazio prozedura erkidea arautzen duen legerian xedatutakoaren ondorioetarako. Agiri hori paperean aurkeztu beharko da hala behar den prozedura administratibo edo judicial ohikoetan.

3. Dokumentua aurkeztu den egun eta ordua zehazterik ez dagoenean, administrazioaren datu-transmisiorako sistema zerbitzuan ez dagoelako edo beste edozein arrazoiengatik, mezua igorri zen egun eta orduan aurkeztutzat emanen da, betiere administrazioak modu fidagarrian egiaztatua ahal baditu.

4. Nolanahi ere, dokumentuak bitarteko elektronikoen aurkeztean gerta daitezkeen arriskuak igorleak hartu beharko ditu bere gain, eta administrazioa ez da inongo inguruabarren erantzule izanen, ez badira haren zerbitzu publikoen funtzionamenduari egotzi ahal zaizkionak.

5. Administrazioak jaso duen dokumentu baten formatoa aldatu ahalko du baliabide teknikoak erabiliz, hura irakurri, gorde eta artxibatzeko beharrezkotzat jotzen duenean, baina agiriaren funtsezko edukia aldatu gabe.

6. Erregistro orokor elektronikoen eskabide, idazki edo komunikazioarekin batera tramitatzen diren dokumentuen kopia zigitatuak edo konpultsatuak emateko eginkizuna bete dezake, lehen-dakaritza gaietako titularra den kontseilariaren foru agindu bidez hala xedatzen denean, informazioaren gizartearen eskumena duen unitateak horretarako aukera teknikoak dagoela ziurtatzeko txostena eman ondoren.

**7. artikulua.** Dokumentu ofizialen irteera.

Beste organo batzuei edo partikularrei zuzendutako idazki, komunikazio eta bestelako dokumentu ofizialen irteerari dagokionez, erregistro orokor elektronikoenak:

a) Idazkia edo komunikazioa igorri den egun eta ordu zehatzak kreditatuko ditu.

b) Organo administratibo igorlea eta haren posta elektronikoko helbidea adieraziko ditu.

c) Zein pertsonari edo organo administratibori igortzen zaion eta haren posta elektronikoko helbidea adieraziko ditu.

d) Gaiaren laburpen motz bat adieraziko du.

e) Egiten den irteera-idazpenari hurrenkerako zenbaki bat ezarriko dio.

f) Igorritako idazki edo komunikazio ofizialaren kopia gordeko du berehala.

### III. KAPITULUA

#### Administrazio egintzak eta txostenak

**8. artikulua.** Tramite egintzak eta txostenak.

1. Administrazio prozedura elektronikoko tramite egintzak unitate administratiboek elkarri eskatu, eman eta haien berri emanen dizkiote eta, bidezkoa denean, interesatuari jakinaraziko zaizkio, bitarteko elektronikoen egokiak erabiliz.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakotik salbuetsi ahalko dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo haren erakunde publikoen mende ez dauden organo kolegiatuek aginduz eman beharreko irizpen, txosten eta egintzak, organo kolegiatu horiek bitarteko elektronikoen egirik ez badute edo egintza ohiko moduan betetzea erabakitzen badute. Kasu horretan, administrazio prozedura elektronikoa tramitatzeke eskumena duen unitate administratiboak txostena edo idatzizko egintza transkribatuz edo kopia elektronikoa eginez sartuko du prozeduran.

3. Tramite egintzak batasunaren eta denbora hurrenkeraren irizpideen arabera sartu behar dira prozedura administratibo elektronikoen, eta bide eman beharko da administrazioaren zerbitzuko langileek, tramitazear arduratzen direnek, eta interesdunak kontsulta dezaten.

4. Tramite egintza bete eta funtzionario eskudunak hura elektronikoki izenpetu ondoren, berme elektronikoa bat ezarriko da, hura deusezteko edo haren edukia aldatzea eragozteko.

5. Prozedura administratibo elektronikorako eskumena duen unitate administratiboak bertatik kenduko ditu garrantzizkoak ez diren egintza, txosten, ohar eta bestelako guztiak, eta adierazpen edo iritzi pertsonalak edo esku-hartzaileenak, gairekin zerikusi zuzenik ez badute edo aplikatzekoa den araudiak eskatutakoak ez badira.

**9. artikulua.** Ziurtagiri administratibo elektronikoenak.

1. Paperezko ziurtagiri administratiboaren ordez ziurtagiri elektronikoenak edo datu-transmisioak erabili ahalko dira. Lehenbizikoak artikuluko honetan xedatutakoak zuzenduko ditu eta bigarrenak, berriz, hurrengoan xedatutakoak.

2. Ziurtagiri administratibo elektronikoenak ziurtagiriaren xede diren datuak eta horiek emateko eskumena duen agintariaren sinadura elektronikoa jasoko ditu.

3. Ziurtagiri administratibo elektronikoko bat honela emanen da:

a) Interesdunak eskatuta; bidali egingen zaio edo haren eskura utzi, eskatu duen organoari igor diezaion.

b) Organo eskatzaileak eskatuta, interesdunaren ekimenez edo organo eskatzailearen beraren ekimenez, betiere interesdunaren baimen espresua badu, atzipena lege batek baimendua denean izan ezik. Kasu horretan, ziurtagiriaren eskaeran zer tramite edo prozeduratarako nahi den zehaztuko da, eta jasota geratu beharko da interesdunaren baimen espresua badela edo salbuesten duen araua.

4. Prozedura tramitatzen duen organoak ziurtagiri administratiboa eska dezan interesdunak emandako baimena prozedurari hasiera emateko eskabidean edo ondorengo komunikazio orotan agerrarazi beharko da, eta eskabidea aurkeztu izanaren agiria ziurtagiria aurkezteko betebeharra bete izanaren egiaztagiritzat hartuko da.

5. Ziurtagiri administratibo elektronikoen papezko euskarrian emandakoen ondorio berberak izanen dituzte. Horretarako, edukia papezko euskarrian inprimitzeko modukoa izan beharko da, eta bertan eskuzko sinaduraren ordezkari elektronikoki sortutako egiaztatze kode bat ezarriko da, benetakotasuna frogatzeko aukera emanen duena organo edo erakunde igorlearen artxiboetan bitarteko telematikoen sartuta.

6. Ziurtagiri administratibo elektronikoen lege edo erregelamenduz horretarako gaitutako pertsonak emanen dituzte edo departamentu edo erakunde publiko bakoitzak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egintza administratibo baten bidez izendatzen duten unitate organikoen. Bigarren kasu horretan inguruabar hori emandako ziurtagiri bakoitzean agerrarazi beharko da.

#### **10. artikulua.** Datuen transmisioak.

1. Papezko euskarriko ziurtagiri administratiboaren ordezkari datu-transmisioak egingen dira, organo edo erakunde batek kasuan kasuko administrazio prozeduran bere eskumenak betetzeko behar dituen datuak igorri bitarteko telematikoen bidez eta eskatutako segurtasun baldintzekin.

2. Administrazio prozedurak eta jarduketak erregulatzen dituzten arauetan aurreikusitako ziurtagirien aurkezpena artikuluko honetan xedatutakoarekin bat egiten diren datu-transmisioak ordezkatzeko dute, ondorio guztiak eta erabateko balio eta eraginkortasuna izanik.

3. Ziurtagiri bat datu horien transmisioak ordezkari dezan, datuen titularrak transmisiorako baimen espresua eman beharko du, salbu eta lege maila edo ahalmena duen arau batean aurreikusitako kasuetan. Baimena emanen ez balu, interesdunak ziurtagiria eskatu eta aurkeztu beharko luke.

4. Datu-transmisio guztiak organo edo erakunde tramitzaileak eskatuta egingen dira, eta eskabidean eskatutako datuak eta haien titularrak zein diren zehaztuko da, bai eta zertarako eskatzen diren ere. Ukitutako titularren baimen espresua dagoela jasoko da eskabidean, salbu eta baimen hori beharrezkoa ez bada.

5. Datuak jasotzen dituen organoak edo erakundeak espedientean agerraraziko du datuak eskatu eta jaso direla. Fiskalizazio eta kontrol organoek datuen jatorria eta benetakotasuna egiazta ditzaten, aipatutako organoek igorritako datuak atzitzeko bideak ezarriko dira.

**11. artikulua.** Administrazio egintza elektronikoen kopiak.

Bitarteko elektronikoen gordetako jatorrizko agirien kopiek, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko organoek edo haren erakunde publikoek emandakoak, jatorrizko agiriaren balio eta eraginkortasun berak izanen dituzte, betiere haien benetakotasuna, integritatea eta kontserbazioa ziurtaturik badaude.

## **IV. KAPITULUA**

### **Jakinarazpen administratibo elektronikoen**

**12. artikulua.** Ebazpen administratibo elektronikoen.

Prozedura administratibo elektronikoko bati amaiera ematen dioten ebazpen administratiboaren jakinarazpenen edukian honakoak egon behar dira zehazturik:

a) Ebazpena eman duen organoa zein den eta, kasua bada, igorri duen organoa ere.

b) Ebazpena eman duen organoaren eskumena.

c) Ebazpenaren eduki osoa.

d) Ebazpena eman den eguna.

e) Beharrezkotzat jotzen bada, hurrenkerako identifikazio bat, ebazpenaren ordena-zenbakia, espedientearen zenbakia, urtea, eta, halakorik bada, kasuan kasuko prozeduraren kodea adierazirik.

f) Bide administratiboa agortzen den edo ez adieraztea, eta haien kontra bidezkoak diren errekursoak, haiek zein organori aurkeztu behar zaiz-



kion eta haiek aurkezteko epeak azalduz. Errekurtso administratiboen kasuan, zein helbide elektronikotan aurkeztu ahal diren ere zehaztuko da.

**13. artikulua.** Helbide elektronikoa eta betebeharrak.

1. Jakinarazpen administratibo elektronikoa egin ahalko dira soilik hartzaileak espresuki hala egiteko esan duenean edo onartzen duenean, kasuan kasuko organoak edo erakunde publikoak proposaturik.

2. Administrazio egintzen jakinarazpenak interesdunak horretarako adierazten duen posta elektronikoko helbidean eginen dira.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak jakinarazpen elektronikorako erabiltzen duen sistemak kreditatu beharko du zer egun eta ordutan jaso den jakinarazpena interesdunaren helbide elektronikoa eta interesdunak jakinarazpenaren mezuaren edukia atzitu duela, bai eta aipatutako inguruabarretarako eragozpen den edozein arrazoi tekniko ere.

4. Interesdunaren helbide elektronikoa bakarria izanen da prozedura administratibo elektronikoa egin beharreko balizko jakinarazpen guztietan eta horrekin lotura zuzena izan dezaketen gainerakoetan, hala nola errekurtsuak, erreklamazioak etab.

Helbide horrek bermatu beharko du erabilera eskusibokoa dela, erabiltzailearen nortasuna ziurtatzen duten egiaztatze bideak eta horien konfidentzialtasuna babesteko zifratze-mekanismoak izan eta erregelamenduz ezarriko den beste edozein baldintza bete.

Era berean, helbide bakarraren indarraldia mugagabea izanen da, baina indarra galduko du titularrak indargabetzeko eskatzen badu, pertsona fisikoa hil edo pertsona juridikoa iraungitzen bada, epailearen edo administrazioaren ebazpen batek hala agintzen badu edo hiru urtean ez bada behin ere erabiltzen jakinarazpenak egiteko; azken kasu horretan helbide elektronikoa bakarria baliogabetu eginen da eta interesdunari jakinarazi egingo zaio.

5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde publikoek erabili ahalko dute posta elektronikoa beste helbide bat, kasuan kasuko prozedurarekin loturarik ez duen beste batean adierazitakoa, erabilera horren xedea baldin bada interesduna aurkitzea edo administrazio egintza helaraztea haren berri izan dezan, baina jakinarazpen horrek ez du inola ere ordeztuko legeei jarraikiz egin beharrekoa.

6. Jakinarazpena errazte aldera, interesdunak beste helbide batzuk edo sakelako telefono zenba-

ki batzuk eman ahalko dizkio administrazioari, administrazioak bertara bidal ditzan abisu osagarriak, jakinarazpen elektronikoa egin dela, egiten saiatu dela edo egitekoa dela gatzigatzeko.

7. Administrazioak eta interesdunak hasieran adierazitako posta elektronikoko helbideak aldatzeko eskubidea izanen dute, horretarako justifikatutako arrazoiak, teknikoak nahiz bestelakoak, aletzen badituzte.

**14. artikulua.** Jakinarazpen elektronikoa egi-  
tea.

1. Jakinarazpen administratibo elektronikoa interesdunari berari egin dela ulertuko da, lege ondorio guztiekin, interesdunak emandako posta elektronikoko helbidera igorritako mezu elektronikoa eskuratzen den unean. Horretarako, mezu elektronikoa atzitu den ordua eta eguna ezagutzeko bide ematen duen aplikazioa ezarriko du administrazioak, eta datu hori prozedura administratibo elektronikoa gordeko du.

2. Mezu elektronikoa atzitzeak pentsarazten du jakinarazitako administrazio egintzaren edukia atzitu dela eta atzitu duena interesduna dela.

3. Adierazitako posta elektronikoko helbidean jakinarazpena hartu dela jakinda, hamar egun naturaleko epean edukia atzitzen ez bada, jakinarazpenari uko egin zaiola ulertuko da, salbu eta ofizioz edo hartzaileak hala eskaturik atzitzeko ezintasun tekniko edo materiala dagoela egiaztatzen den kasuetan.

4. Jakinarazpen elektronikoa egiterik ez balego arazo teknikoengatik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ohiko moduan eginen du jakinarazpena.

**15. artikulua.** Jakinarazpen bereziak.

1. Interesdunaren intimitate pertsonal nahiz familiarrerako oinarrizko eskubidea babestu beharra dagoela iritziz gero, edo bestelako inguruabar bereziak daudenean, segurtasun, sekretu edo diskrezioarekin lotutakoak, administrazioak adierazi ahalko dio interesdunari ebazpena edo dokumentua zerbitzari, datu base edo horretarako izendatutako lotura edo esteka batean duela eskura, interesdunak edo haren ordezkari baimenduak aurkitu eta berreskura dezan.

2. Interesdunak edo haren ordezkari baimenduak nor diren adierazi beharko dute ebazpena edo dokumentua berreskuratzerakoan. Identifikazio horretarako metodo seguru eta egiaztatzeko modukoa erabiliko da.

3. Jakinarazpena eginik dagoela ulertuko da dokumentua administrazioak izendatutako lotura

edo estekatik berreskuratua denean. Jakinarazpena eskura dagoela adierazi eta hamar egun balioduneko epean berreskuratu ezean, jakinarazpenarako beste sistemetara jo ahalko da.

#### **16. artikulua.** Iragarki ohol elektronikoa.

1. Iragarki ohol elektronikoa sortzen da, Nafarroako Gobernuaren interneteko web atarian sartua; bertan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde publikoek administrazio egintzen jakinarazpena ezarri ahalko dute prozedura bateko interesdunak ezezagunak direnean, jakinarazpena non egin behar den ez jakitean eta, jakinarazpena egiten saiatuta ere gauzatzerik izan ez denean.

2. Iragarki ohol elektronikoa balio juridikoa izanen du Nafarroako Gobernuak, lehendakaritza, antolaketa administratibo eta informazio sistemen gaietan eskumena duten kontseilariak proposaturik, foru dekretu bidez hala xedatzen badu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen. Onera aurretik, unitate administratibo eskudunak egiaztatu beharko du sistemak informazioaren eskuragarritasun, benetakotasun, integritate eta kontserbazioko irizpide teknikoak betetzen dituela.

3. Iragarki ohol elektronikoa jakinarazpena egiteak ordezkatu eginen du administrazioak duen betebeharra, interesdunari udaleko ediktuen oholan jakinarazpen pertsonala egitekoa, baina ez du salbuetsiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzenetik.

4. Iragarki ohol elektronikoa argitaratzeak jakinarazpena ordezkatzeko du eta ondorio berak izanen ditu honako kasu hauetan:

a) Egintzaren hartzailea pertsona multzo zehaztu gabea denean.

b) Administrazioaren iritziz, interesdun bakar bati eginiko jakinarazpena aski ez denean gainerako balizko interesdunek egintzaren berri izan dezaten, eta kasu horretan, egindako jakinarazpenaren osagarria izanen da.

c) Hautapen edo edozein motatako lehia prozedura baten parte diren egintzak direnean, kasu horretan ohol honetan eginen baitira argitalpenak, eta ez dute baliorik izanen beste toki batzuetan egiten direnek; halaxe dela adieraziko da prozeduraren deialdian.

5. Iragarki ohol elektronikoa egoitza elektronikoa izatera izanen du lege, eta beraz bertan egintzak eta xedapenak argitaratzeak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeak duen balio bera izanen du.

## **V. KAPITULUA**

### **Sinadura elektronikoa**

**17. artikulua.** Agintarien eta funtzionarioen sinadura elektronikoa.

1. Hauek beharko dute agintari edo funtzionario eskudunaren sinadura elektronikoa, eta sinadura elektronikoa arautzen duen legerian xedatutakoaren menpe egonen dira:

a) Prozedura administratibo elektronikoa amaiara ematen dioten ebazpenak, gaiaren muienean zuzenean edo zeharka eragina duten tramite egintzak, prozedurak aurrera egitea galarazten dutenak edo defentsarik eza edo legezko eskubide eta interesentzako kalte konponezina eragiten dutenak.

b) Errekurtso administratiboaren gaineko ebazpenak.

c) Banakako organoen nahiz organo kolegiatu- en ziurtagiri administratiboak.

d) Prozedura administratiboan aginduzkoak diren irizpen eta txostenak.

e) Akordioak, itunak, hitzarmenak eta kontratuak.

2. Aurreko zenbakian aipatutako beste tramite egintzen kasuan aski izanen da organo administratiboa identifikatzea. Beste sinadura batzuk ere erabili ahalko dira, hala nola bitarteko mekanikoen bidez erreproduzitutako sinadura pertsonala, betiere dokumentuari behar besteko berme ematen bazaio balioari eta jatorriari dagokienez.

**18. artikulua.** Interesdunaren sinadura elektronikoa.

1. Erregistro orokor elektronikoa bidez dokumentu elektronikoa bat aurkezteko, eskatzailearen sinadura elektronikoa beharko da, hura erregulatzeko duen legearekin bat.

2. Sinadura elektronikoa aurreratua beharko da aurkezten diren dokumentu elektronikoen nahitaez norberak egin beharreko ekintzekin lotura dutenean, oinarritzko eskubideak ukitzen dituztenean edo errekurtso administratiboak egiten direnean.

3. Administrazioak sinadura elektronikoa aurreratuaren betebeharretik salbuetsi ahalko du, dokumentu elektronikoa igorleari buruzko informazioa dagoenean eta zalantzarik ez duenean dokumentuaren benetakotasunaz eta integritateaz.

**19. artikulua.** Sinadura erraztua eta sinadura-eskuordetza.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak beste bitarteko batzuk ezarri eta onartu ahalko ditu sinadura elektronikoa balio juridiko berdi-

narekin, bere eskumeneko prozedura administratibo elektronikoa tramitatu eta ebatzaren ondorio-etarako. Horretarako, isilpeko sarbide gakoak eman ahalko dizkie bere agintariei eta eskatzen duten pertsona juridiko edo fisikoei, prozedura administratibo elektronikoa erabili aurretik edo bitartean. Gako horiek alfanumerikoki eta ausaz eginen dira.

2. Agintarien sinadura administrazio egintzak multzoka edo sailka hartuta egin ahalko da, sinadura azkarragoa izan dadin.

3. Era berean, organo eskudunak ebatzen eta administrazio egintzen sinadura elektronikoa, guztiena nahiz batzuen, eskuordetu ahalko dizkie beren menpeko administrazio organo edo unitateen titularrei, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 40. artikuluan ezarritako moduan eta mugekin.

## VI. KAPITULUA

### Espediente elektronikoak eta dokumentu elektronikoaren artxiboa

#### 20. artikulua. Espediente elektronikoa.

1. Espediente administratibo elektronikoa prozedura administratibo bati dagozkion dokumentu administratibo elektronikoen guztiek osatuko dute.

2. Espediente elektronikoa orritan antolatua izan ahalko da, haren integritatea bermatuko duen aurkibide elektronikoen baten bidez.

3. Dokumentu elektronikoa bat espediente administratibo elektronikoa desberdinen parte izan ahalko da.

4. Espedientea, igorri ordez, eskura jarri ahalko da, lege ondorio guztiekin.

5. Interesdunak eskubidea izanen du espedientearen kopia eskuratzeko, horrek kendu gabe ezarritako zerbitzuaren tasak edo kostua ordaindu beharra, horiek eskatzerik badago.

#### 21. artikulua. Artxiboa.

1. Administrazioak dokumentu elektronikoak artxibatuko ditu halako moduan non aurrerago haien segurtasuna, benetakotasuna eta integritatea egiaztatzen diren.

2. Horretarako, egokitzat jotzen dituen aldaketak egin ahalko ditu formatoan, artxibatzea errazteko, funtsezko edukia aldatu gabe, eta dokumentuak babestu ahalko ditu zaharkitzetik eta bestelako inguruabar teknikoetatik.

3. Administrazioa izanen da bere esku dituen dokumentu eta artxibo elektronikoaren kontserbazio-

aren erantzulea, eta zaindu egiten ditu, suntsi ez daitezkeen edo zaharkituak geratzearen ondorioz atzitze ezinik gera ez daitezkeen.

Nafarroako Dokumentuen Ondarearen parte izan daitezkeen dokumentuen kontserbazioari dagokionez, kultur ondareari buruzko foru legerian xedatutakoa beteko da.

4. Artxibatzeako sistemak zaharkiturik gelditzea ez da inola ere aitzakia gisa erabiliko interesdunei espediente administratiboak atzitzea eragozteko.

5. Artxiboaren ardura duten funtzionarioek bertan dauden jatorrizko dokumentuen kopia konpultsatuak egin eta igorri ahalko dituzte bitarteko elektronikoekin.

## VII. KAPITULUA

### Prozedura administratibo elektronikoa alde batek eskaturik

#### 22. artikulua. Pixkanakako ezarpena.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak pixkanaka ezarriko du alde batek eskatuta hasten diren prozeduren tramitazio telematikoa.

23. artikulua. Prozedura administratibo elektronikoa libreki baliatzeko eskubidea.

1. Legez interesdunaren izaera duen edozein pertsona fisiko edo juridikok hasi eta tramitatu ahalko du prozedura administratibo elektronikoa bat Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan eta haiei dago kienez, foru lege honetako aurreikuspenei jarraikiz eta teknologiak ezarritakoez beste mugarik gabe.

2. Foru dekretu edo agindu bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ezarri ahalko du, justifikatuz gero, prozedura administratibo elektronikoa jakin batzuk bete beharra edo harekin edo haren erakunde publikoekin bitarteko elektronikoa soilik erabiliz komunikatu beharra, interesdunak, lanbideagatik, gaitasun ekonomiko edo teknikoagatik edo beste arrazoi batzuegatik, behar diren baliabide teknologikoak erabili eta eskura izateko aukera bermaturik duten pertsona juridikoak edo pertsona fisikoen taldeak direnean.

#### 24. artikulua. Hasteko eskaerak.

1. Prozedura administratibo elektronikoa bat has-teko interesa dutenek eskabidea aurkeztu beharko dute erregistro orokor elektronikoa, eskabidea aurkeztzen eta prozedura arintzen laguntzeko adierazten zaizkien agindu teknikoak betetz. Agindu tekniko horiek ez daitezke izan pertsona fisiko edo juridikoentzat bereizkeria eraginen duen oztopoa, objektibotasunik edo justifikaziorik gabea.

2. Eskabideak erregistro orokor elektronikoan edo prozeduretan bertan dauden eredu normalizatuak araberakoak izan daitezke edo eredu librekoak, artikuluko honen 4. idatz-zatian aipatzen den edukia errespetatuz betiere.

3. Aurreko idatz-zatian xedatutakoaren ondorio-etarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eskabide elektronikoetarako sistema normalizatuak sustatuko ditu.

4. Eskabideetan gutxienez honakoak jaso beharko dira:

a) Interesdunaren datu pertsonalak eta, hala-kerik dagoenean, ordezkaritza egiaztatzen dutenak, administrazio prozedura erkideari buruzko legeriak eskatutakoak.

b) Posta elektronikoko helbidea edo administrazioak onartu eta askitzat jotzen duen beste bitarteko elektronikoa bat, jakinarazpenak egiteko.

c) Jakinarazpen administratiboa beste edozein bitarteko erabiliz egiteko tokiaren helbidea, aurreko letraren arabera adierazitako posta elektronikoko helbidean jakinarazpena teknikoki egiterik ez dagoenean.

d) Eskabidea zehazten duten egitateak, arrazoiak eta eskaera.

e) Tokia eta eguna.

f) Zer organo, departamentu edo erakunde publikori zuzentzen zaion. Herritarrak zer organori zuzendu behar zaion ez jakitea ez da inola ere eragozpen izanen eskabidea tramitatzeko.

g) Sinadura elektronikoa

5. Eskatzaileek komenigarritzat jotzen dituzten dokumentuak erantsi ahalko dituzte beraien eskabideak zehaztu edo osatzeko, edo horietan jasotako egitateak eta arrazoiak justifikatzeko. Dokumentu horiek eskabideari erantsitako artxibo elektronikotan egonen dira, eta horien zerrenda behar bezala agertuko da eskabidean, aurkeztu direla eta ez direla galdu edo ezabatu publikoki jasota gera dadin, herritarrarentzako berme gisa.

**25. artikulua.** Hasteko eskabideen aldaezintasuna.

1. Behin eskabidea aurkeztuta eta erregistro orokor elektronikoak onartuta, ezinezkoa izanen da ez interesdunak ez administrazioak haren edukia edo hari erantsitako dokumentuen edo artxiboen edukia aldatzea. Eskabidea onartu ondoren egindako edozein aldaketa egin gabetzat joko da.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoak ez dio eragiten administrazioak dokumentua teknikoki

eraldatzeko duen ahalmenari, hala egitea beharrezkoa denean irakurri, gorde edo artxibatuzko, ez eta interesdunaren eskubideari ere beharrezkoak diren beste dokumentu batzuk aurkeztu edo azalpenak emateko, administrazio prozedurari buruzko legeei jarraikiz.

**26. artikulua.** Prozedura administratibo elektronikoa onartzea.

Eskabidea erregistro orokor elektronikoan aurkezteak eta hark onartzeak berarekin ekarriko du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarentzat eta haren erakunde publikoentzat, batetik, eta interesdunarentzat, bestetik, prozedura administratibo elektronikoa onartzea, eta bi aldeentzat ekarriko du halaber prozedurari jarraipena eta amaiera bitarteko horrekin ematea, errekurtsio administratiboak barne, horrelakorik aurkeztuz gero.

Aurrekoa gorabehera, justifikatzen duten arrazoiak egonez gero, interesduna paperezko euskarriko ohiko prozedura administratibora pasatzeko eskubideaz baliatu ahalko da, espediente tramatatzeko eskumena duen organoari adierazita. Eskubide horretaz baliatzen bada, ondoren prozedura administratibo elektronikora berriz itzultzeko aukera izateko organo administratiboaren adostasuna beharko da.

**27. artikulua.** Eskabidea organo eskudunari igortzea.

1. Erregistro orokor elektronikoaren arduradunak igorriko ditu aurreko artikuluei jarraikiz aurkeztutako eskabideak organo administratibo edo erakunde publiko eskudunari, zuzenean ailegatu ez bazaizkio.

2. Organo administratibo edo erakunde publiko batek bere eskumenekoa ez den eskabide bat jasoz gero tramitazio elektronikoa emateko, lehenbailehen igorriko dio bitarteko elektronikoa erabiliz hark ere eskabidea tramitatu eta ebazteko eskumena duen organo edo erakundeari. Interesdunari igorri dela adieraziko zaio hark emandako posta elektronikoko helbidean.

**28. artikulua.** Zuzenketa.

1. Prozedura hasteko eskabideak eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, organo edo erakunde eskudunak errekerimendu bat igorriko dio han adierazitako posta elektronikoko helbidera edo, halakorik ezean, adierazitako helbide alternatibora, lege ezarritako epean akatsa zuzen dezan edo aginduzko dokumentuak erantsi ditzan; hala egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela esanen zaio, ebazpena eman eta aipatutako posta elektronikoko helbidean jakinarazi ondoren.

2. Errekerimendua jasota geratuko da kasuan kasuko prozedura administratibo elektronikoan.

**29. artikulua.** Eskatutako dokumentua entregatzea.

Administrazioak eskatutako edozein dokumentu epean entregatu dela ulertuko da baldin eta entrega hori foru lege honetan xedatutakoarekin bat egin bada adierazitako epearen azken eguna baino lehen.

**30. artikulua.** Prozeduran entzutea ematea.

Alde batek eskatuta hasitako prozeduretan, elektroniko nahiz ohikoetan, sistema elektronikoen bidez emanen zaie entzutea interesdunei, behar diren berme juridiko guztiekin, haiek berariaz onartzen badute.

**31. artikulua.** Tramitazioaren egoeraz kontsulta egitea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sarbide mugatuko helbide elektroniko bat jarriko du, interesdunak hasitako prozeduraren tramitazioa zer egoeratan dagoen kontsultatzeko.

2. Prozeduraren tramitazio-egoerari buruzko informazioan egindako tramite egintzen zerrenda ageriko da, edukia –laburtua izan daiteke– eta gauzatu ziren eguna adierazirik.

**32. artikulua.** Atzera egitea eta uko egitea.

Prozedura administratibo elektroniko bat eragin duen eskabide batean atzera egitea edo hari uko egitea dokumentu elektroniko baten bidez edo ohiko bitartekoak erabiliz gauzatu ahalko da. Azken kasu honetan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ofizioz eginen du atzera edo uko egitearen idazpena espediente administratibo elektronikoan, horren gaineko ebazpen administratiboa ematea galarazi gabe.

**33. artikulua.** Inskribatzeak erregistro administratibo elektronikoetan.

1. Nafarroako Foru Komunitatearen lege edo administrazio xedapenek sortutako erregistro publikoetako inskribatzeen kasuan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zuzeneko sarbide bat sortuko du Nafarroako Gobernuaren interneteko web atariaren bidez, interesduna bere eskabidea erregistro orokor elektronikoan aurkezttera behartu gabe.

2. Inskribatze horietarako prozedura administratibo normalizatu elektroniko bat ezarriko da, zuzeneko inskribatzea eta horrekin lotutako tramite guztiak eta, beharrezkoa denean, tasen ordainketa ere egin ahal izateko.

**34. artikulua.** Inskribatzeak eta matrikulazioak ikastetxeetan edo prestakuntza zentroetan.

1. Inskribatzeak eta matrikulazioak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo haren erakunde publikoen ikastetxeetan edo prestakuntza zentroetan egitekotan, pixkanaka zuzeneko sarbideak sortuko dira Nafarroako Gobernuaren interneteko web atariaren bidez.

2. Horretarako, prozedura administratibo elektroniko normalizatuak ezarriko dira, inskribatzea eta matrikulazioa zuzenean egiteko bide emanen dutenak, bai eta horrekin lotutako tramite guztiak ere, aginduzkoak diren tasen ordainketa barne.

## VIII. KAPITULUA Ofizioz hasitako prozedurak

**35. artikulua.** Zenbait egintzaren eraginkortasunik eza.

1. Ofizioz hasitako prozedura administratibo elektronikoetan, jakinarazpen administratibo elektronikoen, alegazio epeak emateak edo dokumentuak bitarteko elektronikoen erabiliz aurkezteko errekerimenduek ez dute eraginkortasunik izanzen interesdunaren onarpena jasota ez badago.

Aurreko idatz-zatian xedatutakoa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ondare erantzukizuneko prozeduretan ere aplikatuko da.

2. Interesdunaren onarpena dagoela ulertuko da hark espresuki ematen duenean edo, eman gabe, berekin onarpena dakarten egintzak gauzatu dituztenean.

**36. artikulua.** Jendaurreko epea xedapen orokorrak ematean.

1. Hala aurreikusirik dagoenean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sistema elektronikoak erabiliz eta Nafarroako Gobernuaren interneteko web atariaren bidez beteko du berak sustatutako xedapen orokorren entzute edo jendaurreko tramitea.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoaren ondorioetarako, xedapenaren testua eta posta elektroniko helbide bat emanen dira, oharrak, iradokizunak edo alegazioak bidaltzeko, eta espresuki adieraziko da horretarako epea noiz amaitzen den.

## IX. KAPITULUA Organo kolegiatuak

**37. artikulua.** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren organo kolegiatuak.

1. Foru Komunitateko administrazioak edo haren erakunde publikoren batek sortutako organo

kolegiatuek, edo haien menpekoek, kide guztiak administrazio horien ordezkariak direnean, prozedura administratibo elektronikoa erabiliko dituzte jardunerako, ahal dela.

2. Bilkuren deialdia, gai zerrenda eta gaien buruzko dokumentazioa posta bidez helaraziko zaizkie kideei horretarako izendatua duten helbidean, baina galarazi gabe komunikatzeko beste bitarteko elektronikoa batzuk erabiltzea, hitzordurako bide hau erabiltzeko baimen espresua eman ala ez.

3. Deialdia eta gai zerrenda gutxienez bilkura baino berrogeita zortzi ordu lehenago egon behar dira hartzailearen helbide elektronikoa.

4. Organo kolegiatuetako kideek hitzordua jaso dutela jakinarazi behar diote deialdia egin duen organoari, baliabide elektronikoa erabiliz.

5. Ziurtagiri elektronikoa organo kolegiatuko idazkariak emanen ditu, eta aktak organoko buruak eta idazkariak izenpetuko dituzte.

6. Organo kolegiatuetako aktak, erabakien liburuak eta gainerako dokumentuak elektronikoki artxibatuko dira, haien benetakotasunerako eta kontserbaziorako behar diren berme guztiekin.

7. Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko foru legean eta hura garatzen duten arauetan xedatutakoak zuzenduko ditu Nafarroako Gobernuaren bilkurak.

### **38. artikulua.** Bilkura birtualak.

1. Organo kolegiatuek egiten dituzten bilkuretan, kide guztiak edo batzuk ohiko bilkuretarako zehaztutako egoitzaz beste toki batean egon ahalko dira, betiere guztiek modu berean parte har dezaten bermatzeko behar diren bitarteko elektronikoa jarrita baldin badaude.

2. Artikulu honetan aipatzen diren bilkurek toki bakar batean egindakoen balio bera izanen dute.

3. Lege ondorioetarako, bilkura birtuala egiten den tokia organo kolegiatuaren egoitza izanen da eta, halakorik ezean, atxikia dagoen departamentu edo erakunde publikoarena.

### **39. artikulua.** Beste organo kolegiatu batzuk.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo haren erakunde autonomoen menpeko organo kolegiatuek, haien kideak administrazio horietakoak edo haien ordezkariak ez direnean, jardunerako prozedura administratibo elektronikoa erabiltzea erabaki dezakete. Horrelakoetan, kapitulu honetan xedatutakoa aplikatuko da.

Halere, organo kolegiatuko kideak, Foru Komunitateko administrazioak ez badira eta deialdiak bitarteko elektronikoa ez diren beste bitarteko tradizionalen bidez jaso nahi dituztela adierazten badute, eskubide horretaz baliatu ahalko dira, organo kolegiatuko buruari edo idazkariari eskatuta.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritakoa galarazi gabe, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren erakunde publikoek organo kolegiatuko kideengana jo dezakete eta deialdia helarazi kapitulu honetan xedatutakoari jarraikiz, hitzordua egiteko bide hori erabiltzeko baimen espresua eman ala ez.

## **X. KAPITULUA**

### **Interesdunen fakturak eta sarrerak**

#### **40. artikulua.** Fakturak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde publikoek emandako zerbitzu-engatik hirugarrenek jaulkitako fakturak bitarteko elektronikoa erabiliz aurkeztea onartuko dute, jaulkitzailearen eta dokumentuaren benetakotasuna frogatua badute.

Jaulkitzailearen edo dokumentuaren egiazkotasuna frogatua ez bada, jaulkitzaileari eskatuko diote administrazioak egokitzat jotzen dituen baliabideekin frogatzea.

Era berean, administrazio horiek jasotako zenbatekoak ordainduko dituzte, ahal dela prozedura elektronikoen bidez.

**41. artikulua.** Interesdunek dirua sartzea Ogasun Publikoan.

1. Foru Ogasunari buruzko legerian xedatutakoarekin bat, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sistema elektronikoa gaituko ditu interesdunak administrazio horri edo Nafarroako Ogasun Publikoari zor dizkion tributuak, isunak, errekarquak edo bestelakoak bertan sar ditzan.

2. Gaitutako sistema horiek ordainketaren ziurtagiri inprimatua emanen dute.

## **XI. KAPITULUA**

### **Jarduera administratiboaren publizitatea**

**42. artikulua.** Nafarroako Gobernuaren web zerbitzuen ataria.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bideak ezarriko ditu herritarrek eskura izan ditzaten etengabe eta dohainik, Nafarroako Gobernuaren web zerbitzuen atariaren bidez, administra-

zio horrek eta haren menpeko erakunde publikoek ematen dituzten zerbitzu hauek:

a) Nafarroako Aldizkari Ofiziala.

b) Nafarroako Foru Komunitateak emandako lege eta erregelamendu xedapenak, behar bezala gaurkotuak, herritarrentzat interes handiena duten gaietakoak.

c) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde publikoen egitura organikoa, eta arduradunen identifikazioa bulegoaren mailaraino, posta elektronikoko helbidearekin.

d) Nafarroako aurrekontu orokorrak eta Nafarroako kontu orokorrak, Nafarroako Parlamentuak onetsiak.

e) Ematen dituen zerbitzuen katalogo orokorra.

f) Funtzio publikoarekin zerikusia duten deialdiak, eta horien tramite egintza nagusiak eta emailtzak.

g) Dirulaguntza publikoak ematearekin zerikusia duten deialdiak.

h) Kontratu publikoei buruzko foru legean aipatzen den Nafarroako Kontratazio Ataria.

i) Prozedura administratiboan inbentarioa, adierazirik zein dauden eskura formatu elektronikoa herritarrek erabil ditzaten.

j) Administrazioaren jakinarazpenak jasotzeko interesa duenak bere ordenagailu pertsonalean instalatu beharreko programak, ongi ibil daitezzen erregistro eta jakinarazpen sistemak eta, bereziki, jakinarazpenak irakurri, jakinarazpena egin duen organoaren benetakotasuna egiaztatu eta zuzentzen zaizkion idazkiak deszifratzekoak. Programa horiek eta administrazio publikoek dituzten bitarteko teknikoak bateragarriak izan beharko dira.

k) Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko legerian aipatzen den hirigintza planeamenduko erregistroa, zeinaren barruan egonen den hirigintza planei buruzko araudia, gaurkoturik.

l) Iradokizun, erreklamazio eta kexetarako buzoi bat, herritarrek bertara jo dezaten.

m) Lege edo erregelamenduz aginduta inskribatzea nahitaezkoa den erregistro administratibotarako estekak.

n) Haren iritziz interes orokorrekoak diren argitalpen eta informazioak.

2. Nafarroako Gobernuaren web zerbitzuen ataria bakarra izanen da, eta antolaketa administratiboaren eta informazio sistemen gaietako esku-menak dituzten departamentua edo departamen-

tuak izanen dira haren arduradun eta kudeatzaile teknikoak; sarbide bateratua izanen du.

**43. artikulua.** Nafarroako Aldizkari Ofizialaren bertsio elektronikoa.

Nafarroako Gobernuko web zerbitzuen atarian dagoen Nafarroako Aldizkari Ofizialaren bertsio elektronikoa paperezko argitalpen inprimatuak dituen lege ondorio berak izanen ditu. Bereziki, izaera ofiziala eta benetakoa izanen du, eta argitalpenak honakoetan aurreikusitako publizitate ondorioak izanen ditu: Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoren 22. artikulua, Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 57. artikulua, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen bosgarren xedapen gehigarria.

**44. artikulua.** Informazioak eta abisuak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek informazioa eman ahaliko diete interesdunei eta hala eskatu, adierazi edo onartzen duten herritarrei, sakelako telefonoetara edo antzeko sistemetara mezuak bidaliz, herritar horien interesekoak izan daitezkeen zerbitzu edo ekitaldi publikoei buruz, hala nola, informazioak, abisuak, kontsulten erantzunak, alertak etab.

**45. artikulua.** Aldizkari elektronikoak eta liburutegi birtuala.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak haren titularitate edo ardurapeko aldizkariak, argitalpenak, albistegiak eta interes orokorreko dokumentuak sustatuko ditu formatu elektronikoa, eta liburutegi elektronikoa bat sortzea bultzatuko du, bertan liburuak, dokumentu historikoak eta kulturak eta interes orokorreko beste dokumentu batzuk biltzeko, interesa duten herritarrek kontsulta dezaten Nafarroako Gobernuko interneteko web atariaren bidez.

## XII. KAPITULUA

### Herritarren parte-hartzea

**46. artikulua.** Bitarteko elektronikoen sustapena.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak herritarrek jarduera administratiboan parte hartzea sustatu eta ahalbidetuko du bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoen bidez, jendaurrean jarriz, inkestak eta iritzi zundaketak eginez eta beste metodo batzuk erabiliz.

Inkesta eta zundaketa horien balioa herritarren iritzia ezagutu eta jakitea baizik ez da izanen, jar-duera administratibotik eta zerbitzu publikoen funtzionamendutik gertuago.

### XIII. KAPITULUA

#### Administrazio Elektronikoaren Batzordea

##### 47. artikulua. Gaikuntza.

Nafarroako Gobernuak, foru dekretu bidez, Administrazio Elektronikoaren Batzordea sortu eta arautuko du; batzorde horretako kideak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu guztien eta haiei atxikitako erakunde publikoen ordezkariak izanen dira, bai eta lehendakari-tzako eta informazioaren gizarterako eskumenak dituzten departamentuetako ordezkariak ere. Batzordeak administrazio elektronikoaren ezarpena sustatu, planifikatu eta koordinatzea izanen du xede, egiazkoa eta herritarrentzat nahiz funtzionario publikoentzat erabilgarria izan dadin.

### XIV. KAPITULUA

#### Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde publikoen zerbitzuko langileen hautaketa eta prestakuntza

##### 48. artikulua. Hautaketa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan edo haren erakunde autonomoetan sartzeko deialdietan, bai eta burutzak eta erantzukizun bereziko lanpostuak betetzeko lehiaketetako oinarrietan ere, administrazio publikoetan informazio eta komunikazio teknologiak erabiltzearekin lotura duten gaiak eta, komenigarri iritziz gero, probak edo merezimendu balorazioak sartuko dira, izan-gaiek tresna horien guxtieneko ezagutza dutela frogatzeko.

##### 49. artikulua. Prestakuntza.

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutu-planetan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak funtzionarioak eta lan-kontratudunak informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabileran trebatzeko prestakuntza sartuko du, eta bereziki gaitutako prozedura administratibo elektronikoaren erabileran, langileek horiek kudeatzeko gaitasuna izan dezaten.

**Lehenengo xedapen gehigarria.** Herritarren eskubideen babesa eta gainbegiratzea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren eskumena da foru lege honetan herritarrei aitortu-tako eskubideen eraginkortasuna zaintzea, esku-bide horiek urratzeagatik gertatzen diren kexei erantzutea eta Nafarroako Foru Komunitateko

Administrazioari eta haren erakunde autonomoi iradokizunak eta proposamenak egitea bere lege arau-emaelean ezarritako moduan eta ondorioekin.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoko titularrak edo honek eskuordetutako per-sonak, bulegoaren menpekoak, modu koordinatu-an jardunen du Estatuak edo autonomia erkidego-ek administrazio elektronikoaren edo prozedura administratibo elektronikoaren arloan legez sortuta-ko erakunde parekoekin.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Datu pertsona-len babesa.

1. Administrazio elektronikoa ezartzeak ez du inola ere ekarriko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren erakunde autonomoek herritarren datu pertsonalak babesteko duten betebeharretik salbustea edo hura ahultzea.

2. Nafarroako Gobernuak foru dekretu bidez sustatu ahalko du Nafarroako Datu Pertsonalak Babesteko Agentzia sortzea.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tributu eta kontratazio prozeduren berezitasunak.

1. Foru lege honetan ezarritakoa aplikatzekoa izanen zaie tributu prozedurei, beren arau berezietan xedatutakoaren kontra ez doan guztian.

2. Foru lege hau aplikatzekoa izanen zaie Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontratazio prozedurei, Kontratu publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen menpe daudenei, lege horretan eta hura garatzeko arauetan xedatutakoaren kontra ez doan guztian.

**Laugarren xedapen gehigarria.** Lankidetzeta eta elkarlana beste administrazio publiko batzuekin.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa lankidetzan eta kooperazioan arituko da beste administrazio publiko batzuekin, batez ere Estatu-ko administrazio orokorarekin eta toki entitateekin, zerbitzu elektronikoak batera ematen lagunduko duten administrazio arteko komunikazio sareak sortzeko.

**Bosgarren xedapen gehigarria.** Administrazio publikoen organoen arteko komunikazioak eta horien zerbitzuan dauden langileei eginak.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, erabateko balioa izanen dute Foru Komunitateko administrazioaren organoek elkarri egiten dizkieten administrazio



egintzen jakinarazpen elektronikoen, bai eta organo horiek erakunde publikoak egindakoak eta erakunde publikoetako organoak elkarri egindakoak ere.

Era berean, egun horretatik aurrera balioa izanen dute Foru Komunitateko administrazioak eta haren erakunde autonomoak zerbitzuaren arazo-enganatik langileei egiten dizkieten administrazio egintzen jakinarazpen elektronikoen.

Komunikazioaren hartzailak, pertsona, organo edo entitatea izan, kasuan kasuko espediente administrazioan sartuko du hura. Espedientea elektronikoa baldin bada, halaxe sartuko du, eta espedientea paperean baldin badago, inprimatutako kopia bat erantsiko dio.

**Lehen xedapen iragankorra.** Prozedura administrazio elektronikoen ezartzeko epeak.

Ezarpena pixkanakakoa eta partziala izatea galarazi gabe, foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta lau urteko epean ezarriko egonen dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan, bertsio elektronikoen, prozedura administrazio hauen oinarriko elementuak:

- d) Xedapen orokorrak prestatzekoak.
- e) Partikularren jardueren baimen administrazioak.
- f) Zehapen administrazioak ezartzekoak.
- g) Dirulaguntzak eta laguntza publikoak ematekoak.
- h) Nahitaezko desjabetzeenak.
- i) Erregistro publikoetako inskribatzeenak.
- j) Ikastetxe eta prestakuntza zentroetan inskribatu eta matrikulatzekoak, tasen ordainketa barne.

k) Nafarroako Zerga Ogasunak zehazten dituen tributu, prezio eta bestelako kontzeptuak ordaintzekoak.

l) Errekurtso administrazioak tramitatu eta ebaztekoak.

**Bigarren xedapen iragankorra.** Egundakuden prozedura administrazio elektronikoen.

1. Ez da beharrezkoa izanen foru lege honen 2. artikuluan aipatzen den gaikuntza, ez eta onetsi edo argitaratzea foru lege honek indarra hartzean onetsirik dauden prozedura administrazio elektronikoen bertsio berriak edo aldaketak, egiten dituzten informazio tratamenduen emaitzen funtsari eragin ahal dion aldaketarik gertatu ez bada.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren erakunde publikoak erabilitako prozedura administrazio elektronikoen foru lege honetan jasotako arauetara egokitu beharko dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean urtebeteko epean.

**Azken xedapenetan lehena.** Nafarroako Gobernuaren erregelamenduz gaitzea.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren erregelamenduzko xedapenak eman ditzan.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indargabetea.

Indarrak gabe gelditzen dira foru lege honetan ezarritakoaren kontrakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

**Azken xedapenetan hirugarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta sei hilabetera hartuko du indarra.

## Foru Lege proiektua, artxiboei eta dokumentuei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2007ko otsailaren 5ean hartutako erabakiaren bidez, artxiboei eta dokumentuei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**1.** Artxiboei eta dokumentuei buruzko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

**2.** Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Kultura eta Turismo Batzordearen esku uztea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2007ko martxoaren 5eko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2007ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

## **Artxiboei eta dokumentuei buruzko Foru Lege proiektua**

### **AURKIBIDEA**

#### **ZIOEN AZALPENEA**

##### **I. TITULUA**

###### **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Foru legearen helburua.
2. artikulua. Definizioak.
3. artikulua. Aplikazio esparrua.

##### **II. TITULUA**

###### **Dokumentuak**

4. artikulua. Titulartasun publikoko dokumentuak.
5. artikulua. Titulartasun pribatuko dokumentuak.

##### **III. TITULUA**

###### **Nafarroako artxibo sistema**

##### **I. KAPITULUA**

###### **Definizioa eta egitura**

6. artikulua. Definizioa.
7. artikulua. Egitura.

##### **II. KAPITULUA**

###### **Nafarroako artxibo sistemaren organoak**

8. artikulua. Sistemaren burua.
9. artikulua. Nafarroako Kultura Kontseilua.
10. artikulua. Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordea.

##### **III. KAPITULUA**

###### **Nafarroako artxibo sistemako kideen eskubide, betebeharrak eta eginkizunak**

11. artikulua. Eskubideak.
12. artikulua. Baldintza teknikoak.
13. artikulua. Langile arloko baldintzak.
14. artikulua. Laguntza eman beharra.

##### **IV. KAPITULUA**

###### **Antolamendu eta tratamendu artxibistikoa**

15. artikulua. Dokumentuen bizi-zikloa eta horren faseak.
16. artikulua. Bulegoko artxiboak.
17. artikulua. Bitarteko artxiboak.
18. artikulua. Artxibo historikoa.

19. artikulua. Dokumentuen ebaluazioa eta kontserbazio egutegiak.

20. artikulua. Dokumentazioa jendearen eskura jartzea.

##### **IV. TITULUA**

###### **Erakundeen artxibo sistemak**

##### **I. KAPITULUA**

###### **Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren artxibo sistema**

21. artikulua. Definizioa.

22. artikulua. Egitura.

23. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Artxibo Sistemaren Zuzendaritza.

24. artikulua. Bulegoko artxiboak.

25. artikulua. Artxibo zentralak.

26. artikulua. Administrazioaren artxiboak.

27. artikulua. Nafarroako Errege Artxibo Nagusia.

##### **II. KAPITULUA**

###### **Toki entitateen artxibo sistemak**

28. artikulua. Nafarroako Artxibo Sistemari lotzea.

29. artikulua. 15.000 biztanlelik gorako udalak.

30. artikulua. Beste toki entitate batzuk.

##### **III. KAPITULUA**

###### **Beste erakunde eta entitate batzuen artxibo sistemak**

31. artikulua. Nafarroako Parlamentua.

32. artikulua. Estatuko Administrazio Orokorra.

33. artikulua. Epaitegi eta auzitegiak.

34. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

35. artikulua. Fede Publikoaren artxiboak.

36. artikulua. Nafarroako Artxibo Sistemaren sartzeari buruzkoak.

##### **V. TITULUA**

###### **Zehapen araubidea**

37. artikulua. Arau-haustea, zehapenak eta zehapen prozedura.

Azken xedapenetan lehena. Nafarroako Gobernari baimena ematea

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

## **Artxiboei eta dokumentuei buruzko Foru Lege proiektua**

### ZIOEN AZALPENA

Nafarroak balio handiko dokumentu ondarea du. Dokumentu horietako batzuk Erreinuak garai batean izan zituen erakundeetatik heldu zaizkigu, baina badira Foru Diputazioarenak, toki entitateenak eta baita Nafarroako Foru Komunitatean jardun duten entitate pribatu, familia eta gizon-ema-kumeenak ere.

Dokumentu ondare hori kontserbatzeko interesa beti izan da. Ildo horretan, aipagarriak dira Erdi Aroko erregeek beren administrazioko dokumentuak gordetzeko sustatutako ekimenak, Errege Artxibo bat eratu izana eta Errege Epaitegietan artxibozain kargua aspaldi sortu izana. Ahalegin horren mugari garrantzitsuak dira, orobat, XVIII. mendearen bukaeran artxibo publikoak eta elizarenak berrantolatzeke egindako lana eta 1898. urtean Nafarroako Artxiboa hartzeko eraikin berariazko bat eraiki izana.

Toki esparruari dagokionez, aipatzekoa da 1423. urtean Iruñeko Udal Artxiboa sortu zela eta 1547. urtean herriak gobernatzeko Ordenantzak onetsi zirela. Izan ere, azken horien bidez dokumentuen zainketa eta inbentarioa arautu ziren. 1896. urtean, Foru Diputazioak udal artxiboak antolatzeke agindu zien tokian tokiko idazkariei, Diputazioaren beraren tutoretzapean.

Elizen artxiboek ere garrantzi handia izan dute; batetik, Erdi Arotik katedral eta monasterioetan agiritegi garrantzitsuak zeudelako eta, bestetik, XVI. mendetik aurrera parroketako artxiboak hedatu zirelako.

Dena dela, Nafarroako dokumentu ondarea eta memoria historikoa -gaur egungo formulazioan baina baita etorkizunerako ondare gisa ere- gordetzeko beharrari egungo dokumentazioa behar bezala kudeatzeko beharra erantsi behar diogu. Ez dugu ahaztu behar gaur sortzen diren dokumentuak biharko historiari buruzko jakintzaren iturri izanen direla.

Azkeneko hamarkadetan, administrazio publikoek gero eta dokumentu gehiago sortzen dituztela ikusirik, irtenbide berriak bilatu behar izan dira dokumentuak gorde, erabili eta zabaltzeko. Herri-tarrendako zerbitzu eraginkorra, kalitatezkoa eta gardena emanen bada, artxiboetarako teknika berriak ezarri behar dira, dokumentuak modu eragingarrian eta errentagarrian berreskuratzea ahalbidetzen dutenak. Era berean, aurrerapen teknologikoei esker eta informazioa eskuratzeko orduan irizpide demokratikoak aplikatzeari esker, artxibo-

ak kudeaketa administratiboaren giltzarri bihurtu dira.

Horiek helburu, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Errege Artxibo Nagusiaren eraikin berria egiteari ekin zion. Artxibo horrek aurrerapen teknologikorik modernoena ditu. Baina aldaketak askoz sakonagoak izan dira eta, ondorioz, Foru Administrazio osoan dokumentuak kudeatzeko planteamendu orokorra hartu da. Horrenbestez, zuzendaritza bakarra dago orain, Nafarroako lurralde osoan proiektu artxibistikoak burutu eta planak koordinatzeko ahalmena eta eskumena dituen.

Lan artxibistikoari ikuspegi orokor batetik heletzea falta zen. Horretarako, lege mailako arau bat prestatu beharra zegoen, araudia eta metodologia mugatu eta jarduketaren hari nagusiak finkatzeko eta ekintza eta programa artxibistiko batzuk abian jartzeko, hori guztia Nafarroako dokumentu ondarea antolatu, kudeatu, ebaluatu, zaindu eta zabaltzeko asmoz.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.10 artikulua arabera, Nafarroak erabateko eskumena du estatukoak ez diren artxiboen gainean. Era berean, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legeak kapitulu berezi bat du dokumentu ondarearen gainean.

Logikoa denez, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko Foru Legearen aplikazio eremua horren zabala izanik, arlo honetan lanean ari direnen eta erantzukizunak dituztenen aholkularitza eta kontsentsua bilatu behar izan dira. Horrela, foru lege hau Nafarroako Gobernuko artxibozainen, Nafarroako Kultura Kontseiluko Artxibo eta Liburutegien Batzordearen eta Nafarroako Artxibozainen Elkar-tearen elkarlanaren fruitua da.

Foru legeak bost titulu ditu. Lehenengoan xedapen orokorrak biltzen dira. Bertan, lege honen helburua, legea garatzeko oinarritzko kontzeptuak eta aplikazio eremua adierazten dira. Titulu honen helburua foru legea oso-osorik ulertzeko behar diren zehaztapenen berri ematea da eta, aldi berean, legeak Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearekin dituen harremanak agerian jartzea, batez ere dokumentu ondareari dagokionez.

II. tituluak titulartasun publikoko dokumentuen eta titulartasun pribatuko dokumentuen ezaugarriak biltzen ditu. Hori lortzeko, legegintzaren aldetik berria den ikuspegi bat erabiltzen da, izan ere, agerian uzten da artxibategi publikoetan eta pribatuetan mota bateko zein besteko dokumentuak daudela. Horrela erakusten da jatorriz publikoak

ziren dokumentu batzuei artxibategi pribatuei dagokien funtzionamendu araubidea aplikatzen zaiela eta jatorri pribatuko dokumentu batzuei, berriz, artxibategi publikoetako kudeaketa irizpideak, sartzeko direnko prozedura administratiboaren arabera. Horrek erakusten du zein garrantzitsua den dokumentuak beren produkzioaren prozesuaren barrenean kokatzea, hots, sorreratik bertatik abiatuta helburuko erabilera bukatu arte.

III. titulua Nafarroako Artxibo Sistemari buruzkoa da eta zuzeneko lotura du Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legeak dokumentu ondareari buruz diotenarekin. Zehazki, bere barrenean dauden Nafarroako Foru Komunitateko artxibo guztien koordinazio eta lan-kidetzarako goreneko esparru gisa eratzeko Sistema. Artxibo publiko eta pribatuak hartuko ditu, eskubide eta eginbehar berberak baitituzte, hala nola metodologia eta baliabide berberak dokumentuen bizi-ziklo osoan egiten duten lan artxibistikoaren abiapuntu gisa. Estandar berberak aplikatuz, dokumentuen titularrak diren entitateei ahalik eta zerbitzurik eraginkorrena ematea bilatzen da eta, azken finean, Nafarroako Dokumentu Ondarea antolatu, kudeatu, zaindu eta zabaltzen egindako ahalegina nafar guztien onerako izan dadila.

IV. tituluak Nafarroako erakunde eta entitate publikoetako artxibo sistemak ditu aztergai. Horien artean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Sistema nabarmentzen da, foru administrazioaren menpeko artxiboen zuzendaritzan eta koordinazioan eginkizun garrantzitsua baitu. Horren barrenean sartzeko dira, besteak beste, Errege Artxibo Nagusia, Administrazioaren Artxiboa, artxibo zentralak, bulego artxiboak eta Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordea. Sistema honek eredugarria izan behar du dokumentuak eta artxiboak kudeatzeko erakundeek dituzten beste sistema batzuentzat, batez ere toki entitateentzat eta Nafarroan dauden beste administrazio publiko batzuentzat. Bestalde, foru legean toki entitateek dokumentuak kudeatzeko moduak sailkatzen ditu, 15.000 biztanletik gorakoentzat modu bat eta hortik beherakoentzat beste bat. Betiere, denak daude behartuak beren dokumentuak egoki antolatu eta kontserbatzera. Foru legearen arabera, Nafarroan dauden beste entitate edo erakunde publiko batzuek ere dokumentuak kudeatzeko sistema berariazkoak izan behar dituzte, bakoitzaren esparruan dagoen legediari jarraikiz.

Azkenik, V. tituluaren zehapen araubidea jasotzen da. Foru lege honetan ezarritako eskubide eta eginbeharrak ez betetzetik datozen arau-haustek sailkatzen dira, Nafarroako Kultur Ondareari

buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legetik abiatuta.

## I. TITULUA Xedapen orokorrak

### 1. artikulua. Foru legearen helburua.

Foru lege honen helburuak dira, batetik, titular-tasun publikoko dokumentuak eta titulartasun pribatukoak mugatzea, bestetik, Nafarroako Artxibo Sistema eratzea, batez ere bere egitura, bere partaideen eskubide, betebeharrak eta eginbeharrak eta bere antolaketa eta tratamendu artxibistikoa eta, azkenik, Nafarroako Gobernuaren, toki entitateen eta Nafarroako Foru Komunitatean dauden beste erakunde publiko batzuen dokumentazioa kudeatzeko irizpideak finkatzea. Horrekin Nafarroako Dokumentu Ondarea kontserbatzea eta ugaltzea bilatzen da eta, aldi berean, ondare hori behar bezala identifikatu, antolatu, ebaluatu, jendearen eskura jarri, kontserbatu eta zabaltzea, beharrezkoa den tratamendu teknikoa erabiliz.

### 2. artikulua. Definizioak.

Foru lege honen ondorioetarako, definizio hauek ezarri dira:

a) Dokumentua: hizkuntza natural nahiz kode-tuan ahoz nahiz idatziz egindako edozein adierazpen, eta edozein adierazpen grafiko, soinuak edo irudizko, edozein modutako euskarri material gaurko nahiz etorkizunekoan jasoa eta pertsona fisiko edo juridikoen jardueran sortua.

b) Dokumentu ondarea: Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen 71. artikuluan sartuta dauden dokumentuen bilduma.

c) Dokumentu funtsa: dokumentu multzo organiko bat da, pertsona fisiko nahiz juridiko, publiko nahiz pribatu batek bere jardueran eta eginkizunak betetzean bere bizitzan zehar prozesu naturalean bilduz osatua.

d) Dokumentuen bilduma: multzo artifizial bat da, aldeztatik finkatutako helburu eta erabilera batzuk lortzeko asmoz egindako hautapen batetik abiatuta. Dokumentuen bildumetan dokumentuak beren jatorrizko testuingurutik aparte agertzen dira, gehienetan gaiaren arabera antolatuak.

e) Artxiboa: organismo edo instituzio bat da, dokumentuak eta dokumentu funtsak antolatu, zaindu, kudeatu, deskribatu, kontserbatzeko eta zabaltzeko eginkizunak berariaz betetzen dituen, gero kudeaketa administratiborako, informaziorako eta ikerkuntzarako erabiltzeko. Artxiboa da, halaber, dokumentu funtsa edo funtsen multzoa.

f) Dokumentuak kudeatzeko sistema: dokumentuek beren bizitzako aldi guztietan behar duten tratamendua finkatzeko arau eta politikak garatzeko oinarritzat hartzen diren printzipio metodologikoak, teknikak eta baliabideak mugatzen, ezartzen eta ebaluatzen dituen markoa, etapa bakoitzerako antolaketa, kontserbazio, tratamendu eta erabilera arau ezberdinak finkatzen dituena.

g) Dokumentuen bizi-zikloa: dokumentuak dituen faseak, alegia, sortzen denetik lekukotasun historiko gisa duen garrantziagatik behin betikoz kontserbatzea edo balio administratiboa ahitua duela-eta desegitea erabakitzen den artekoa.

h) Dokumentu saila: administrazio jarduera berean prozedura-arau eta arau juridiko bereber jarraikiz sortutako dokumentuen multzoa; edo jarduera beraren ondorioz jarraian sortutako dokumentu multzoa.

i) Dokumentuen ebaluazioa: dokumentu sail bakoitzean, dokumentuaren bizi-ziklo bakoitzerako kontserbazio epeak ezartzeko, partez edo osorik suntsitu behar den erabakitzeko edo haiek eskuratzeko irizpideak baloratzea.

j) Kontserbazio arauak: dokumentuak ebaluatzeko erabaki multzo bat, honako hauek finkatzeko: erakunde batek bere eginkizunak garatzeko lanean sortzen dituen sail guztietan, sailaren bizi-zikloaren fase bakoitzerako kontserbazio epeak, saila eskuratzeko arauak eta azkeneko kokagunea.

k) Kontserbazioaren egutegia: baliabide artxibistiko bat da, erakunde baten barrenean sortzen diren dokumentu sail guztiendako kontserbazio arauak edo haien ebaluazioaren gaineko erabakiak biltzen dituena.

### **3. artikulua.** Aplikazio esparrua.

1. Foru lege honen pean egonen dira Nafarroako Administrazio Publikoetako eta haren menpe dauden enpresa, erakunde eta entitateetako artxiboak eta dokumentazioa, hala nola Nafarroako Artxibo Sistemari sartuta daudenak.

2. Bidezkoa denean, foru lege hau aplikatuko zaie, Nafarroako Artxibo Sistemari sartuta egon gabe, Nafarroako Dokumentu Ondarea osatzen duten artxibo eta dokumentuei.

## **II. TITULUA** **Dokumentuak**

**4. artikulua.** Titulartasun publikoko dokumentuak.

1. Foru lege honen ondorioetarako, titulartasun publikoko dokumentuak dira Nafarroako adminis-

trazio eta erakunde publikoek beren jardura politiko eta administratiboan sortzen dituzten dokumentuak, hala nola, jatorri pribatua izanik, aipatu erakundeek beraiei dagozkien eginkizunetan jasotzen dituztenak.

2. Titulartasun publikoko dokumentuak, sortu edo pilatzen diren unetik, dokumentu ondarearen zati dira eta horien kudeaketa foru lege honetan ezarritako printzipioei jarraikiz eginen da, Nafarroako Artxibo Sistemari dagokionez.

3. Titulartasun publikoko dokumentuak dira enpresa eta entitate pribatuek eginkizun publikoetan ari direla sortzen dituztenak. Horrenbestez, kasuan kasuko artxibo publikoan sartuko dira eta Administrazio titularrak ezartzen dituen irizpideei jarraikiz kudeatuko.

4. Titulartasun publikoko dokumentuak kudeatzen edo zaintzen dituen erakunde edo entitate bat iraungi edo desagertzen bada, iraungitzeko eskumena duen organoak erabakiko du dokumentazioa zein artxibo publikotara eramanen den.

5. Zerbitzu dokumentaletarako laguntza teknikoa kontratatuz gero, organo edo entitate titularraren esku geldituko da kudeaketa sistema aukeratzeko, hala nola kontratatzen den jardueraren zuzendaritza eta gainbegirale lana egitea.

6. Kargu publikoek dagozkien eginkizunetan ari diren bitartean pertsonak sortu edo jasotzen dituzten dokumentuak titulartasun publikokotzat hartuko dira ondorio guztietarako. Beraz, kasuan kasuko artxibo sistemaren zati izanen dira.

7. Titulartasun publikoko dokumentuak bahiezinak, preskribiezinak eta besterenezinak dira.

**5. artikulua.** Titulartasun pribatuko dokumentuak.

1. Foru lege honen ondorioetarako, titulartasun pribatuko dokumentuak dira pertsona edo entitate juridiko-pribatu batenak direnak, dokumentuak publikoak edo pribatuak diren kontuan hartu gabe.

2. Titulartasun pribatuko dokumentuak Nafarroako Dokumentu Ondarearen zati dira, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen 71. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. Titulartasun pribatuko dokumentuekin osatzen diren artxiboak Nafarroako Artxibo Sistemari sartzen ahalko dira. Sartuz gero, foru lege honetan aipatzen diren eskubide eta eginbeharrak izanen dituzte.

4. Sistemari sartzen ez direnek Administrazio Publikoek Nafarroako Dokumentu Ondarea kon-

tserbatu eta sustatzeko ematen dituzten onurak eta laguntzak jasotzen ahalko dituzte.

5. Artxiboen gaineko eskumenak hartzen dituen departamentuak garrantzi handiko dokumentu ondarea duten irabazi asmorik gabeko entitate pribatuei laguntza teknikoa emanen die.

6. Dokumentu pribatuen titularrak diren entitate edo pertsonak zilegi dute dokumentuak artxibo publiko batean gordetzea, behar bezala kontserbatu eta jendearen eskura jar daitezen, betiere ezartzen diren baldintzetan.

### III. TITULUA

#### Nafarroako artxibo sistema

##### I. KAPITULUA

###### Definizioa eta egitura

###### 6. artikulua. Definizioa.

Nafarroako Artxibo Sistema Nafarroako Foru Komunitatean dauden artxibo arloko organo, zentro, zerbitzu eta bestelako baliabideen multzo koordinatua da. Arau eta prozedura komunak aplikatuz, tratamenduaren uniformetasuna, elkar-osa-garritasuna eta eraginkortasuna bermatzen du, Nafarroako Dokumentu Ondarea egoki kudeatu, babestu, baloratu, kontserbatu, bildu, deskribatu eta zabaltzeko lanetan. Helburu horiek kideen arteko lanaren koordinazioari eta lankidetzari esker lortzen dira, batez ere artxibo lanetan teknologia berriak sartuz.

###### 7. artikulua. Egitura.

Hauek dira Nafarroako Artxibo Sistemaren partaideak:

a) Artxiboen arloan eskumena duen departamentua, Nafarroako Artxibo Sistemaren burua izanen baita.

b) Nafarroako Kultura Kontseilua.

c) Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordea.

d) Nafarroako Foru Komunitatean dauden administrazio publiko guztietako organo, zentro, zerbitzu eta bestelako baliabide artxibistikoak, edozein delarik dokumentuen titularra eta antzintasuna.

e) Hitzarmen baten bidez, sisteman sartzen diren organo, zentro, zerbitzu eta bestelako baliabide artxibistiko pribatu batzuk.

f) Erregelamenduz sisteman sartzeko aukeratzten diren beste organo batzuk.

##### II. KAPITULUA

###### Nafarroako artxibo sistemaren organoak

###### 8. artikulua. Sistemaren burua.

1. Nafarroako Artxibo Sistemaren burua den aldetik, artxiboen arloan eskumena duen departamentuak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Nafarroako Artxibo Sistema koordinatzea, bertan parte hartzen duten organoak sustatuz eta arau eta teknika artxibistikoak ezarriz.

b) Profesionalak eguneratzeko prestakuntza bultzatzea eta Sistemako artxiboetan teknologia berriak sartzeari sustatzea.

c) Dokumentuak eskuragarri jartzeko sustapen lana egitea.

d) Nafarroako Administrazio Publikoek sortutako dokumentazioa Kontserbatzeko Egutegi Orokorra eguneraturik izatea, administrazio batzuetan dokumentuen ebaluaziorako batzordeak egonda ere.

e) Sisteman sartutako artxiboetan dokumentuak kudeatzeko irizpideak egoki aplikatzen direla begiratzea.

f) Sisteman dauden artxiboek aplikatzen ahal zaizkien kudeaketa ebaluatzeko adierazleak edo kalitatea ebaluatzekoak homologatzea.

g) Nafarroako Dokumentu Ondarea kontserbatu eta zabaltzeko sustapen lana egitea eta, ondare horri dagokionez, Interes Kulturalako Ondasunen Adierazpenak eta Ondasun Inbentariatuaren Adierazpenak tramitatzea.

h) Nafarroako Artxiboen Errolda egin eta eguneraturik edukitzea.

i) Ikuskapen lana egitea eta zehapen espedienteak tramitatzea.

j) Dokumentuen kudeaketarekin eta artxiboekin zerikusirik izanik, erregelamenduz agintzen ahal zaion beste edozein eginkizun.

2. Sistemaren buruari agindutako eginkizunak hobeki gauzatzeko, Nafarroako Artxiboen Erregistroa sortzen da, non Nafarroan dauden zentro artxibistiko guztiak inskribatu beharko baitira. Erregistroko datuak, batez ere, Artxiboen Errolda eta Nafarroako Artxiboen Mapa egin eta eguneratzeko erabiliko dira, bi horiek beharrezko tresnak baitira dokumentuen kudeaketaren eta artxiboen tratamenduaren arloan lehentasunak ezartzeko.

###### 9. artikulua. Nafarroako Kultura Kontseilua.

1. Nafarroako Foru Administrazioak kultur arloan kontsultatu eta aholku eskatzeko duen organoa

da. Hortaz, dokumentuen eta artxiboen gainekoak ere hari dagozkio.

2. Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen 10. artikuluan ezarritakoez gainera, Nafarroako Kultura Kontseiluak eginkizun hauek ere izanen ditu:

a) Dokumentuen kudeaketaren eta artxiboen tratamenduaren arloko jarduketak proposatzea.

b) Artxibo lanen gaineko txostenak egitea eta horren gaineko programa orokorrak lagundu eta sustatzea.

c) Nafarroako Artxibo Sistemari artxibo berriak sartzearen gaineko txostenak prestatzea.

d) Nafarroako Artxiboen Errolda nola prestatzen den gainbegiratzea.

e) Dokumentuen Ondareari buruz egiten diren Kultur Intereseko Ondasunen eta Ondasun Inbentariatuaren adierazpenen espedienteetan txostena prestatzea.

f) Arau berriei buruzko proposamenen gainean aginduzko txostena prestatzea, baita sistemaren buruak sistemaren barreneko zentro guztietan ezartzeko proposatzen dituen koordinazio baliabide guztien gainean ere.

3. Batzordearen osaera, funtzionamendua eta konpentsazioak erregelamendu bidez ezarriko dira. Batzordekideen artean, bai Administrazio Publikoetako artxiboetako profesionalak, baita sistemari sartuta dauden entitate pribatuetakoak ere egon beharra xedatuko da.

**10. artikulua.** Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordea.

1. Aholku emateko organo teknikoa da, artxiboen arloko eskumenak dituen departamentuari atxikia. Nafarroako Administrazio Publikoetan sortutako dokumentuen balorazioari, hautapenari eta eskuragarritasunari buruz txostenak egitea dagozkio.

2. Hona hemen Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordearen eginkizunak:

a) Dokumentu sailak suntsitu edo etengabe gorde behar diren ebaluatzeko irizpideak eta artxiboko dokumentuen eskuragarritasunari buruzkoak finkatzea.

b) Dokumentuen balorazioarekin eta indarreko legediarekin bat, Nafarroako Dokumentuen Ondarearen barrenean diren dokumentuak eskuratu ahal izateko baldintza eta epeak finkatzea.

c) Erregelamenduz ezartzen diren gainerako eginkizunak.

3. Batzordearen osaera, funtzionamendua eta konpentsazioak erregelamendu bidez ezarriko dira.

4. Administrazio Publikoek zilegi dute dokumentuen baloraziorako batzordeak eratzea. Batzorde horiek prestatzen dituzten kontserbazio egutegiak Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordeari igorri beharko dizkiote.

5. Ebaluazio batzorderik ez duten Administrazio Publikoek Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordeari igorriko dizkiote proposamenak.

### III. KAPITULUA

#### Nafarroako artxibo sistemako kideen eskubide, betebeharrak eta eginkizunak

##### 11. artikulua. Eskubideak.

1. Foru lege honen 7. artikuluko d), e) eta f) letretan aipatu diren Nafarroako Artxibo Sistemako kideek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetik ondoko hauek jasotzeko eskubidea dute, hitzarmenen eta laguntza publikoen bidez, betiere aurrekontuetan horretarako diru aski baldin bada:

a) Foru lege honetan ezarritako helburuak lortzeko aholku teknikoak.

b) Funtsak kontserbatzeko eta dokumentuak zaharberritzeko laguntza.

c) Artxiboetako langileak prestatzeko eta haien lanbide kualifikazioa hobetzeko programetan parte hartzeko laguntza.

d) Instalazio materialak hobetzeko dirulaguntzak eta aholku teknikoak.

e) Dokumentazioaren tratamendurako dirulaguntzak eta aholku teknikoak fase guztietan.

f) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak dokumentuak kudeatzeko eta artxiboen tratamendurako erabiltzen dituen teknologia berriei buruzko informazioa eta, orobat, baldintza tekniko egokiak dituzten programak ezartzeko dirulaguntzak eta aholku teknikoak.

2. Nafarroako Artxibo Sistemako partaideek elkarren arteko lankidetzaren sustatzeko akordio eta bestelakoak sinatzen ahalko dituzte, foru lege honetan adierazitako helburuak betetze aldera.

##### 12. artikulua. Baldintza teknikoak.

Nafarroako Artxibo Sistemako kideek baldintza tekniko hauek bete beharko dituzte:

a) Haien funtsentzat egokien den dokumentuaren kudeaketa sistema aplikatzea, foru lege hone-



tan eta berau garatzeko onesten diren arauetan ezartzen denari jarraikiz.

b) Behar diren langileak izatea, hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera.

c) Dokumentuak kontserbatzeko eta behar bezalako tratamendu artxibistikoa egiteko instalazio egokienak izatea.

d) Jendearentzat irekitzeko toki eta ordutegi bat izatea, dokumentazioa herritarren eskura jarriko dela bermatzeko.

e) Dokumentazioa aurkitzen laguntzeko deskripzio bideak prestatzea.

### **13. artikulua.** Langile arloko baldintzak.

1. Nafarroako Artxibo Sistemaren sartutako artiboek artiboaren zerbitzu beharrei aurre egiteko eta foru lege honetan adierazitako helburuak lortzeko adina langile tekniko espezialista izan behar dituzte.

2. Artiboaren zerbitzuko teknikariek behar duten titulazioa, prestakuntza eta lanbide profila behar denean ezarriko dira.

3. Beste artibo batzuekin lankidetzak hitzarmenak sinatzen dituzten Administrazio Publikoek langile tekniko espezialistak kontratatuzko eskatuko diete, artibo haiek sistemaren egon ala ez egon.

4. Nafarroako Artxibo Sistemako artiboak atxikitako pertsonen sarbide mugatua duten dokumentuetako datuak isilpean gorde behar dituzte.

### **14. artikulua.** Laguntza eman beharra.

Nafarroako Artxibo Sistemako kideek Nafarroako Artiboaren Errolda eta Mapa prestatzeko behar den informazioa eman beharra dute, eta artiboetan gertatzen diren aldaketak guztiak jakinarazi behar dituzte, errolda eta mapa eguneraturik izan daitezzen.

## **IV. KAPITULUA**

### **Antolamendu eta tratamendu artxibistikoa**

**15. artikulua.** Dokumentuen bizi-zikloa eta horren faseak.

1. Nafarroako Artxibo Sistemako kide diren erakundeek erabiltzen dituzten dokumentuen kudeaketa sistemak entitate titularraren antolaketari egokitutako egitura izan behar dute. Dokumentuen kudeaketa eta tratamendu artxibistikoa dokumentuen bizi-ziklo osoan egiten da, sorreratik bertatik.

2. Dokumentuaren adina fase hauen arabera izaten da:

a) Fase aktiboa: dokumentua tramitazio-bidean dagoenean edo sortu zuen bulegoak ohiz erabiltzen duenean. Kudeaketa artxiboarekin edo bulegoko artxiboarekin bat dator.

b) Fase sasiaktiboa: ohiko tramitazioa bukatuta, dokumentazioak administrazio indarra izaten segitu arren, sortu zuen unitateak ohiz erabiltzen ez duenean. Bitarteko artxiboarekin bat dator.

c) Fase ez-aktiboa: funtsezko administrazio balioa galduta, dokumentazioa modu iraunkorrean gorde behar denean, dokumentazioa informaziorako edo ikerketarako erabilgarria delako. Artxibo historikoarekin bat dator.

3. Dokumentuak kontserbatzeko arauetan dokumentu sail bakoitzerako faseak arautuko dira. Fase horiek kasuko kontserbazio egutegian jasoko dira.

4. Fase edo etapa bakoitzari tratamendu artxibistikoa jakin bat dagokio.

5. Artxibo batetik bestera dokumentuak eramateko orduan, Artxibo Sistemako kide bakoitzak ezartzen dituen kontserbazio arauak bete behar dira.

### **16. artikulua.** Bulegoko artxiboa.

Bulegoko artiboetan entitateak duen unitate bakoitzak bere jardun espezifikoan sortu eta biltzen duen dokumentazioa gordetzen da. Hona hemen haien eginkizunak:

a) Kudeaketa administratiboari laguntzea.

b) Dokumentuak sortu dituen entitatearen jarduketara eta jarduerak justifikatzea.

c) Herritarren eta Administrazioaren eskubide eta eginbeharrak bermatzea, jarduketaren gardentasuna eta legezotasuna frogatuz.

d) Administrazio prozesu eta prozedurak sinplifikatu eta arrazionalizatzeko behar diren neurriak ezartzeko bidea erraztea.

e) Dokumentazioa behar bezala sailkatua eta antolatua izatea.

f) Dokumentuak bakoitzak duen balioaren arabera kontserbatzeko direla bermatzen duten neurriak aplikatzea.

g) Datuen babesa bermatzea.

h) Babes unitatean egon behar duen denbora bukatu, dokumentazioa bitarteko artxibora eramateko, ezartzen den moduan eta epeetan.

i) Bitarteko artxibora eramanez aurretik, informaziorako dokumentazio lagungarria zena suntsitzea.

**17. artikulua.** Bitarteko artxiboa.

Bitarteko artxiboak entitatearen unitate guztiek sortu eta bildutako dokumentazioa modu zentralizatuan gordetzeko ardura duten zentroak dira, dokumentuen fase aktiboa iraungi ondoren. Hona hemen haien eginkizunak:

- a) Unitate dokumentu-sortzaileei norberaren dokumentazioa eskuratzeko aukera ematea.
- b) Jendeak dokumentuak eskuratzeko eskubi-dea bermatzea, indarreko legediaren arabera.
- c) Datuen babesa bermatzea.
- d) Sailak identifikatu eta baloratzea.
- e) Funtsezko dokumentuak identifikatzea eta haien babesa bermatzea.
- f) Dokumentazioa artxibo historikora bidaltzea ezartzen den moduan eta epeetan.
- g) Dokumentuen ebaluaziorako proposamenak egitea.
- h) Dokumentuak suntsitzeko ebazpenak aplikatzea, benetan suntsitzen direla bermatuz.
- i) Dokumentuen eskuragarritasuna eta kontserbazioa denbora guztian bermatzen duten ekipoak, materialak eta teknologia ezartzea.

**18. artikulua.** Artxibo historikoa.

Artxibo historikoetan, sasiaktibotasun fasea iraungi ondoren, duten informazioagatik edo ikerkuntzarako duten balioagatik modu iraunkorren kontserbatzeko modukotzat jotzen diren dokumentuak jaso, kontserbatu eta zabaltzen dira. Hona hemen haien eginkizunak:

- a) Dokumentuak jendearen eskura jartzea.
- b) Dokumentuak behar bezala antolatu eta deskribatzen direla bermatzea.
- c) Dokumentuen behar bezalako kontserbazioa eta, behar bada, zaharberritzea bermatzea.
- d) Dokumentazioa kultur kudeaketarako eta zabalkunderako tratatzea.
- e) Nafarroako Dokumentu Ondarearen kontserbazioa sustatzea.
- f) Nafarroako Dokumentu Ondarearen dokumentazioa gordailupean jasotzea.
- g) Dokumentu Ondarea zabaltzeko programak sustatzea.

**19. artikulua.** Dokumentuen ebaluazioa eta kontserbazio egutegiak.

1. Kontserbazio egutegiak dokumentuen ebaluaziorako prozesuaren emaitza dira. Bertan dokumentu sail bakoitzerako faseak ezartzen dira (aktiboa, sasiaktiboa, ez-aktiboa) eta artxibo mota bakoitzean iraun beharreko denbora finkatzen. Prozesu horretatik, lan hauek etorriko dira:

- a) Hautapena, hots, zein dokumentu konserbatuko diren eta zein dokumentu ezabatuko erabakitzea.
- b) Ezabaketa, hots, balio administratibo edo historikorik ez duten dokumentuak suntsitzea.

2. Debekatuta dago Dokumentuen Ondare diren ondasunak ezabatu edo suntsitzea, salbu eta, ebaluazio batzordeak proposaturik, behar den ebazpena ematen bada.

3. Artxiboetako arduradunek dokumentuen ebaluaziorako proposamenak eginen dizkiote nork bere ebaluazio batzordeari. Erabakiak irmo bilakatu ondoren, kontserbazio egutegia prestatuko da. Artxibo arloan eskumena duen departamentuari horren berri emanen zaio.

4. Ebaluazio batzorderik ez dagoen tokietan, dokumentu funtsen titularrek prestatzen dituzten ebaluazioak Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordeari igorri beharko dizkiote, erregelamenduz ezartzen den prozedurari jarraikiz, hark txostena egin dezan.

**20. artikulua.** Dokumentazioa jendearen eskura jartzea.

1. Pertsona guztiek dute artxiboetako informazioa eskuratu eta Nafarroako Dokumentu Ondarea osatzen duten agiriak kontsultatzeko eskubidea, kasuan-kasuan aplikagarri den legediaren arabera, zeinahi delarik dokumentuaren titularra.

2. Murrizketak ezarriko dira, bakar-bakarrik, pertsonen oinarritzko eskubideak babestea lehen-tasunezkoa denean eta, orobat, hori agintzen duen berriazko arauen bidez araututako kasuetan.

3. Administrazio Publikoen kasuan, dokumentuak eskuratzeko epeak kasuan kasuko dokumentuen ebaluaziorako batzordeak proposaturik finkatuko dira.

4. Epe horiek finkatu bitartean, dokumentuak eskuratzeko erreserbaren gehieneko epea, oro har, berrogeita hamar urtekoa izanen da, dokumentuaren datatik kontatzen hasita, edo pertsona noiz hil zen jakinez gero, heriotzaren egunetik hogeita bost urtera, salbu eta goragoko mailako

legedian bildutako funtsezko eskubideak bermatu behar direnean, foru lege honetan edo beste arau berariazko batean agintzen denak eskubide horiek urratzen dituelakoan.

#### **IV. TITULUA** **Erakundeen artxibo sistemak**

##### **I. KAPITULUA** **Nafarroako Foru Komunitateko** **Administrazioaren artxibo sistema**

###### **21. artikulua.** Definizioa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Artxibo Sistema artxibo arloko organo, zentro, zerbitzu eta bestelako baliabideez osatutako multzo koordinatua da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bere jardunean sortu edo biltzen dituen dokumentu funtsen kudeaketa egokirako, babeserako, baloraziorako, kontserbaziorako, bilketarako, deskribapenerako eta zabalkunderako arau eta prozedura komunak erabiliz tratamenduen uniformitatea, elkar-osagarritasuna eta eragin-kortasuna bermatzen dituena.

###### **22. artikulua.** Egitura.

Hauek dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Artxibo Sistemaren partaide:

- a) Sistemaren Zuzendaritza.
- b) Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordea.
- c) Bulegoko artxiboak.
- d) Artxibo zentralak.
- e) Administrazioaren Artxiboa.
- f) Nafarroako Errege Artxibo Nagusia.
- g) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko erakunde publikoetako eta haren menpeko beste entitate batzuetako artxiboak.
- h) Foru lege hau aplikatzearen ondorioz sortzen diren edo sisteman sartzen diren artxibo arloko organo, zentro, zerbitzu eta baliabideak.

**23. artikulua.** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Artxibo Sistemaren Zuzendaritza.

Artxiboen arloan eskumena duen departamentua izanen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Artxibo Sistemaren zuzendaria, eta eginkizun hauek izanen ditu:

a) Nafarroako Gobernuaren dokumentuen kudeaketa sistema mugatzea, haren ezarpena koordinatzea eta funtzionamendua gainbegiratzea.

b) Dokumentuak antolatzeko teknikak eta haien tratamendua, eskuragarritasuna eta kontserbazioa arautzen dituen araudia prestatzea, dokumentuen bizi-zikloaren fase guztietarako.

c) Dokumentuen bizi-ziklo osoan gainbegiratzela-egitea eta artxibo arloko teknikak ezartzeari buruz aholku ematea.

d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren dokumentu ondarea osatzen duten dokumentuak kontserbatu eta zaharberritzeko programa eta jarduerak gauzatzea.

e) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren dokumentu ondarea zabaltzea.

f) Artxibo arloko teknikan lanbide prestakuntza emateko programak sustatu eta gauzatzea.

###### **24. artikulua.** Bulegoko artxiboak.

Administrazio unitateetan bulegoko artxiboak izanen dira. Eginkizun hauek izanen dituzte:

- a) Beren kudeaketa eremuko unitatearen administrazio lanetan laguntzea, Administrazioaren gainerako unitateekin koordinaturik.
- b) Herritarren eta Administrazioaren eskubide eta betebeharrak bermatzen laguntzea.
- c) Dokumentazioa sailkatu eta ongi antolaturik izatea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Artxibo Sistemaren Zuzendaritzak ematen dituen arauari jarraikiz.
- d) Informaziorako dokumentazio lagungarria zena ezabatzea, dokumentazioa artxibo zentralera edo Administrazioaren artxibora igorri aurretik, indarreko arauekin bat.
- e) Kontserbazio egutegian finkatzen diren epeak betetzea eta dokumentazioa Artxibo Zentralera edo, hala badagokio, Administrazioaren Artxibora igortzea.

f) Dokumentuetako datu pertsonalen babesa bermatzeko neurriak aplikatzea.

###### **25. artikulua.** Artxibo zentralak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuek, erakunde publikoek eta haren menpeko beste entitate batzuek ondoko eginkizunak izanen dituen artxibo bat izanen dute:

- a) Administrazio unitate guztietatik datozen dokumentuak biltzea, kontserbazio arauetan ezartzen diren epeei jarraikiz.
- b) Dokumentuak kudeatzeko arauak aplikatzeari buruzko aholkuak ematea bulegoari, batez ere dokumentuak antolatu eta deskribatzeari dagokionez.

c) Administrazio unitateetako langileei dokumentuen oinarritzko kudeaketa teknikei buruzko prestakuntza ematea, Sistemaren Zuzendaritzarekin koordinaturik.

d) Unitate sortzaileen dokumentuak herritarren eta administrazio prozeduretako interesatuen eskura jartzea, kasuan-kasuan aplikatu behar den araudiarekin bat.

e) Dokumentazioa ongi antolaturik izatea eta, Administrazioaren Artxibora eraman arte, beharrezkoak diren teknikak aplikatzea.

f) Aldian behin, dokumentazioa Administrazioaren Artxibora eramatea, kontserbazio arauari jarraituz.

g) Administrazioaren Artxibora eraman aurretik, Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordearen proposamenari jarraituz hautatzen diren dokumentuak suntsitzea.

#### **26. artikulua.** Administrazioaren artxiboa.

Bitarteko artxiboa izanik, honako eginkizun hauek dagozkie:

a) Bulegoko artxiboetatik eta artxibo zentraletatik ohiko transferentzia bidez datorren dokumentazioa hartzea, haietan egoteko epea bukatu ondoren.

b) Dokumentuak sortu zituzten unitateei dokumentu horiek kontsultatzeko eta maileguan hartzeko aukera bermatzea.

c) Dokumentuak herritarren eta interesatuen eskura jartzea, kasuan-kasuan aplikatu behar den araudiarekin bat.

d) Dokumentazioaren tratamendu teknikoa egitea, egoki kudeatzeko, kontserbatzeko eta eskuratzeko.

e) Bulegoko artxiboetan eta artxibo zentraletan teknika artxibistikoaren aplikazioa koordinatzea.

f) Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordean aurkeztuko diren espedienteak prestatzea eta hartzen diren erabaki eta ebazpenak egoki betetzen direla begiratzeko.

g) Dokumentuen bizi-ziklo osoan kontserbazio arauak zuzen betetzen direla gainbegiratzeko.

h) Nafarroako Errege Artxibo Nagusira eraman aurretik, Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordearen proposamenari jarraituz hautatzen diren dokumentuak suntsitzea.

**27. artikulua.** Nafarroako Errege Artxibo Nagusia.

Nafarroako Erreinuako erakundearen artxiboa da eta, orobat, Gobernuaren artxibo historikoa. Hori dela eta, honako eginkizun hauek ditu:

a) Nafarroako Erreinuako erakundearen funtsak gorde, kontserbatu eta zabaltzea.

b) Kontserbatzen dituen dokumentuak jendearen eskura jartzea.

c) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bere jardunean sortu edo biltzen duen dokumentazioa jasotzea ohiko transferentzia bidez, hots, ebaluatu eta administrazioan indarra galdu duela egiaztatu ondoren, kultur balioa edo ikerkuntzarako balioa izateagatik bereizten dena.

d) Titularrek haren esku uzten dituzten beste funts batzuk gordetzea, hitzarmen bidez ezartzen diren baldintzetan.

e) Gordetzen dituen dokumentu funtsei tratamendu teknikoa egitea.

f) Dokumentuen behar bezalako kontserbazioa eta, behar bada, zaharberritzea bermatzea.

g) Nafarroako Dokumentu Ondarea zabaltzeko programak sustatzea.

h) Dokumentuen kudeaketaren inguruan, agintzen zaizkion bestelako eginkizunak.

## **II. KAPITULUA**

### **Toki entitateen artxibo sistemak**

**28. artikulua.** Nafarroako Artxibo Sistemari lotzea.

1. Nafarroako toki entitateak Nafarroako Artxibo Sistemaren barruan daude eta, horrenbestez, beren jardunean sortu edo jasotzen dituzten dokumentuak ekoitzi, kudeatu, antolatu, kontserbatu eta zabaltzeko tratamendu egokia bermatzeko ezartzen diren arau eta prozedurak aplikatu behar dituzte.

2. Beharkizun horrek toki entitateak eta haien menpe dauden erakunde autonomo eta enpresa publikoak hartzen ditu eta, orobat, nagusiki toki entitateen partaidetza duten partzuergo, fundazio eta bestelako entitateak.

**29. artikulua.** 15.000 biztanletik gorako udalak.

1. 15.000 biztanletik gorako udal bakoitzak bere artxibo sistema izan beharko du, bertako udal artxiboak zuzendua, tokian tokiko antolaketa arauetan xedatzen denaren arabera.

2. Hona hemen udal artxiboaren eginkizunak:

a) Euskarri guztietako dokumentuei aplikatzen zaizkien prozedura eta eragiketa teknikoak gainbegiratzea, hura sortzen denetik ezabatu edo kontserbatu arte.

b) Bere sistemarentzako arauak ezartzea, dokumentazioa egoki ekoitzei, antolatu, sailkatu eta tratatzeko.

c) Teknika artxibistikoaren gaineko lanbide preskuntzarako programak sustatzea.

d) Kontserbaziorako irizpide, epe eta arauak ezartzea.

e) Dokumentuen transferentziak eta ezabaketak kudeatzea.

f) Dokumentuetara jo eta kontsultatzeko aukera dagoela bermatzea.

g) Udalaren dokumentu ondarea baldintza egokietan gordetzea, ongi kontserbatzeko.

h) Udalaren dokumentu ondarea handitu eta berreskuratzeko ahaleginak egitea, legatu eta dohaintzak onartzuz eta erosketak eginez.

i) Udalaren dokumentu ondarearen zabalkunde lana egitea.

j) Bere lurralde eremuan legez iraungitzen diren kontzejuen dokumentazioa beretzat hartzea.

3. Udal artxiboek artxiboaren zerbitzu beharrei aurre egiteko eta foru lege honetan adierazitako helburuak lortzeko adina langile tekniko espezialista izanen dituzte.

4. Zerbitzuaren zuzendaritza administratibo eta teknikoa udal artxibozainari dagokio. Artxibozainak goi mailako unibertsitate titulua eduki beharko du.

5. Udalek udal artxibo batzuen zuzendaritza administratibo eta teknikoa kudeatzeko mankomunitateak eratzen ahalko dituzte.

6. Udal artxiboak dokumentazioa egoki tratatzeko eta zerbitzua ongi emateko behar diren instalazio eta baliabide teknikoak izan beharko ditu.

7. Foru Komunitateko Administrazioak beharrezkoak diren lankidetzak hitzarmen eta baliabideak erabiliko ditu artikuluko honetan ezarritakoa bete dadin.

**30. artikulua.** Beste toki entitate batzuk.

1. 15.000 biztanletik beherako toki entitateek artxibo bana izanen dute. Hari dagokio artxiboaren arloan eskumena duen departamentuak finkatzen dituen arau eta prozedura tekniko orokorrak aplikatzen direla begiratzea. Hori helburu, Nafarroako

Foru Komunitateko Administrazioak laguntza edo aholku teknikoa emateko berariazko programak sortuko ditu, haien dokumentuak antolatu, kontserbatu, gorde eta jendeak eskuratzeko.

2. Toki entitate horiek artxibo zerbitzuak konpartitu edo mankomunatu ahalko dituzte, proportzionaltasun, lankidetzak eta lurraldetasun irizpideei jarraikiz. Horrelakoetan, zerbitzua goi mailako titulua duen artxibozain baten gainbegiratzearen eta zuzendaritza teknikoaren pean egonen da, foru lege honetan ezarri bezala.

3. Toki entitateek dokumentazioaren tratamendua eta kontserbazioa bermatzeko instalazio eta baldintza tekniko egokiak izanen dituzte, baita haien eskuragarritasuna bermatzeko ere.

4. Toki entitate horien dokumentu ondarearen kontserbazio onerako arriskua izanez gero, artxiboaren arloan eskumena duen departamentuak ahalmena izan du dokumentazioa Nafarroako Errege Artxibo Nagusian gorde dezatela agintzeko, kontserbazioa bermatzeko baldintza egokiak izan arte.

### III. KAPITULUA

#### Beste erakunde eta entitate batzuen artxibo sistemak

**31. artikulua.** Nafarroako Parlamentua.

Nafarroako Parlamentuak eta haren menpeko organoek orain arte dituzten artxiboak eta dokumentuen kudeaketa sistemak eutsiko dizkiete, baina, irizpide teknikoak, baliabide materialei eta langileei dagokienez, foru lege honetan xedatutakoari jarraituko diote.

**32. artikulua.** Estatuko Administrazio Orokorra.

Nafarroako Foru Komunitatean dauden Estatuko Administrazio Orokorreko organoek beren artxibo sistemak eratuko dituzte eta, dokumentuen kudeaketari eta artxiboak dagokienez, Estatuko legedian kasuan kasuko esparrurako xedatutakoari jarraituko diote.

**33. artikulua.** Epaitegi eta auzitegiak.

Epaitegi eta auzitegiek beren artxibo sistemak eratuko dituzte eta, dokumentuen kudeaketari eta artxiboak dagokienez, beren legedia berariazkoan xedatutakoari jarraituko diote.

**34. artikulua.** Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak bere artxibo sistema eratuko du eta, dokumentuen kudeaketari eta artxiboak dagokienez, bere legedia berariazko-

an xedatutakoari jarraituko dio eta, horrelakorik ezean, foru lege honetan ezarritakoari.

**35. artikulua.** Fede Publikoaren artxiboak.

Notario-fede eta Erregistro-fede publikoaren jardunaren artxiboek beren legedia berariazkoan xedatutakoari jarraituko diote.

**36. artikulua.** Nafarroako Artxibo Sistemaren sartzea.

Kapitulu honetan adierazitako erakunde eta organoetako artxibo sistemak egokien den baliabide juridikoaren bitartez sartuko dira Nafarroako Artxibo Sistemaren barrenean, baina beren izaera eta funtzionamendua arautzen dituzten legezko arauak errespetatuz.

## V. TITULUA Zehapen araubidea

**37. artikulua.** Arau-haustea, zehapenak eta zehapen prozedura.

1. Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legean ezarritakoak deusetan galarazi gabe, foru lege honetan ezartzen diren eginbehar eta betebeharrak urratzen dituzten egintzak edo ez-egiteak arau-hauste administratibotzat hartuko dira.

2. Ondoko hauek arau-hauste oso larriak dira:

a) Nafarroako Dokumentu Ondarearen barreneko dokumentazioa legez kontra besterentzea.

b) Nafarroako Dokumentu Ondarearen barreneko dokumentuak kasuan kasuko dokumentuen ebaluaziorako batzordearen erabakia izan gabe suntsitzea.

c) Arau-hauste larri bat berregitea.

3. Ondoko hauek arau-hauste larriak dira:

a) Nafarroako Dokumentu Ondarearen ondasunen kontserbazioan utzikeria erakustea, ondarea suntsitu edo hondatzeko arriskua baldin badago.

b) Erakunde eta funtzionario publikoek arrazoirik gabe baimenik ez ematea norbaitek Nafarroako Dokumentu Ondareko dokumentuak eskuratzeko.

c) Entitate edo pertsona pribatuek titulartasun publikoko dokumentuak bidegabeki atxikitzea.

d) Nafarroako Artxiboaren Errolda prestatzen lagundu nahi ez izatea behin eta berriz.

e) Ikuskapen lanak galaraztea.

f) Arau-hauste arin bat berregitea.

4. Foru lege honetan ezarritako beste betebeharrak ez betetzea arau-hauste larria izan da, salbu eta behin baino gehiagotan egiteagatik bestela sailkatu behar baldin badira.

5. Zehapenak Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legean ezarritakoak izan da.

6. Zehapen prozedura Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legean ezarritakoa izan da.

**Azken xedapenetan lehena.** Nafarroako Gobernuari baimena ematea

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau aplikatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

## Foru Lege proiektua, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2007ko otsailaren 5ean hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### ERABAKIA:

1. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2007ko martxoaren 5eko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkeztu ahalgo dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2007ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Lege proiektua

#### ZIOEN AZALPENA

Azken urteotan Nafarroako sektore publikoak etengabeko hazkundera eta egitura-aldaketa izan du eta horrek aurrekontu arloko arauak errolik berrikusi beharra ezarri du. Izan ere, Nafarroako Ogasun Publikoaren foru legea argitaratu zenetik nafar guztientzat funtsezkoak diren eginkizun eta zerbitzuak eskualdatu zaizkio Foru Komunitateari, besteak beste, osasuna eta hezkuntza. Eginkizun eta zerbitzu horiek eskuratzeak eta lehendik Nafarroako Foru Komunitateak bereganatu eta ematen zituenak hedatzeak eragin du Foru Komunitatearen Administrazioaren menpeko erakunde eta enti-

tate berriak sortzea, horien bitartez bere eskumenak eraginkortasun handiagoa lortzeko eta, esan gabe doa, nafar herritarrei arreta hobea emateko asmoz.

Erakunde eta entitate horiek guztiak ikuspegi administratibo hertsitik antolatzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeak egin du, eta horrek erro-errotik aldatu du Nafarroako sektore publikoaren definizioa, subjektu aldetik figura berriak sorrazi eta lehendik zeuden beste batzuen kategorialdaketak eragin baititu. Nafarroako sektore publikoaren eraldaketa hori esparru administratiboan egin da, eta horrek ekarri du ogasun aldetik Nafarroako sektore publikoa antolatu beharra; izan ere, foru lege horretatik sortutako entitate berri horien araubide juridiko-finantzarioa zehaztu beharra dago, eta lehendik zirenena egokitu, gastu publikoaren errealitate berrietara.

Ogasun Publikoari buruzko aurreko legea aldarrikatu zenez geroztik izan da gertaera garrantziko bat, 1990ean Nafarroako Foru Komunitateak eta Estatuak sinatu zuten Hitzarmen Ekonomikoa, gero 1992an, 1997an eta 2003an aldaketak izan zituen. Estatuaren eta Foru Komunitatearen arteko harreman ekonomiko-finantzarioen esparruan izandako aldaketak Nafarroaren finantza-ahalmena nabarmen handitu du, gorago aipatutako eginkizun eta zerbitzu horiek bereganatzearekin batera. Finantza-ahalmena handitzeak antolamendu eta eskumen aldetik sortutako egoera berrirako egokiak diren aurrekontu mekanismoak ezartzera behartzen du, azken aldi honetan orain arte indarrean egon den Foru Ogasunaren Legeak egoera horri nola edo ala aurre egin dion arren.

Aurrekontu diziplinaren diseinu berri hori ezinbesteko oinarri sail batek zuzendu behar du, horrela bermatuko baita sarrera eta gastu publikoak oraingoa bezalako egonkortasun esparru batean modu egokian kudeatzea. Gardentasuna eta eraginkortasuna dira oinarri horietako bi. Gastu publikoak lortu nahi dituen helburuak argiago uzten ditu gardentasunak, eta horrez gain barne eta kanpo kontroleko organoek egin beharreko egiaztapen lanak errazten ditu. Eraginkortasunak, berriz, gastu publikoa zertan egin erabakitzean, araugintza-balio eztabaidaezinezko printzipio konstituzionala izateaz gain, beti zuzendu behar ditu gastu politikak, giza talde ororen garapen orekatua lortzeko. Helburu horiek lortzera zuzendurik dago bereziki foru lege hau, eta aurrekontu mekanismo magluak ezartzen ditu, inguruabar ekonomiko eta

sozialen aldaketarik gertatuz gero haietara egokitu ahal izateko, horrela ematen bitzaie erantzun berehalakoa nafar gizartearen beharrei.

Horretarako, foru lege honetako I. tituluko I. kapitulua, oro har, Nafarroako sektore publikoaren esparrua eta antolamendua ezartzeko da. Horrek ez dakar nahitaez foru lege honen xedapen guztiak bereizketarik gabe aplikatzekoak izanen direnik kapitulu horretan definitzen diren erakunde, entitate eta ogano guztietan; izan ere, aurrerago ikusiko denez, foru lege honek araubide orokor bat ezartzen du arautzen duen arlo bakoitzean, eta xedapen bereziei leku ematen die erakunde, entitate eta organo horietako bakoitzean atzemandako ñabarduretara egokitzeko. Arau-egitura hori ezinbestekoa da honelako foru lege baten kasuan, Nafarroako sektore publikoaren kontzeptuak subjektu aldetik elkarren artean oso desberdinak diren figurak biltzen baititu: hasi, esaterako, Nafarroako Parlamentua foru erakundetik, eta merkataritzako legeriaren esparruan dauden sozietateetarako, eta tartean aholkularitza-organoak, Nafarroako Kontseilua bezalako beste batzuk.

Bereziki deigarria da, titulu honen barnean, sozietate publikoen definizioa, foru lege honen ondorioetarako bakarrik egiten dena. Ez da ahaztu behar hemen eskaintzen den sozietate publikoaren kontzeptua legegilearen asmoetara egokitua dela: erabaki nahi du zein sozietatek egon behar duten Nafarroako sektore publikoaren aurrekontu araubidearen eta araubide ekonomiko-finantzarioaren menpe.

Berritzailea da, halaber, foru lege honek begi-esten dituen gaien iturrien sistema bereziaren arauketa. Horrek ahalbidetzen du araupeko objektu bakoitzerako erabilgarri diren arauak zehazteko interpretaziora jo beharrik ez izatea, eta horrekin kontu zehatz horretan sor litezkeen zalantzak argitzen dira.

II. kapituluak Nafarroako Ogasun Publikoaren eskubideen araubide juridikoa jasotzen du, aurreko legeria antolatu, sistematizatu eta osaturik. Arau xumeak emanez, kapitulu honetan Nafarroako Ogasun Publikoaren eskubide guztiak bildu nahi dira, betiere izaera publikokoak eta pribatukoak bereizita. Horretarako, kontuan hartzen da administrazio publikoen bereizgarria den imperium ahalmena gauzatzetik sortuak diren eskubide horiek edo Nafarroako sektore publikoa osatzen duten entitateek partikularrekin berdintasunean diharduten harremanetatik sortutakoak, desberdintasun funtsezkoak baitaude batzuen eta besteen artean araubide aldetik.

Kapitulu honekin zerikusia duten berrikuntzarik nabarmenen artea aipatzekoa da Nafarroako Ogasun publikoak ondasun publikoen gainean dituen eskubideen preskripzioarena, bost urtetik laura jaisten baita, horrela bateratzen baita, epeei dago-kenez, abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legean ezarritakoekin; beste berrikuntza bat Nafarroako Ogasun Publikoaren eskubide guztien araubide juridikoari buruzko arau funtsezkoen kodetzea da.

Nafarroako Ogasun Publikoaren betebeharren arauketari dagokionez, lehenago ezarritakoaren jarraitzaile izatea da haren ezaugarrietako bat. Berrikuntza nabarmenetako bat aipatzekotan, Nafarroako Ogasun Publikoaren ondasun eta eskubideen enbargaiezintasunaren esparrua murriztu dela esan behar da, eta zerbitzu publiko-arekin edo interes orokorarekin loturaren bat dute-netara mugaturik gelditu dela. Horrela Auzitegi Konstituzionalak uztailaren 15ean eman zuen 166/1998 Epaiarekin finkatutako doktrinari atxikitzen zaio. Gauza bera gertatzen da eskubide ekonomikoekin zerikusia duten preskripzio epeekin, Nafarroako Ogasun Publikoaren karguko betebeharrenak lau urtera mugatu dira.

II. Titulua Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa da. I. kapituluko lehen atalak gai orokor-arak arautzen ditu, hala nola zein dokumentuz osatua dagoen, haien edukia, kontzeptuen definizioa eta Nafarroako aurrekontuen arloko lege-arauen printzipio nagusiak. Hurrena, aurrekontu prozedura deskribatzen da, aurrekontuen aurreproiektua prestatzen denetik azkenean onartzen diren arte, eta aurrekontuen luzapenari buruzko zenbait arau ematen dira. Atal horretako berrikuntzarik adierazgarriena aurrekontuen luzapenetik sortzen diren ondorioen arauketa da. Bereziki aipagarria da Luzapen Funtsaren figura, bere barnean hartzen baititu luzapenerako oinarritzat hartzen den aurrekontuan xede batzuetarako izanik beren xedea osorik bete duten kredituak, eta gertaezinezkotzat jotzen da xede horiek berretzea luzatutako aurrekontuan.

Bigarren atalak aurrekontu kredituen funtzionamendurako arau orokorren definizioa ematen du, eta baita arau orokor horien salbuespenak ere, hots, aurrekontuko aldaketak. Foru lege honek aurrekontuko aldaketa mota bakoitzaren araubide juridikoa eta aldaketak egiteko eskumena ezartzeaz gain, lehenbizikoz, haien definizioa ematen du, asmo didaktiko nabariz. Atal honetako beste kontzeptu batzuen artean urte anitzeko gastuen konpromisoena dago, zeinaren esparrua oso zehazki mugaturik gelditu baita, eta haren araubidea berriro definiturik. Konpromiso horiei buruzko arauan, bestalde, kontratuei buruzko foru arauditik sortuta-



ko eskakizun bati erantzuten zaio: gastu espedienten aurretiazko tramitazioaren alderdi oinarrizkoen araupetzea.

Berrikuntza gutxi ditu kapitulu horren hirugarren atalak, aurrekontuen exekuzio eta likidazioari buruzkoak. Ohar bedi printzipio orokortzat ezartzen duela programa bakoitzaren arabera xedekak eduki beharrean oinarritzen den sistema, horrek ahalbidetuko baitu a posteriori aurrekontuaren kudeaketaren eraginkortasuna neurtzea. Jarraian deskribatzen dira, lehenago indarrean zegoen araudiari buruz aldaketa terminologiko xumeekin, gastu publikoak kudeatzeko faseak, eta baita gastuak kudeatzeko eta funtsak erabiltzeko eskumenen eratikipenak ere. Justifikatu beharreko funtsen aurrekontu mekanismoak ere jasota daude.

Titulu honen bukaeran agindu bat dago, Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek, Nafarroako Aurrekontu Orokorrek prestatzeko aurkeztu beharreko dokumentuei buruzkoa; izan ere, entitate horiek kudeaketa arrunta bera ere berezia dute, aurreko kapituluaren diseinaturiko aurrekontu araubide orokorrari dagokionez.

III. tituluan finantza-eragiketarako arauak daude, eta bertan jasotzen da zorpetzearen araubide juridikoa eta abalena. Zorpetzea izenarenean jasotzen dira titulu horretako I. kapituluaren bai mailegu nahiz kreditu eragiketak, bai Zor Publikoko baloreen jaulkipena, eta bukaeran finantza-instrumentuekiko beste eragiketa posible batzuk aipatzen dira. Kapitulu honetako aginduek zorpetze eragiketen araubide juridikoa finkatzen dute, hasi baimenetik eta jaulkipeneraino, eta aipamen xeheak egiten dira zor biziarekin gerora gerta litezkeen gorabeherei buruz. Aldi berean, mugatzen dira Foru Komunitatearen administrazio-organoko bakoitzak zer eskumen dituen zorpetze gaitetan. Kapitulu honetako aginduen artean nabarmentzekoa da preskripzioari buruzkoa, ontzat ematen baita zorpetze eragiketarako lau urteko epea, oro har Nafarroako Ogasun Publikoaren arlo ekonomikoko eskubide eta betebeharrentzako ezarria.

II. kapituluak garbi jasotzen du Nafarroako Foru Komunitateak eman ditzakeen abalen araubide juridikoa, eta bertan zehazten dira prozeduraren fase bakoitzean Administrazioaren zein organoko esku hartu behar duten formalizazio-arteak.

Berrikuntza gisa, III. kapituluak bi xedapen ditu enpresa-entitate publikoen, fundazio publikoen eta sozietate publikoen zorpetzearen eta abalen araubideari buruzkoak, eta hor entitate horiek guztiak

Nafarroako Gobernuaren baimenaren menpe gelditzen dira gisa horretako eragiketak egiteko.

Jarraian, IV. tituluak Nafarroako Foru Komunitatearen diruzaintzarako arauak ematen ditu, termino hori alde objektibotik eta alde subjektibotik harturik: alegia, finantza-baliabideen multzotzat Nafarroako Foru Komunitatearen kutxa-eragiketen organo zentralizatzailetzat. I. kapituluak osatzen dituen aginduak Europar zuzenbidearen eskakizunetara egokitu dira, eta ondorioz Foru Komunitateari askatasun handia uzten zaio edozein finantza-entitatearekin eragiketak egiteko, bai Espainiakoekin bai atzerrikoekin, nahiz et kudeaketaren erosotasunak ezarritako muga jakinen bat jarri den. Kobrantza eta ordainketa bideak ahalik eta modurik zabalenean arautu dira, gaurko munduaren finantza-eskakizunei egokiturik.

Hemen ere berritzailea da enpresa-entitate publikoen eta sozietate publikoen diruzaintzari buruzko kapitulu bat sartu izana, zeinak Nafarroako Gobernuak noizbait eman litzakeen zuzentzararen menpe geldituko baitira, horrela lortuko baita Nafarroako sektore publikoaren zati handi baten funtsen kudeaketa hobea.

V. tituluaren gaia garrantzi handikoa da, kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola, hain zuzen ere. Gauza jakina da kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren kontrola Administrazio barneko organoek nahiz kanpokoek egin dezaketela. Foru lege honek lehen multzo horri buruz dihardu. Barne-kontrolak aukera ematen dio Administrazioari bere esparru ekonomiko-finantzarioko jarduketara nola atxikitzen zaion indarrean den legeriari eta ekonomia, eraginkortasun eta eragimenaren kanoinei.

Hiru arlo bereizten dira barne kontrolean: kontu-hartzea, etengabeko finantza-kontrola eta auditoretza publikoa. Barne kontrolaren arlo bakoitzari kapitulu bat eman zaio V. tituluan, eta bakoitzean hasieran bada bat eginkizunaren xedea finkatu eta arautzeko agindu orokorrak, subjektu arduradunak eta kontrolpean eduki daitezkeen esparru subjektiboa jasotzen dituena.

II. kapituluak xehetasun handiz arautzen du kontu-hartzea, eta arlo horretako ohiko eskema arau-emaile eta funtzionalei atxikitzen zaie. Hala, jasota dago zenbait administrazio egintzarako beharrezkoa izan litekeela aurretiazko kontu-hartzea, are Administrazioari inolako betebeharririk sortu aurretik. Aurretiazko kontu-hartzearekin batera esku-hartze formal eta materialaren modalitateak jasotzen dira; lehenbizikoa erabaki bat hartzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzearen egiaztapenez ari da, eta bigarrena, berriz, funts publiko-

en erabilera benetako eta eraginkorraren egiazta-penaz. Kontu-hartze eginkizunetan ari denak bere erreparoa jar ditzake, eta kudeaketa-organoak haiei buruzko desadostasuna adierazi. Gatazka horiek konpontzeko mekanismoak ere jasota daude. Azkenik, kontu-hartzearen garrantzia garbia denez, izapide hori saihestu den kasuetarako zehapena jasotzen da, eta konponbiderik baldin badago, hartarako bideak ezartzen dira.

Etengabeko finantza-kontrolak beste esparru bat du, III. kapituluaren arautua. Horren ondorioz, txostenak emanen dira, eta bertan Kontu-hartzailetzak gomendioak egin ahal izanen ditu, eta zuzenketa-neurriak proposatu, zeinetaz kudeaketa-organoek zilegi duten beren desadostasuna adieraztea, eta betiere, kontu-hartzearen kasuan bezala, konponbideen prozedura-mekanismoak ezartzen dira.

Azkenik, IV. kapituluak auditoretza publikoa arautzen du, Nafarroako sektore publikoaren jardura ekonomiko-finantzarioa a posteriori kontrolatzeko xedea baitu. Bide ematen du honako hauek: kontabilitate erregularitasunaren auditoretza, betetzearena, eragiketena eta dirulaguntzena, eta azken horretan sar daitezke Nafarroako sektore publikoaren barnean ez dauden subjektuak, funts publikoak eskuratzen dituzten guztietaraino iristen baita.

VI. tituluak Nafarroako sektore publikoaren esparruko kontabilitatearen arauak ematen ditu. Kontu Orokorra onesteko, beharrezkoa da foru lege bat, berezitasun hori baitu Nafarroak. Kontu Orokor horiek behar bezala taxutzeko, beharrezkoa da Nafarroako sektore publikoaren kontabilitate informazio guztia biltzea, behar bezala banandurik. Titulu honen helburua eska daitekeen informazioa zein den zehaztea da. Hortaz, arau eta printzipio orokor sail bat ematen dira lehenbizi, betiere arlo bereko europar araudia ahaztu gabe, eta II. kapituluaren Nafarroako sektore publikoko entitate eta organoen kontuen edukia zehazten da, gero bateratzeko.

Azkenik, funts publikoen erabileraren gai delikatuak agertzen da, zeinak eskatzen baitu araubide bat ezartzea, non zehazturik egon behar baitute zein erantzukizun izan dezaketen iruzurrez edo erru larriz foru lege honetan ezarritako arauak hausten dituztenek, alde batera utzirik, jakina, erantzukizun penalak, horiek dagozkien foroetan eskatu ahal izanen baitzaizkie. Horretarako dago foru lege honen VII. tituluak. Bertan definitzen da, beraz, Nafarroako Ogasun Publikoari sektore zehatz honetan funts publikoak erabiltzean kalte egiten diotenen ondare erantzukizuna, eta hura

eskatzeko prozedura eta eraginkor egiteko modua ezartzen dira.

Azkenik, foru lege honek xedapen gehigarri bat du, ogasun arloetan beren arauak ezartzeko autonomia duten erakundeei buruzkoa, hiru xedapen iragankor foru lege honek indarra hartu aurretik sortutako eta hala ere ondorio juridikoak izan ditzaketen egoerak araupetzera zuzenduak, eta lau azken xedapen, foru legearen erregelamendu mailako garapenaz, lege testuan kontsignaturik ageri diren zenbatekoen eguneratzeaz, bere edukia aurrerako arauen indargabeteaz, eta, azkenik indar hartzeaz dihardutenak.

## **I. TITULUA**

### **Aplikazio esparruaz eta Nafarroako Ogasun Publikoaz**

#### **I. KAPITULUA**

##### **Nafarroako sektore publikoaren aplikazio esparrua eta antolamendua**

###### **1. artikulua.** Foru legearen xedea.

Foru lege honen xedea da Nafarroako sektore publikoaren aurrekontu araubidea eta araubide ekonomiko-finantzarioa araupetzea.

###### **2. artikulua.** Nafarroako sektore publikoa .

Foru lege honen ondorioetarako, honako hauek osatzen dute dira Nafarroako sektore publikoa :

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan.

b) Nafarroako Parlamentua eta haren menpeko organoak.

c) Nafarroako Kontseilua eta Nafarroako Ikusentzunezkoen Kontseilua.

d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eraxkitako erakunde autonomoak.

e) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren enpresa-entitate publikoak.

f) Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikoak. Foru lege honen ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikotzat jotzen dira Foru Komunitateko Administrazioak sortu eta haren erakunde publikoen zuzeneko edo zeharkako partaidetza duten merkataritza sozietateak, partaidetza horrek sozietatearen kapitalaren gehiengo absolutua osatzen badu. Halako bihur daitezke, halaber, sortu eta gero partaidetza-baldintza horiek bereganatu ondoren, Nafarroako Gobernuak espresuki publikotzat deklaritzen dituenak.

g) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-oko eta haren erakunde publikoetako fundazio publikoak. Ondorio horietarako, halako bihur daitezke, 2004/15 Foru Legeko 125. artikuluan zehaztuz gain, aurreko arauan ezarritako baldintza ez betetzeagatik sorreran pribatuak izanik, sortu eta gero partaidetza-baldintza horiek bereganatzen dituztenak, eta horrekin batera haren gobernu organoetan Administrazioaren ordezkartzak gehiengo osatzeko baldintza betetzen dutenak.

h) Beste entitate publiko sortu berri batzuk, sorrera-xedapenak espresuki hala xedatzen badu.

### **3. artikulua.** Iturrien sistema.

1. Nafarroako sekore publikoaren aurrekontu araubidea eta araubide ekonomiko-finantzarioa foru lege honetan ematen da, betiere beste arau berezi batzuetan eta europar araudian jasotako berezitasunak galarazi gabe.

2. Zehazki, honako hauek izanen ditu bere arau berezien menpean:

a) Nafarroako Foru Komunitateko tributu sistema.

b) Nafarroako Ondarearen araubide juridiko orokorra.

c) Finantza-betebeharrak bereganatzeko eta gastuak egiteko araubidea, beren berezitasuna dela-eta foru lege honetan arautuak ez dauden gaietan.

3. Zuzenbide Administratiboko gainerako arauak ordezkotzat hartuko dira, eta, halakorik ez bada, Zuzenbide Erkidekoak, eta betiere lehentasuna izanen dute Nafarroako foru zuzenbide zibilekoek araubide arrunteko lurraldean indarra dutenen aldean.

### **4. artikulua.** Legez arautu beharreko gaiak.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko honako hauek arautuko dira foru legez:

a) Nafarroako Aurrekontu Orokorrak, eta haietan egindako aldaketak, kreditu bereziak edo kreditu gehikuntzak emateari buruzkoak badira.

b) Tributuak edo errekarquak ezarri, aldatu edo kentzea, eta baita haietan eragina izan dezaketen salbuespen eta hobariena, betiere Foru Komunitatearen eskumenen esparruan.

c) Zorpetzeko edo abalak eratzeko eragiketetarako mugak.

d) Nafarroako Foru Komunitateko ondarearen eta kontratazioaren araubidea.

e) Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko gainerako gaiak, baldin eta, legeen arabera, maila horretako araua eskatzen badute.

**5. artikulua.** Nafarroako Gobernuaren eskumenak Ogasun Publikoaren arloan.

Foru Lege honen xede diren gaietan, Nafarroako Gobernuari dagokio:

a) Erregelamenduak emateko ahalmenaz baliatzea.

b) Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru legearen proiektua onestea eta Parlamentuari onetsi dezan aurkeztea.

c) Aurrekontuko sarreren gehitzea edo gutxitzea dakarten zuzenketa edo foru lege proposamenak tramitera onartzeari baiezkoa edo ezezkoa ematea, hori guztia Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan ezarrita dagoenaren arabera.

d) Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru legearen proiektua onestea eta Parlamentuari onetsi dezan aurkeztea.

e) Nafarroako Foru Komunitatearen politika ekonomiko eta finantzarioaren ildoak finkatzea.

f) Legeriak eratzikitzen dizkion gainerako egin-kizun eta eskumenak gauzatzea.

**6. artikulua.** Beste administrazio publikoekin elkarlanean aritzeko hitzarmenak.

Obrak eta zerbitzuak emateko beste administrazio publikoekin egindako hitzarmenetan, bai Nafarroako Foru Komunitatekoen eskumenekoak, bai beste administrazio horien eskumenekoak badira, klausula zehatzak ezarriko dira foru lege hau aplikatzen dela ziurtatzeko, baldin eta Nafarroako Ogasun Publikoak bere baliabideak jartzekoak baditu haiek egiteko.

## **II. KAPITULUA**

### **Nafarroako Ogasun Publikoaren araubidea**

#### **1. atala**

### **Nafarroako Ogasun Publikoaren kontzeptua**

**7. artikulua.** Nafarroako Ogasun Publikoaren kontzeptua.

Nafarroako Foru Komunitateak edo haren erakunde autonomoek titular gisa dituzten eduki ekonomikoko eskubide eta betebeharrak osatzen dute Nafarroako Ogasun Publikoa.

## 2. atala

### Nafarroako Ogasun Publikoaren eskubideak

**8. artikulua.** Nafarroako Ogasun Publikoa osatzen duten eskubideak.

1. Nafarroako Ogasun Publikoaren eskubideak bi sail hauetan banatzen dira: izaera publikoko eskubideak eta izaera pribatuko eskubideak.

Honakoak dira izaera publikoko eskubideak: tributuak eta eduki ekonomikoko gainerako eskubideak, zeinen titular baitira Nafarroako Foru Komunitatea edo haren erakunde autonomoak, baldin eta zuzenbide publikoen araupeko harremanetatik sortuak badira.

Honakoak dira izaera pribatuko eskubideak: Nafarroako Foru Komunitatearenak edo haren erakunde autonomoenak izanik, aurreko lerroaldean ez daudenak eta, betiere, bere ondare-ondasunen etekin edo emaitza diren gainerako guztiak, jaraunspenez, legatuz edo dohaintzaz eskuratutakoak eta zuzenbide pribatuko araupeko harremanen bitartez lortutako beste edozein.

2. Nafarroako Foru Ogasunaren baliabideek bere betebeharrak betetzeko xedea dute, salbu eta legez xede batzuei eratzikitzen bazaizkie.

**9. artikulua.** Nafarroako Ogasun Publikoaren eskubideen mugak.

1. Nafarroako Ogasun Publikoaren eskubide ekonomikokoak ezin izanen dira besterendu, ez kargapean ezarri, ez eta errentan eman, legeek araututako kasuetan izan ezik. Eskubide horien ordainketarako ez da izanen ez salbuespenik, ez barkamenik, ez beherapenik, ez moratoriarik, legeek ezarritako kasuetan eta terminoetan izan ezik, foru lege honen 16. artikuluan ezarritakoa ezertan galarazi gabe.

2. Ez da zilegi amore ematea ez auzitegian ez auzitegitik kanpo Nafarroako Ogasun Publikoaren eskubideei dagokienez, ez eta arbitrajearen menpe jartzea haiei buruzko gatazkak ere, ez bada Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik, hartutako Erabakiz.

3. Nafarroako Ogasun Publikoak bere araudi berariazkoetan ezarritako konkurtso-prozesuetako akordio eta hitzarmenak sinatzeko aski du Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren baimena.

4. Nafarroako Foru Ogasunaren kredituen izaera pribilegiatuak abstentzio eskubidea ematen dio konkurtso prozesuetan, nahiz eta, haiek dirauten bitartean konkurtso legerian ezarritako akordio edo hitzarmenak sinatu ahal izanen dituen, eta baita hitzartu ere, zordunaren eta bidezkotzat jotzen diren bermeekin, ordainketarako baldintza

bereziki. Baldintza horiek ezin izanen dira zordunarentzako hobeak izan prozesu judizialaren bukarerako akordio edo hitzarmenean jasotakoak baino. Halaber, kreditu horiek konpentsatzeko erabakia ere har dezake, sarrera publikoen araudian ezarritako terminoetan.

Aurreko lerroaldeak aipatzen dituen akordio eta hitzarmenak sinatu eta gauzatzeko, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren baimena, baldin eta legez edo hitzarmenez kreditu horiei buruzko dirubilketaren kudeaketa berari badagokio, eta kasu horretan hitzartutakoari jarraikiko zaio.

Nafarroako Ogasun Publikoaren gainerako kredituetan Ekonomia eta Ogasun kontseilariak du eskumena, eta Departamentuko beste organo batzuen esku uztea ere zilegi da.

5. Nafarroako Ogasun Publikoak zilegi du beraren kaltean haren zordunek gauzatzeko egintza eta kontratuak bertan behera uztea, aplikatzekoak diren lege-xedapenen arabera.

## 3. atala

### Nafarroako Ogasun Publikoaren izaera publikoko eskubideen araubide juridikoa

**10. artikulua.** Arau orokorrak.

1. Nafarroako Ogasun Publikoaren izaera publikoko eskubideak atal honetako arauetan eta aplikatzekoak zaizkien berezietan bildutako arauen menpe egonen dira. Bereziki, tributuen aplikazioa tributuei buruzko foru legeria orokorrean xedatutakoari lotuko zaio.

2. Zordun batek zenbateko bat ordaintzen badu zein kontzepturi aplikatu behar zaion edierazi gabe, eta kobratzeko kreditu bat baino gehiago baldin badaude, zordunarentzat kostu handienekoa denari aplikatuko zaio ordaindutakoa, eta, bestela, zaharrenari, halakotzat hartuz borondatezko epearen mugaeguna lehen duena.

**11. artikulua.** Nafarroako Ogasun Publikoaren izaera publikoko eskubideen prerrogatibak.

Izaera publikoko eskubide bakoitzerako ezarritako prerrogatibak ezertan galarazi gabe, dagozkien administrazio prozeduren arabera kobratuko dira, hala bada, eskubide horiek, eta tributuen foru legeria orokorrean eta haien garapenerako erregelamenduetan ezarritako prerrogatibak izanen ditu.

**12. artikulua.** Nafarroako Ogasun Publikoaren izaera publikoko eskubideen sorrera, eskurapena eta iraungipena.

1. Nafarroako Ogasun Publikoaren izaera publikoko eskubideak eskubide bakoitza arautzen duen

araudian ezarritakoaren arabera sortzen eta eskuratzeko dira.

2. Nafarroako Ogasun Publikoaren izaera publikoko eskubideak tributuen foru legeria orokorrean ezarritako kausengatik eta legeetan ezarritako gainerakoengatik iraungitzen dira.

Foru lege honetan eta eskubide bakoitzaren araudian ezarritakoa ezertan galarazi gabe, Nafarroako Ogasun Publikoaren izaera publikoko eskubideak iraungitzeko moduen prozedurak, beharrik ezak eta ondorioak tributuen foru legeria orokorrean eta haiek garatzeko erregelamenduetan ezarritakoaren menpe egonen dira.

**13. artikulua.** Premiamendu probidentzia eta premiamendu prozedura etetea.

1. Izaera publikoko eskubideei buruzko zorren zorpeketasuna frogatzen duten premiamendu probidentziak, organo eskudunak luzatuak, aski titulu dira premiamendu prozedura irekitzeko eta epai judizial baten indar exekutibo bera dauka ordaintzera behartuta daudenen ondasun eta eskubideen kontra ekiteko.

2. Premiamendu prozedura administratiboak eten daitezke interesatuek paratutako errekurtsio edo erreklamazioen ondorioz, betiere tributuen arloko errekurtsio eta erreklamazioetarako lege edo erregelamenduz ezarritako moduan eta hartarako baldintzak betetzen badira.

3. Premiamendu prozedura berehala eten egiten da, bermea jarri beharrik gabe, interesatuak frogatzen baldin badu ezen, zorra zehazterakoan, akats material, aritmetiko edo egitateko bat suertatu dela beraren kaltetan, edo zorra ordaindu, barkatu, konpentsatu, atzeratu edo eten egin dela.

4. Prozedura horien aurka erreklamazioak egiten balira, hirugarrengotzaz edo Nafarroako Foru Ogasunarekiko inolako erantzukizunik ez duen norbaiten bestelako akzio zibilez, prozeduraren xede diren kredituei buruz bere edo eskualdatutako betebeharrak edo kudeaketaren bat dela medio, hona zein bide jarraituko den:

a) Jabari-hirugarrengotza bada, ziurtatzeko neurri guztiak hartu ondoren, gatazkapeko ondasun edo eskubideei dagokien zatian bakarrik etenen dira prozedura horiek, eta gertakizun hau arlo administratibotik bideratuko da, bide judizialera jo baino lehen.

Erreklamazioa bide administratiboan ezesten bada, premiamendu prozedurak aurrera egingen du, salbu eta demanda judiziala sartzeko agiri bidezko frogak aurkezten badira erregelamenduz ezarritako epean.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zilegi du premiamendu prozedura etetea, baldin eta exekuziotik ordain ezinezkoa edo zaila duten kalteak sor balitezke. Bi kasuetan, eteteko erabakiak erregelamenduzko neurriak ezarriko ditu, kredituak segurtatzeko.

b) Hirugarrengotza eskubide hobekoa baldin bada, ondasunak gauzatu arte jarraituko du prozedurak, eta handik ateratakoa hirugarrengotzaren ondoriozko gordailuan kontsignatuko da.

**14. artikulua.** Nafarroako Ogasun Publikoari zor zaizkion zenbatekoen geroratzea edo zatikatzea.

Zilegi da, erregelamenduz ezartzen den prozeduraren arabera, zuzenbide publikoko harremanaren ondorioz Nafarroako Ogasun Publikoari zor zaizkion zenbatekoak geroratu edo zatikatzea, bai borondatezko epean bai premiamenduzkoan. Horretarako, ordaintzera behartuek alde aurretik eskatu behar dituzte neurri horiek, haien altxor egoerak aldi batez beren zorrak ordaintzea galarazten badie. Geroratutako zenbatekoek Foru lege honen 18. artikuluan ezarritako berandutza-interesa sorraraziko dute.

Zenbateko horiek bermatu egin beharko dira, honako kasu hauetan izan ezik:

a) Zor txikiak, halakotzat harturik ondorio hauekarako Ekonomia eta Ogasun kontseilariak ezartzen dituen kopuruez beherakoak.

b) Zordunak ondasun edo krediturik aski ez duenean zorra bermatzeko, eta haren ondarea exekutatzeko eragin nabarmena izanen badu kasuan kasuko jardura ekonomikoko produkzio gaitasuna eta enplegu maila mantentzean, edo Foru Komunitatearen interesei kalte handiak ekarriko badizkie.

Hona nor diren zorrak geroratzeko eskudun:

a) Dirubilketa Zerbitzuko zuzendaria, gerokotu edo zatikatu beharreko zorra 210.350 beherakoa denean.

b) Ekonomia eta Ogasun kontseilaria, gerokotu edo zatikatu beharreko zorra 210.350 eurotik gorakoa edo 1.502.530 eurotik beherakoa denean.

c) Nafarroako Gobernuaren Erabakiz, gerokotu edo zatikatu beharreko zorra 1.502.530 eurotik gorakoa denean.

**15. artikulua.** Zorren konpentsazioa.

1. Kapitulu honetan aipatzen diren kasu eta baldintzetan zilegi izanen da Nafarroako Zerga Ogasunaren aldeko zorrak partez nahiz osorik konpentsazioz iraungitzea, dirubiltze kudeaketaren aldira

badaude, dela borondatezkoan dela nahitaezkoan, Nafarroako Ogasun Publikoak zordunaren alde aitortzen dituen hartzeak erabilia.

Halaber, zilegi izanen da aurreko lerrokadan sartzen ez diren zorrak ere konpentsazioz iraungitzea tributu eta zuzenbide publikoko beste baliabideen gaineko arauak hala aurreikusten dutenean.

Likidazio bat, haren ordainketarako dirusarrera osoa edo partezkoa egin ondoren, baliogabetu eta beste batez ordeztzen bada, zilegi izanen da likidazio berria lehendik ordaindutakoan gutxitzea.

2. Konpentsazioz iraungi daitezke Nafarroako sektore publikoa osatzen duten entitateek beren artean dituzten zor mugaeguneratu, likido eta eskagarri guztiak.

**16. artikulua.** Nafarroako Ogasun Publikoaren eskubideen preskripzioa.

1. Errekurtso bakoitzerako legeen arauetan ezarritakoa salbu, lau urteren buruan preskribatuko dute Nafarroako Ogasun Publikoaren honako eskubide hauek:

a) Bere alde kredituak aitortu edo likidatzekoa, epe hori eskubidea gauzatzea zilegi zen egunetik kontaturik.

b) Kreditu aitortu edo likidatuak kobratzekoa, jakinarazpen egunetik kontaturik edo, hura aginduzkoa ez bada, mugaegunetik.

2. Nafarroako Ogasun Publikoaren eskubideen preskripzioa tributuen foru legeria orokorrean ezarritakoaren arabera geldituko da etenda eta ofizioz aplikatuko da.

3. Nafarroako Ogasun Publikoaren eskubideei, behin preskribatuztat emanez gero, baja eman behar zaie dagozkien kontuetan, beharrezkoa den espedientearen izapideak egin ondoren.

4. Nafarroako Ogasun Publikoaren kredituen preskripzioaren aitortpena eta eskatzea foru lege honen VII. tituluaren ezarritakoaren arabera eginen da.

**17. artikulua.** Zenbateko txikiko eskubide ekonomikoak.

Ekonomia eta Ogasun kontseilariak zilegi du zorrak ez likidatzeko xedatzea edo, hala bada, haiek ezeztatu eta kontabilitatean baja ematea, baldin eta ordainarazpenerako eta bilketarako kostuak parekatzeko ezarritako kopurutik beherakoak badira.

**18. artikulua.** Berandutza interesak.

1. Foru legearen mailako honen kontrako xedapen espresurik ez bada, inolako ohartarazpen eta

errekerimendurik gabe, Nafarroako Ogasun Publikoari zor zaizkion zenbatekoek indarra duen berandutza-interesa sorraraziko dute, mugaegunaren bihamunetik hasita. Atal honetan sartzen dira entitate finantzario laguntzaileek, bulego likidatzaileek eta Nafarroako Ogasun Publikoaren kontura dirua biltzen ari diren entitateek bildutako zenbatekoak, baldin eta ezarritako epean zenbateko horiek sartu ez badituzte Nafarroako Foru Komunitateko Diruzaintzan.

2. Lege berezietan besterik xedatzen ez bada, urte bakoitzari edo kalkulu epea osatzen duen epeari diruaren legezko interesa aplikatuz kalkulatu da berandutza- interesa.

3. Aurreko idatz-zatietan xedatutakoa ez doa tributu arloko berezitasunen aurka.

#### 4. atala

##### Nafarroako Ogasun Publikoaren izaera pribatuko eskubideak

**19. artikulua.** Nafarroako Ogasun Publikoaren izaera pribatuko eskubideak.

1. Nafarroako Ogasun Publikoaren izaera pribatuko eskubideak zuzenbide pribatuaren arau eta prozeduren arabera gauzatuko dira.

2. Zuzenbide pribatuko harreman juridiko baten ondorioz Nafarroako Ogasun Publikoari zor zaizkion diru-kopuruak gerokotu edo zatikatzen ahal dira, erregelamenduz ezarritako kasu eta baldintzetan.

#### 5. atala

##### Nafarroako Ogasun Publikoaren betebeharrak

**20. artikulua.** Betebeharren iturriak.

Nafarroako Ogasun Publikoaren betebeharrak sortzen dira, legeriarekin bat, haiek sortzen dituzten lege, negozio juridiko eta egintza edo gertaeretatik.

**21. artikulua.** Betebeharren eskagarritasuna.

1. Nafarroako Ogasun Publikoaren betebeharrak Nafarroako Aurrekontu Orokorren exekuziotik, epai judizial irmotik edo lege baimendutako finantza-eragiketetatik sortuak badira baizik ez daitezke eskagarri gerta.

Nafarroako Ogasun Publikoak, bere betebeharrak ordaindu aurretik, zilegi du eskatzea hartzekodunak berarekiko tributu betebeharrak beteak izatea.

2. Betebehar horiek Foru Komunitatearen presazio edo zerbitzuetatik sortuak badira, ez da zilegi ordainketa egitea harik eta hartzekodunak bere

betebarra bete edo bermatu ez badu, salbu eta neurri hori hartzeak eragiketaren atarramenduari kalte eragin badiezaioke.

**22. artikulua.** Betebarren iraungipena.

1. Nafarroako Ogasun Publikoaren izaera publiko eskubideak Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioan jasotako kausengatik eta legerian ezarritako gainerakoengatik iraungitzen dira.

2. Nafarroako Ogasun Publikoaren betebeharrak iraungitzeko aurrekontu kredituak foru lege honetan eta bera garatzeko xedapenetan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.

**23. artikulua.** Prerogatibak.

1. Ez da epaimahairik ez administrazio agintaritarik enbargo probidentziarik eman edo exekuzio manamendurik igor dezakeenik Nafarroako Foru Ogasunaren ondare ondasun eta eskubideen aurka, zerbitzu publiko edo eginkizun publiko bati eratzikiak badira, haien etekinak edo besterentzearen emaitza askotariko xedeetara eratzikiak badira, edo sozietate publikoen kapitalaren adierazgarri diren balore edo tituluak badira, eta betiere sozietate horiek politika publikoak egiten badituzte edo Foru Komunitatearentzako interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak ematen badituzte.

2. Nafarroako Ogasun Publikoaren karguko betebeharrak behartzen dituzten ebazpen judizial edo administratiboak betetzea gaia dela-eta eskumena duen organo administratiboari dagokio, nahiz eta horrek ez duen kentzen exekuziorako beste modalitate batzuk eskatzea, Konstituzioarekin eta legeekin bat.

3. Betetzea dagokion organo administratiboak betebarra aitortuko du, foru lege honen 52. artikuluan 1. idatz-zatiko c) letran ezarri bezala. Dena dela, ebazpenaren jakinarapenetik hiru hilabeteko epean gauzatu behar da ordainketa.

**24. artikulua.** Berandutza interesak.

Ekainaren 29ko 2000/35/EE Zuzentarauan ezarritakoa ezertan galarazi gabe, Administrazioak Nafarroako Ogasun Publikoaren hartzekodunari ordaintzen ez badio, dagokion ebazpena eman edo betebarra aitortu eta biharamunetik bi hilabeteko epean, hurrengo egunetik hasi eta erabat kitatu arte ordaindu beharko dio foru lege honen 18. artikuluko 2. idatz-zatian adierazitako interesa, zorpeko kopuruaren gainean.

Hala ere, ez da berandutza-interesik sorraraziko hartzekodunak Nafarroako Foru Ogasunarekiko betebeharrak beteak eduki ez dituen epeetan. Era berean, ordainketa-prozeduran hartzekodunari egotz dakizkiokeen gainerako atzerapen guztiak

ez dira kontuan hartuko berandutza-interesak sarrarazteko epea kontatzeko orduan.

Tributuen arloan, Administrazioaren kontratazioari eta nahitaezko desjabetzeari dagokionez, haien legeria berezian xedatutako aplikatuko da.

**25. artikulua.** Betebarren iraungipena.

1. Foru lege honetan berariaz edo lege berezietan ezarritakoa salbu, lau urteren buruan preskribatutako dute honako hauek:

a) Nafarroako Foru Ogasunari betebarren aitortpena edo likidazioa eskatzekoa, baldin eta haien aitortpena edo likidazioa eskatu ez bada hartarako eskatutako beharkizunak bete izanaren agiri frogagarrien bidez. Epea kontatzen hasteko, betebarra sortu duen zerbitzua edo prestazioa bukatu zen data hartuko da oinarritzat, edo beste- la eskubidea gauzatu ahal izan zen eguna, azken hori ondorengoa bada.

b) Nafarroako Foru Ogasunari betebar aitortuen edo egindako likidazioen ordainketa eskatzekoa, hartzekodun legitimoek edo haien eskubidedunek eskatzen ez badute. Epea betebar aitortuaren jakinarazpenaren edo dagokion likidazioaren egunetik hasiko da kontatzen.

2. Lege berezien alde egindako salbuespen horrekin, preskripzioa Kode Zibilaren xedapenen arabera etengo da.

3. Nafarroako Ogasun Publikoak bere gain dituen betebeharrak, behin preskribatutzat emanez gero, baja eman behar zaie dagozkien kontuetan, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak beharrezkoa den espedientearen izapideak egin ondoren.

## II. TITULUA

### Nafarroako Aurrekontu Orokorrak

#### I. KAPITULUA

##### Xedapen orokorrak

##### 1. atala

##### Edukia eta onspena

**26. artikulua.** Definizioa.

Nafarroako Aurrekontu Orokorrek foru lege honetako 2. artikuluan aipatzen den Nafarroako sektore publikoa osatzen duten entitate guztiak ekitaldian zehar likidatu beharreko eskubide eta betebarren adierazpen zenbakidun, bateratu eta sistematikoa biltzen dute.

**27. artikulua.** Irispide subjektiboa.

Nafarroako Aurrekontu Orokorrak honako hauek osatzen dituzte:

a) Nafarroako Legebiltzarra, eta Nafarroako Arartekoa eta Comptos Ganbera.

b) Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontua.

c) Foru lege honetako 2. artikuluko c) eta h) letrek aipatzen dituzten entitate publikoen aurrekontua.

d) Enpresa-entitate publikoen aurreikuspeneko finantza-egoerak.

e) Foru Komunitateko fundazio publikoen eragiketa arrunten eta kapital eta finantza eragiketen aurrekontuak.

f) Foru Komunitateko sozietate publikoen jarduketak, inbertsio eta finantzaketa programak, baita finantzen egoera-orriak ere.

### **28. artikulua.** Indarraldia.

Aurrekontu ekitaldia urte naturalarekin bat etorriko da, eta, bestelako xedapen espresurik izan ezean, hari egotziko zaizkio:

a) Hartan likidatutako eskubide ekonomikoak, edozein delarik sortu diren epea.

b) Kasuan kasuko ekitaldiaren bukaera arte aitortutako betebeharrak ekonomikoak, baldin eta dagozkien kredituen kargura ekitaldian egindako gastuak badira.

### **29. artikulua.** Edukia.

1. 27. artikuluko a), b) eta c) letrek aipatzen dituzten aurrekontuetan honako hauek agertuko dira:

a) Gastuen egoera eta, horien barrenean, behar bezala zehazturik, ekitaldian zehar betebeharre aurre egiteko gehienez ere aitor daitezkeen kredituak.

b) Dirusarreraren egoera eta horien barrenean ekitaldian likidatuko diren eskubide ekonomikoaren zenbatespenak. Nafarroako Aurrekontu Orokorretako dirusarrera aurreikusiek aurrekontuko gastu osoak estaltzeko adina izan behar dute.

2. 27. artikuluko d), e) eta f) letrek aipatzen dituzten agiriek titulu honetako kapituluaren aurreikusitako informazioa agertuko da:

**30. artikulua.** Aurrekontuetako kreditu eta programak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde autonomoen aurrekontuetan onetsitako beharrak betetzeko jasotako esleipen banakatuetak bakoitza da aurrekontuetako kreditu. Haren identifikazioa sailkapen organiko, ekonomiko funtzional eta programen arabera emanen du.

2. Aurrekontuko programa bat, berriz, urtean helburu batzuk lortzeko asmoz unitate organikoaren eskura jarritako baliabideek osatzen dute.

Programa bakoitzerako, haren erantzukizuna duen unitate organikoa adieraziko da, eta bai helburuak betetzea bai programaren jarduretatik sortutako dirusarrerak eskuratzea hartuko du bere gain.

Zenbateraino bete den aurrekontuko programa egiaztatzeko, emaitzei begiratuko zaie, haiek neurgarriak eta atzemangarriak direnean. Emaitzak neurgarriak ez badira, zeharbidezko neurketarako adierazleak bitartez eginen da egiaztapena.

### **31. artikulua.** Aurrekontuen egitura.

1. Nafarroako Aurrekontu Orokorren egitura Ekonomia eta Ogasun Departamentuak erabakiko du, Nafarroako sektore publikoaren antolamendua, dirusarreraren eta gastuen izaera ekonomikoa eta lortu nahi diren xede eta helburuak kontuan harturik.

2. Aurreko lerroaldean aurreikusitako ondorioetarako, Nafarroako Aurrekontu Orokorren programak prestatuko dira, 30 artikuluan xedatutakoaren arabera. Programak, alde batetik, aurrekontuetako gastu-kontusailak osatuak izanen dira, zenbatekoari eta helburuari dagokienez identifikatuak, eta, bestetik, sarrera-kontusailak, zenbatekoari eta sorburuari dagokienez identifikatuak. Programa hauek, berriz, aurrekontuetako proiektuetan banandu daitezke, programaren helburuak lortzera zuzendutako jarduerak homogeneoak jasoko baitituzte.

3. Sailkapen organikoak, bestalde, zehazten diren unitate organikoaren arabera bilduko ditu kredituak eta sarrerak.

4. Sailkapen ekonomikoak, berriz, bakoitzaren izaera ekonomikoaren arabera bilduko ditu kredituak eta sarrerak.

5. Sailkapen funtzionalak, azkenik, lortu nahi diren helburuen arabera bilduko ditu kredituak.

**32. artikulua.** Aurrekontua kudeatzeko printzipioak eta arauak.

1. Nafarroako sektore publikoaren kudeaketa Nafarroako Parlamentuak urtero onetsitako aurrekontuaren araubidearen menpe dago.

2. Eskubide eta betebeharren araubidea osotasunaren printzipioari lotuko zaio, honako atal hauetan ezarritakoarekin bat:

a) Eskubide likidatuak eta betebeharrak aitortuak zenbateko osoan aplikatuko zaizkie Aurrekontuei, eta debekatua da betebeharre aurre egitea likida-



tzeko eskubideak edo jadanik sartuak gutxituz, foru lege batek espresuki horretarako baimena eman ezean.

b) Aurreko letran xedatutakotik salbuetsirik daude, Administrazio Auzitegiak, Agintaritzak edo organo eskudunak bidegabekotzat aitortutako sarreren itzulketak, baldin eta ekitaldi bereko dirusarrerekin bat baldin badatoz.

c) Artikulu honen ondorioetarako, zenbateko osotzat honako hau ulertuko da:

Betebehar onartuen kasuan, bidezko diren salbuespen eta hobariak aplikatu ondoko emaitza.

Eskubide likidatuen kasuan, bidezko diren salbuespen eta hobariak aplikatu ondoko emaitza, betiere bidezkoak izanik onura fiskal gisa jasota ez badaude. Onura fiskalak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontuko gastu egoeraren osagai izanen dira.

**33. artikulua.** Nafarroako Legebiltzarraren, Comptos Ganberaren, Nafarroako Arartekoaren eta bestelako entitateen aurrekontuak.

Nafarroako Legebiltzarraren, Comptos Ganberaren, Nafarroako Arartekoaren eta 27. artikuluko c) letran bildutako bestelako entitateen aurrekontun onespina foru lege honetako xedapen gehigarri bakarrean xedaturikoarekin bat etorriko da.

**34. artikulua.** Prestatzeko prozedura.

1. Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak proposaturik, onetsiko ditu, foru lege honetako arauekin bat, hurrengo ekitaldiko aurrekontuak prestatzeko jarribide ekonomiko eta teknikoak.

2. Foru Komunitateko Administrazioeko departamentuek jarraibide horien arabera prestatuko dituzte beren aurrekontuen aurreproiektuak, eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuari bidaliko dizkiote, berei atxikitako erakunde autonomoenekin batera.

3. Enpresa-entitate publiko, fundazio publiko eta sozietate publikoek 27. d)-tik f)-ra bitarteko letretan aurreikusitako dokumentuak prestatuko dituzte, eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuari igorriko dizkiote, Nafarroako Aurrekontu Orokorren Aurreproiektuan sartzeko.

**35. artikulua.** Aurreproiektuaren edukia.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuari dago-kio Nafarroako Gobernuaren Erabakiaren menpe jartzea Nafarroako Aurrekontu Orokorren Foru Legearen aurreproiektua, honako hauek osatua:

a) Nafarroako Aurrekontu Orokorren Foru Legearen aurreproiektua, zeinaren edukia foru lege honen 27., 29., 30. eta 31. artikuluetan eta haiekin loturikoetan xedatutakoari atxikiko baitzaio.

b) Nafarroako Aurrekontu Orokorren testu artikuludunaren aurreproiektua.

**36. artikulua.** Parlamentuari igortzea.

1. Nafarroako Aurrekontu Orokorren foru lege onetsiko dira.

2. Nafarroako aurrekontu orokorrak onesten dituzten foru legeek arauak eman ditzakete, gainera, Nafarroako Ogasun Publikoaren gai berekiatarako edo harekin zuzenean edo zeharka loturiko beste zenbait gaitarako.

3. Urte bakoitzeko azaroaren lehena baino lehen, Nafarroako Gobernuak Parlamentuari bidaliko dio Aurrekontu Orokorren Foru Legearen Proiektua, hark aztertu, zuzendu eta, hala bada, onetsi dezan.

Foru lege proiektu horri aurkeztutako zuzenketek ezin dute inola ere proposatu foru lege honen 47. artikuluko 1. idatz-zatiko a), b), c) eta e) letretan jasotako kreditu zabalgarrietarako aurreikusitako kontsignazioaren murrizketarik.

4. Foru lege proiektu horri agiri hauek erantsi beharko zaizkio:

a) Ekonomiaren eta Nafarroako Ogasun Publikoaren egoera eta perspektibei buruzko txosten bat.

b) Txosten bat, edukia argitu eta une horretan indarra duen aurrekontuarekin dituen alde nagusiak azalduko dituena. Txostenean jasoko da, halaber, Nafarroaren tributu berekietan eragina duten onura fiskalen zenbatespen bat.

c) Gastu programen eta haien urteko helburuen memoria deskribatzaileak.

d) Hirugarren hiru hilekoaren bukaeran aurrekontuak exekuzio aldetik zein egoeratan dauden eta aurrekontu horiek ekitaldiaren bukaerarako gauzatzeari buruzko aurreikuspenak.

e) Hurrengo ekitaldian, hala bada, gerta litezkeen plantilla-gehitzei buruzko txostena.

f) Hurrengo ekitaldietan jarraipena izan behar duten inbertsio errealerako kredituen zerrenda.

g) Aurrekontuen kontu bateratua.

h) Une bakoitzean indarra duen legeriaren arabera aginduzkoak diren txostenak.

**37. artikulua.** Nafarroako Aurrekontu Orokorren luzapena.

1. Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea ez bada onartzen dagokion ekitaldi ekonomikoaren lehenbiziko eguna baino lehen, automatikoki luzatuzat emanen da hark indarra hartu arte, aurreko ekitaldiko foru legea.

2. Aurrekontu luzatuetao kredituen zenbateko osoa luzatzen den ekitaldiko hasierako aurrekontuan ageri dena izanen da.

3. Luzapenaren indarraldian gastu baimenak, besterik esan ezean, honako arau berariazkoie jarraituko die:

a) Luzapenak ez du eraginik izanen luzatzen diren aurrekontuen ekitaldiaren bukaeran bukatu ziren zerbitzu edo programei dagozkien gastutarako kredituetan edo ekitaldi hartan iraungi ziren betebeharetarako zirenetan. Zenbateko horrekin Luzapen Funtza deritzona osatuko da, zeinak bakar-bakarrik balioko baitu finantzatzeko hurrengo b) letran jasotako kontratuetao betebehare posibleak edo hurrengo c) letran ezarritakoaren babesean Nafarroako Gobernuak har litzakeen erabakietatik sortuak. Funtz horren beste edozein xede Nafarroako Parlamentuak baimendu beharko du foru legez.

b) Zilegi da, bere garaian indarrean izandako baimenen babesean, alde zurretik hitzartutako gastuak luzapenaldian egitea, eta gauza bera lege mailako araudi bidez behartuak diren gastuen kasuan. Gastu horien muga, hala ere, luzatzen den ekitaldi ekonomikorako hitzartutako betetzeko zenbatekoa izanen da. Aurrekontuko kreditua ez baldin balitz konpromisoak betetzeko behar den zenbatekoa adinakoa, zilegi da hura gehitzea dagokion programaren beste kreditu batzuen kargura edo, halakorik ezean, beste edozein programaren kargura. Mugimendu horiek ez dira aurrekontuko aldaketatzat hartuko, ezein kasutan.

c) Nafarroako Gobernuak zilegi du bere menpeko langileen lansariak gehitzea, ekitaldi berriaren lehenbiziko egunetik aurrera, Nafarroako Aurrekontu Orokorren azken Foru Legean baimendutako portzentajea baino handiagoa ezin izan daitekeen portzentaje batean.

d) Aurrekontu luzatuaren egitura organikoa, zenbateko osoa aldatu gabe, exekutatu behar den aurrekontuaren ekitaldian indarra duen antolamendu administratiboari egokituko zaio.

4. Ekitaldi berrirako Nafarroako Aurrekontu Orokorren Foru Legeak ez baldin badu jasotzen luzapenaldian baimendutako kredituren bat edo kopuru txikiagoan jasotzen badu, lortu beharreko

helburuak kontuan hartuz egokiena den programari aplikatuko zaio zenbateko hori, eta falta dena, berriz, dagokion programaren beste kreditu batzuen kargura finantzatzeko da, ahal bada, edo bestela beste edozein programaren kargura. Mugimendu horiek ez dira aurrekontuko aldaketatzat hartuko, ezein kasutan.

5. Artikulu honetan aipatzen diren aurrekontuko mugimendu horiek egiteko eskumenak Ekonomia eta Ogasun kontseilariak ditu, dagokion departamentuak proposaturik.

## 2. atala

### Kredituak eta haien aldaketak

**38. artikulua.** Aurrekontuen berezitasuna.

1. Gastuetarako kredituak ez dira erabiliko Aurrekontuen Foru Legean edo behar bezala onetsi diren aldaketetan baimendu diren xede berariazkoarako baizik.

2. Programa bakoitzean, kreditu baimenduak mugakor eta lotesleak dira kontzeptu mailan. Hala ere, langile gastuetarako kredituek lotesleak dira artikulu mailan eta ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntetarakoak, berriz, kapitulu mailan.

Salbuetsirik daude honako kreditu hauek, zeren kasu honetan Ekonomia eta Ogasun kontseilariak ematen dituen arauak aplikatuko baitzaizkie:

a) Foru Lege honen 47. artikuluaaren arabera zabalgarriak direnak.

b) Dirulaguntza izendunak ezartzen dituztenak.

c) Ekitaldian zehar onartzen diren kreditu bereziak eta kreditu gehikuntzak.

d) Inkorporazioz gehitu diren kredituak.

e) Aurrekontuko zuzenketen ondorioz sortutako edo gehitutako kredituak.

3. Lotespen maila horietan egiten diren funts mugimenduei "aurrekontuko doikuntzak" deritze eta ez dira aurrekontuko aldaketak.

4. Aurreko 2. idatz-zatiak aipatzen dituen lotespen mailen barrenean, zilegi da ezartzea, edo hala bada, sortzea gastuak zuzen aplikatzeko beharrezkoak diren kontusailak.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, ezin dira sortu, loturaz, dirulaguntza izendunetarako kontusailak, salbu eta lege mailako arau batetik sortuak edo Nafarroako sektore publikoko beste entitate batzuentzako sortutako dirulaguntza edo ekarpenak badira.

5. Kontusail berriak ere sor daitezke, loturarik izan gabe ere, kreditua inkorporazio batetik, gastuari loturiko dirusarrera batetik edo orotarako kreditu batetik sortua denean.

**39. artikulua.** Gastu konpromisoen mugak.

1. Ezin da gastu konpromisorik ez betebeharririk bere gain hartu, dagokien gastu egoeran jasotako kredituen zenbatekoaren gainetik.

2. Zuzenbide osoz deusezak dira aurreko zenbakian jasotako agindua betetzen ez duten egintza administratiboak eta erregelamendu xedapenak, eta horrek ez ditu galaraziko foru lege honetako VII. Tituluan araututako erantzukizunak.

**40. artikulua.** Urte anitzeko gastu konpromisoen mugak.

1. Urte anitzeko gastua da, foru lege honen ondorioetarako, osorik edo zati batez irmoki gastuaren konpromisoa hartu zenaren hurrengo ekitaldian edo ekitaldietan gauzatzen dena.

2. Oro har, urte anitzeko gastu bat ezin da ego-tzi lau ekitaldi baino gehiagotan, foru lege batek epe luzeagoa ezarri ezean.

3. Ekitaldi batean dauden urte anitzeko konpromiso irmoen zenbateko osoa ezin da izan, ondoko kapitulu bakoitzean, hasierako aurrekontuari dagokionez, honako portzentaje hauetatik gorakoa:

Segidako hurrengo ekitaldian, 100eko 70.

Bigarren ekitaldian, 100eko 60.

Hirugarren ekitaldian, 100eko 50.

Laugarren ekitaldian, 100eko 30.

4. Aurreko 2. eta 3. idatz-zatietan xedatutakotik salbuetsirik daude hurrengo ekitaldietan exekutatu diren gastu konpromisoak, foru lege mailako xedapenez espresuki baimenduak badira; izan ere, xedapen haietan jasotako aginduen pean egonen dira, eta zilegi da are gastu horiek 3. idatz-zatiak aipatzen duen zenbaketatik kentzea ere. Foru lege horiek baimentzen badituzte lau urte baino gehiagotan egiteko gastuak eta ez baldin bada ekitaldi gehigarrietarako gehieneko konpromiso portzentajerik, laugarren ekitaldian edo ondokoetan egotz daitezkeen gastuak ezin izanen dira, osorik hartuta, hasierako aurrekontu egoerako kapitulu bakoitzaren zenbatekoaren 100eko 30 baino gehiagokoak.

5. Aurrekontua exekutatzeko eskumenaz baliatzea ezertan galarazi gabe, urte anitzeko konpromisoa hartzeko Nafarroako Gobernuaren baimena behar da, foru lege batez espresuki baimen hori ematen duenean izan ezik. Dena dela, ez da

beharrezkoa alde aurretik Gobernuak baimen hori ematea foru lege honen 52. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letrak aipatzen duen gastu baimenaren zenbatekoa 150.000 eurotik beherakoa denean eta gastu konpromisoak irmo bihurtu ondoko ekitaldian baizik eragina ez duenean.

6. Nafarroako Gobernuak urte anitzeko konpromisoak hartzeko emandako baimenak beti baimen horiek ematen diren aurrekontu ekitaldian hartutako konpromisoerik buruzkoak direla ulertuko da, honako salbuespen hauekin:

a) Zilegi da ekitaldi batean alde aurretik urte anitzeko gastu konpromisoak tramitatzea, nahiz eta gastu horiek hurrengo ekitaldian formalizatu; kasu horietan, Nafarroako Gobernuak eman dezake hartarako baimena konpromiso horiek hartu aurreko ekitaldian, nahiz eta haien irmotasuna hurrengo ekitaldiko aurrekontuan kreditua izatearen baldintzapean egonen den.

b) Nafarroako Gobernuak eman dezake, Erabaki bakar batean, urte anitzeko gastu konpromisoak hartzeko baimena eta baita haien luzapenetarako ere. Luzapenen indarraldiak erabakiko du konpromisoaren irmotasuna.

7. Urte anitzeko gastu konpromisoak kontabilitatean sartu behar dira eta aurreko 3. idatz-zatiak aipatzen dituen mugetan zenbatuko dira haiek irmo bihurtzen direnetik.

**41. artikulua.** Kredituen denbora-gorabeherak.

1. Aurrekontuetako gastu egoeran kontsignatutako kredituen kargura ez dago betebeharririk harterik ez bada erosketa, obra, zerbitzu eta gainetarako prestazioetatik sortutako gastuak edo kredituak aipatzen duen organoak ekitaldi berean egindako gastu orokorrak.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, honako betebeharrak hauek aplikatuko zaizkie ordain-aginduak luzatzen direnean indarrean den aurrekontuko kredituei:

a) Ordainsariak aurrekontuetatik jasotzen dituzten langileen aldeko atzerapenak likidatzearen ondoriozkoak.

b) Aurreko ekitaldietan behar bezala hartutako gastuen konpromisoen ondoriozkoak. Unean uneko ekitaldian kreditu egokirik ez bada, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zilegi du, dagokion departamentuaren ekimenez, betebeharrak horien ordainketa zein kredituri egotzi behar zaion erabakitzea. Betebeharrak horiek lortu nahi diren helburuetarako ustez egokiena den programari aplikatuko zaizkio, eta falta dena, ahal izanez gero, dagokion programako beste kreditu batzuen kar-

gura finantzatu da, edo, bestela, beste edozein programaren kargura. Mugimendu horiek ez dira aurrekontuko aldaketatzat hartuko, ezein kasutan.

3. Gastuetarako kredituak, aurrekontu ekitaldian azken egunean ez badaude eratzirik betebeharrak onartuak betetzera, ezeztatu egingen dira.

#### **42. artikulua.** Orotarako kreditua.

1. Salbuespenez, eta diskrezionalak ez diren premiei aurre egiteko, aurrekontuetan aurrekusi ezinezkoak baldin badira, orotarako kreditu baterako dotazioa egin daiteke, gastuen egoeraren zenbateko osoaren 100eko 1etik beherakoa.

2. Orotarako kreditu horren kargura funts leku-aldaketak egiteko baimena, hala ere, ezintasun hori justifikatzearen menpe egonen da. Gastuaren kudeatzaileek arrazoitu beharko dute zergatik ezin zaien premia berri horiei aurre egin hasiera batean Aurrekontuen Foru Legeak baimendutako kreditu arrunten bidez edo, gero sortu direnean, aurrekontuko aldaketa-espeditenteen bidez.

3. Orotarako kreditu horren erabilpena Nafarroako Gobernuak baimendu behar du, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik, eta betebeharrak horiei aurre egiteko sortzen diren kreditu berariazkoetara funtsak lekualdatuz egingen da, zeinak ezin izanen baitira gutxitu.

#### **43. artikulua.** Hasierako kredituen aldaketak.

Gastu aurrekontuetan jasotako kredituen zenbatekoa eta xedea ezin izanen dira ekitaldian zehar aldatu, ez bada hurrengo artikuluetan ezarritako mugen eta prozeduraren arabera, honako hauen bitartez:

- a) Transferentziak:
- b) Sortzeak.
- c) Zabaltzeak.
- d) Inkorporazioak.
- e) Kreditu bereziak.
- f) Kreditu gehikuntzak.

#### **44. artikulua.** Kreditu transferentziak.

1. Transferentziak 38. artikuluan aurrekontuko doikuntza gisa sartuak ez diren kreditu arteko dotazio lekualdaketa dira. Aurrekontuko kredituen artean egin daitezke, are kreditu berriak sortuz, honako murrizketa hauekin:

a) Ezin dituzte aldatu dagokien programaren edo programen helburuak, behar bezala justifikatutako kasu berezietan izan ezik.

b) Ezin dituzte gutxitu ekitaldian emandako kreditu bereziak, ez eta kreditu zabalgarriak ere, harik eta azken horientzat ekitaldian har ditzaketen betebeharrak finkatu arte, edo zabaldu eta gero.

c) Ezin dira gutxitu kreditu gehikuntzak, transferentziak edo aurreko ekitalditik datozen inkorporazioak izan dituzten kredituak.

d) Ezin diete gehikuntzarik ekarri beste transferentzia batzuen ondorioz gutxipena izan duten kredituei.

2. Aurreko 1. zenbakian jasotako murrizketak transferentzia horien eraginpean zuzenean dauden kreditu lotuetara ere zabaltzen dira.

3. Langile gastuen kapituluaren barrinean, zilegi da aurrekontuko mugimenduak baimentzea, baldin eta lekualdatzeetatik edo plantilla organikoaren aldaketetatik sortuak badira eta ez badakarte berekin plantilla handitzerik edo langileen egoera administratiboan edo ordainsarien aldaketarik. Aurrekontuko mugimendu horiek ez dira, foru lege honen ondorioetarako, kreditu transferentziatzat hartuko, eta idatz-zati honetan aipatzen diren plantilla-aldaketak kudeatzeko eskumena duen organoak gauzatuko ditu.

**45. artikulua.** Kreditu transferentziak organo eskudunaren arabera.

1. Nafarroako Gobernuak kontseilariak, beren departamentuen esparruan, baimena eman dezakete programa beraren kredituen artean transferentziak egiteko.

2. Ekonomia eta Ogasun kontseilariak baimena eman dezake kapitulu ekonomiko beraren barrinean departamentu baten programen arteko kreditu transferentziak egiteko.

3. Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik, baimena eman dezake kapitulu ekonomiko beraren barrinean departamentuetako programen arteko kreditu transferentziak egiteko.

#### **46. artikulua.** Kreditu sortzeak.

1. Aurrekusi gabeko dirusarrera batzuk gauzatzearen ondorioz edo hasierako aurrekontuan kalkulaturakoak baino handiagoak izatearen ondorioz gehikuntzak dakartzaten aldaketak dira kreditu sortzeak.

2. Ekitaldian berean gauzatutako dirusarrerak kredituak sor ditzakete aurrekontuen gastuen egoera-orrain, honako hauen ondorioz

a) Administrazio publikoek edo pertsona fisiko edo juridikoek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin edo haren erakunde publiko,

sozietate publiko edo funtzio publikoren batekin batera, gastuak finantzatzeko egiten dituzten ekarpenak, duten izaeragatik horien helburu edo xede-etan sarturik badaude.

b) Foru Komunitatearen ondareko ondasunen besterentzea.

c) Ondasun salmentak eta zerbitzu emateak.

d) Maileguak berreskuratzea.

e) Ekitaldi itxietako aurrekontuko kredituen kargura egindako ordainketa bidegabekoen itzulketen ondoriozko dirusarrerak.

3. Dirusarrerak Foru Komunitatearen ondareko ondasunak besterentzetik sortuak direnean, izaera ekonomiko bereko eragiketei dagozkien kredituetan bakarrik egin ahal izanen dira.

Dirusarrerak ondasunen salmentatik edo zerbitzu emateetatik sortuak direnean, besterendutako ondasun horiek eskuratzeko edo ekoizteko edo zerbitzu hori emateko sortu ziren gastuen izaera bereko gastuetarako kredituetan bakarrik eginen dira kreditu sortzeak.

Maileguak berreskuratzearen ondoriozko dirusarrerak mailegu berriak emateko kredituak sortzeko bakarrik izanen dira baliagarri.

Dirusarrerak aurreko e) letrako ordainketa bidegabekoen itzulketen ondoriozkoak badira, itzulketaren dirusarrera ekarri duen gisa bereko gastuetara zuzendutako kredituetan bakarrik egin daitezke kreditu sortzeak.

4. Ekonomia eta Ogasun kontseilariak eman behar du kreditu sortzeetarako baimena.

#### **47. artikulua.** Kreditu zabalgarriak.

1. Foru lege honen 38. eta 39. artikuluetan xedatutakoa gorabehera, zabalgarritzat hartuko dira, aitortzen diren edo aitortzekoak diren betebeharren mugaraino, honako kreditu hauek:

a) Ordainsarietarako, Gizarte Segurantzako kotizazioetarako eta gainerako legezko prestazioetarako direnak, hitzarmen kolektiboetan edo lege mailako arauetan onetsitako soldata-igoeretatik sortutako betebeharrei aurre egiteko handitu behar direnean.

b) Klase pasiboen prestazioei aurre egiteko direnak.

c) Foru lege honen II. tituluko I. kapituluko zorpetze eragiketak finantzatzera eta eragiketa horietatik sortutako betebeharrei aurre egitera zuzendutakoak.

d) Zenbatekoa aurrekontuko sarrera bat gauzatzearen arabera dutenak.

e) Estatuaren, haren erakunde autonomoen edo Nafarroako toki entitateen aldeko eskubide legezkoak ordaintzeko direnak.

f) Betebehar bermatuak bete ez izanaren ondoriozko gastuei aurre egiteko beharrezkoak direnak.

g) Ondare erantzukizunaren ondoriozko kalte-ordainak eta epaien betearaztea finantzatzeko direnak, haietan finkatutako zenbatekoetan. Kasu horren barrenean egonen dira Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenak, horien exekuzio subsidiarioaren ondorioz Nafarroako Gobernuak funts ekonomikoak edukitzea beharrezkoa gertatzen denean, baita Nafarroako Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren eta zerga administrazioaren organo kudeatzaileen ebazpenak ere, gastuen itzulketa eskatzen baldin bada, eta, era berean, Nahitaezko Desjabetzeerako Probintziako Epaimahaiaren erabakiak eta, orobat, Nafarroako Foru Komunitateak ordaindu behar dituen europar funtsetako laguntzen kudeaketaren ondoriozko finantza-zuzenketak.

h) Urteroko aurrekontuen foru legeek zabalgarritzat espresuki hartzen dituztenak.

2. Ezin da zabaldu alde zuzenetik gutxitutako krediturik, ez eta gutxitu kreditu zabalgarriak, harik eta ekitaldirako haien betebeharrak finkatu arte.

3. Ekonomia eta Ogasun kontseilariak eman behar du baimena aurreko zenbakiak aipatzen dituen kredituak zabaltzeko, eta aurrekontuetako beste edozein gastu programarako kreditu erabilgarrien kargura fintzatu behar dira, foru lege honetako 50. artikuluko 2. zenbakian aipatutakoak salbu, edo bestela ekitaldi ekonomiko bereko dirusarrera handiagoen kargura, bai benetakoak bai espero direnak kontatuz betiere.

#### **48. artikulua.** Kreditu bereziak eta kreditu gehikuntzak.

1. Hurrengo ekitaldirarte berandutu ezin daitekeen gasturen bat egin behar bada aurrekontu indardunaren kargura eta aurrekontuan krediturik ez badago edo ez bada nahikoa edo kontsignatutakoa ezin bada handitu foru lege honetan jasotako xedapenen arabera, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat bidaliko du Nafarroako Parlamentura kreditu berezi bat eman dezan lehenbiziko kasuan, edo kreditu gehikuntza bat, bigarren.

2. Foru lege proiektu horretan egin nahi den gastu handiago hori zein baliabideren bitartez finantzatuko den zehaztu behar da; aurrekontuetako beste edozein gastu programatako kredituak izan daiteke, are Parlamentuak zuzenketen edo lege honek xedatutakoaren ondorioz berariaz onetsitako kredituetakoak, edo bestela ekitaldi ekonomiko berean benetan izandako edo espero diren dirusarrera handiagoen kargukoak.

#### **49. artikulua.** Kreditu inkorporazioak.

1. 41. artikuluan xedatutakoa gorabehera, zilegi da ekitaldi bateko aurrekontuko kredituei aurreko ekitaldiko kreditu gerakinak gehitzea, honako kasu hauetan:

a) Lege maila duen arau batek eskatzen duenean.

b) Kapital eragiketetarako kredituak, aurreko ekitaldian baimenduak.

c) Aurrekontu ekitaldiko azken hilabetea baino lehen hartutako gastu konpromisoak babesten dituztenak eta ekitaldian ezin erabili izan direnak.

d) Estatuaren, haren erakunde autonomoen edo Nafarroako toki entitateen aldeko eskubide legezkoak ordaintzeko direnak.

e) Foru lege honen 46. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letran aipatzen dituen eragiketek sortutako kredituak eta, oro har, Estatuako Administrazioak edo beste administrazio publiko batzuek emandako dirulaguntzekin lotutako kredituak.

f) Aurrekontu ekitaldian emandako kreditu bereziak eta kreditu gehikuntzak eta, arrazoi zentzuzkoengatik, ekitaldian zehar ezin erabili izan direnak.

2. Kreditu inkorporatuak inkorporaziorako baimena eman den aurrekontu ekitaldian baizik ez daitezke erabil, salbu eta foru legez beste zerbaitez ezarri bada.

3. Kreditu inkorporaziorako aldeztu aurretik aurrekontu kontusaila sortzea beharrezkoa denean, hark ez du lotura aldetik inolako mugarik izan.

4. Inkorporazioa izan duten aurrekontu kredituak ezin dira erabili inolako aurrekontuko mugimendurik finantzatzeko.

5. Aurreko zenbakiak aipatzen dituen kredituak inkorporatzeko, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak eman behar du baimena eta, foru lege honetako 50. artikuluko 2. zenbakian aipatutakoa ezertan galarazi gabe, aurrekontuetako beste edozein gastu programatako kreditu erabilgarrien kargura finantzatu behar dira, baldin eta ukitutako programen

helburuak aldatzen ez badira betiere, edo bestela ekitaldi ekonomiko berean izandako edo espero diren dirusarrera handiagoen kargura.

**50. artikulua.** Aurrekontuetako kredituen aldaketek buruzko xedapen komunak.

1. Aurrekontuko aldaketak dakartzaten egintza eta erabaki guztiak eta orobat foru lege honen 38. artikuluko 2. idatz-zatian zerrendatutako kredituak ukitzen dituzten funts mugimenduak arrazoituak izan behar dira, Kontu-hartzailetzaren fiskalizazioaren pean egonen dira eta ukitutako kredituak identifikatzeko beharrezkoak diren datuak izan behar dituzte. Kontu-hartzailetzak jarritako erreparatuak, hala bada, foru lege honen 101. artikuluko xedatutakoaren arabera ebatziko dira.

2. Aldaketen bidez ezin dira gutxitu dirulaguntza izendunei buruzko kredituak, baldin eta haien zenbatekoa konprometituta bada, ez eta kreditu zabalduak ere, ez eta Nafarroako Parlamentuak foru legeen zuzenketen edo proposamenen ondorioz berariaz onetsiak, baldin eta horrek eta kreditu berriak sartzeko edo dagozkien foru lege proiektuetan aurreikusitakoak gehitzea badakar, betiere foru lege honen 48. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa ezertan galarazi gabe.

3. Foru lege honen 44., 46., 47. eta 49. artikuluek aipatzen dituzten aurrekontuko aldaketak berehala jakinarazi behar zaizkio Nafarroako Parlamentuari.

### **3. atala**

#### **Aurrekontuen exekuzioa eta likidazioa**

**51. artikulua.** Helburuen sistema.

1. Aurrekontuko programen erantzule diren organoek, programa horiek prestatzean, beren jardueraren esparruan betetzeko helburu sistema bat emanen dute, haren ezaugarrietarako egokia.

2. Gastu publikoak kudeatu eta kontrolatzeko sistemak programen azken helburuak betetzen direla ziurtatzera zuzendu behar dira.

**52. artikulua.** Gastu aurrekontuaren exekuzioaren faseak.

1. Aurrekontuetan kontsignatutako gastuen exekuzioan honako eragiketa hauek sartzen dira:

a) Gasturako baimena ematea. Zenbateko zehatz edo gutxi gorabeherako bat kreditu baten kargura egiteko asmoa adierazten den egintza da, eta, horretarako, osorik edo haren zati erabilgarri bat erreserbatu egiten da behin-behinekoz.

b) Gastuaren erabilpena. Bidezkoak diren legezko izapideak aldeztu aurretik eginda, hiruga-

rren batekin konpromisoa hartzeko egintza da, zeinaren ondorioz kreditua zenbateko batez erreserbatzen baita.

c) Betebeharraren aitortpena: Helburu baterako erreserbatutako kreditu baten kontura eta gastuaren erabilpenerako ezarritako baldintzak bete izanaren ondorioz, ordainketa-konpromiso bat irmoki onartzen duen egintza da.

d) Ordainketa-proposamena. Betebehar aitortu bat betetzeko, Diruzaintzaren kargura ordainketa bat egiteko agintzen duen eragiketa bat da.

e) Ordainketaren gauzatzea.

2. Aurreko zenbakiak aipatzen dituen eragiketarako Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zehazten duen moduan dokumentatu behar dira.

**53. artikulua.** Gastu aurrekontua exekutatzeko eskumena.

Gastu baimen eta erabilpenak eta betebeharraren aitortpena, kontrako agindu espresurik ezean, beren eskumenen esparruan ebazpenak eman eta egintza administratiboak gauzatzeko ahalmena araudi erabilgarrian aitortua dutenei dagokie. Ekonomia eta Ogasun Departamentuari dagokio ordainketak proposatu eta egitea.

**54. artikulua.** Funtsak erabiltzeko eskumena.

Diruzaintzaren kargura ordainketak egitean, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, eta ez beste inork, funtsak erabiltzeko ezartzen dituen arauak beteko dira.

**55. artikulua.** Betebeharrak aitortzeko baldintzak.

Betebeharra aitortu eta Diruzaintzaren kargura ordainketa-proposamena luzatu baino lehen, agiriz frogatu behar da, betebeharra aitortu behar duen organoaren aurrean, prestazioa eman izana edo hartzekodunaren eskubidea, gastua baimendu eta konprometitu zuten administrazio xedapen eta egintzen arabera.

Betebeharrak aitortzeko tramitazio prozedurek kasu bakoitzean eskatzen diren ziurtapen edo egiaztapen eragiketak egiten dituztenen identifikazioa bermatuko dute, eta eragiketa horien irispidea ere adierazi behar da, eta baita emaitza ere.

**56. artikulua.** Justifikatu beharreko funtsak.

1. Aurreko artikulua aipatzen dituen justifikazio dokumenturik alde aurretik izan gabe salbuespenez luzatutako ordainketa-aginduak "justifikatu gabe"ak dira.

2. "Justifikatu gabe"ko ordainketa-aginduak luzatzea zilegi da honako kasu hauetan:

a) Justifikazio agiriak ordainketa-proposamena egin aurretik aurkeztu ezin direnean.

b) Behar bezala justifikatutako egokitasun arrazoiengatik edo aparteko beste batzuegatik, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak kredituen kudeaketa arintzeko beharrezko irizten dionean.

3. "Justifikatu gabe" egindako libramenduen kargura aurrekontu ekitaldi berean egiten diren gastuetatik sortutako betebeharrak bakarrik egin dake aurre.

4. Ordainketa-agindu hauek jasotzen dituztenek justifikatu egin beharko dute hartutako diru kopuruen aplikazioa eta, hala egin behar bada, Diruzaintzara itzuli erabili gabeko funtsak, eta foru lege hone erantzukizun araubidearen menpe egon behar dira. Kontuak emateko epea bi hilabetekoa da, salbu eta desjabetzei buruzko ordainketei dagozkienak, horiek sei hilabeteko epean eman baitaitezke.

5. Artikulu honen aurreko zenbakietan aipatzen diren justifikazio agiriak aurkeztu eta hurrengo hilean, organo eskudunak kontua onartuko du edo erreparoa jarriko dio.

6. Aldizka edo errepikaturik ematen diren zerbitzuen funtzionamendu normalerako gastu txikiei aurre egiteko "justifikatu gabe" ordaindutako funtsak kutxa finkoko aurrerakintzat har daitezke, baldin eta gastu horiei artikuluko honen 2. idatz-zatian jasotakoa aplikatu badakieke.

Horrelako funtsak eskuratzen dituztenek aurrekontu ekitaldiaren barrenean justifikatu behar dute zertan erabili dituzten.

**57. artikulua.** Urteko aurrekontuaren exekuzioa.

1. Sarreraren aurrekontuaren exekuzioa segidako edo aldibereko fase hauetan egiten da:

a) Eskubidearen aitortpena.

b) Eskubidearen iraungipena.

2. Baliabide bakoitzari aplikatzen zaion araudiaren arabera, Foru Komunitatearen Administrazioaren alde kreditu bat aitortu eta likidatzen duen egintza da eskubidearen aitortpena.

3. Foru lege honen 12. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera, eskubidearen iraungipena dirutan egindako kobrantzaren ondorioz gerta daiteke, eta baita gauzak edo konpentsazioz ere, aplikatzekoak diren xedapen berezietan aurreikusitako kasuetan. Beste kausa batzuen ondorioz gertatutako eskubide iraungipenak kontabilitate bananduan jasoko dira, likidazioaren ezeztapenaren ondoriozkoak eta dirubilketa prozesuan

preskripzio, barkamen edo kaudimengabeziaren ondorioz gertatu direnak bereiziz.

**58. artikulua.** Aurrekontuaren likidazioa.

Ekitaldi bakoitzeko Aurrekontuak, eskubide eta betebeharren aitopenari dagokionez, urte natural bakoitzaren abenduaren 31n likidatuko dira.

Foru Lege honen 27. artikularen a) eta c) letrek aipatzen dituzten entitateek Foru Komunitateko Diruzaintzari itzuli behar dizkiote ekitaldian aitortutako betebeharrak betetzeari atxikiak ez diren funtsak.

**59. artikulua.** Urteko aurrekontuaren exekuzioaz eman beharreko informazioa.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak hiruhileko naturaleko lehenbiziko hilabetean aurreko hiruhilekoan Nafarroako Aurrekontu Orokorren exekuzioaren egoeraren berri emanen dio Nafarroako Parlamentuari, salbu eta laugarren hiruhilekoari dagokiona, hurrengo urteko lehenbiziko bi hilabeteen barnean igorriko baitu.

## II. KAPITULUA

### Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-entitate publikoei, fundazio publikoei eta entitate publikoei buruzko berariazko xedapenak

**60. artikulua.** Aurrekontuak.

1. Foru lege honetako 27. artikuluko d), e) eta f) idatz-zatietan aipatzen diren Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek, urtero, irailaren 15a baino lehen, agiri hauek prestatu eta Ekonomia eta Ogasun Departamentura igorri beharko dituzte:

a) Ustiapenaren aurrekontua, urteroko baliabide eta dotazioak zehaztuko dituen.

b) Kapitalaren aurrekontua, aurreko idatz-zatiko xehetasun bera izanen duena.

c) Ustiapenaren eta kapitalaren aurrekontuen edukia eta ekitaldian lortu nahi diren helburuak azaltzen dituen memoria.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren ustiapenaren eta kapitalaren aurrekontuak kasuan kasuko ekitaldiko emaitzen kontuaren aurreikuspenak eta finantzaketa taulak osatuko dituzte.

3. Sozietate publikoek eta enpresa-entitate publikoek, agiri haiekin batera, azken ekitaldiko likidazioko eta garatzen ari den ekitaldiko zenbatespeneko emaitzen kontua eta finantzaketa taula ere aurkeztuko dituzte. Azken ekitaldi likidatuko egoeraren balantzea, garatzen ari den ekitaldiko

zenbatespena eta hurrengo ekitaldiko aurreikuspena ere sartuko dituzte.

## III. TITULUA

### Finantza eragiketak

#### I. KAPITULUA

##### Zorpetzea

**61. artikulua.** Zorpetze eragiketak.

1. Foru Komunitatearen zorpetzea mota hauekoa izaten ahalko da:

a) Mailegu edo kreditu eragiketak.

b) Zor publikoaren baloreen jaulkipena.

c) Finantza tresnekiko bestelako eragiketak.

2. Zorpetze eragiketak finantza merkatuetan eginen dira merkatu horietan erabili ohi diren arau, baldintza, teknika, betebeharrak eta klausulekin bat.

3. Foru Komunitateak jaulkitzen duen zor publikoari "Nafarroako Zorra" iritziko dio eta, ondorio guztietarako, funts publikotzat joko da.

**62. artikulua.** Zorpetzearen helburuak.

1. Ekitaldi bakoitzeko zorpetze eragiketen emaitza eskuarki Nafarroako Aurrekontu Orokorretan aurreikusten diren gastuak finantzatzeko erabiliko da, salbu eta foru lege baten bidez berariazko helburu bat ezartzen bada.

2. Aurreko idatz-zatian xedaturikoa deusetan galarazi gabe, ekitaldi bakoitzeko zorpetze modalitate guztien zenbatekoa ezin izanen da kasuan kasuko aurrekontuan inbertsiorako aurreikusiriko gastuak baino handiagoa izan. Horretarako, orain dauden zorren berritzeak ez dira kontuan hartuko.

3. Urte osoko zorpetze eragiketa guztien zenbatekoa, amortizazioak, interesak eta komisioak barne, ezin izanen da ekitaldiko aurrekontuetako ohiko sarreraren 100eko 25 baino gehiagokoa izan.

**63. artikulua.** Epe laburrerako zorpetzea.

Finantza merkatuen egoeragatik hala komeni denean, hau da, finantzaketaren kostua gutxitzen ahal denean, Nafarroako Gobernuak 61. artikuluan aipatzen diren eragiketak egiten ahalko ditu, bata bestearen ondoren, gehienez ere urte batez.

**64. artikulua.** Legezko gaitasuna.

Zorpetze eragiketak foru lege baten bidez baimendu beharko dira. Horretarako, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak aurrekontu ekitaldi bakoitzeko zorpetzearen muga ezarriko du.



**65. artikulua.** Dirusarreraren eta gastuen aplikazioa

1. Emaitzak, amortizazioa eta interes, komisio eta zorpetze eragiketei loturiko kontzeptuen ondoriozko gastuak Nafarroako Aurrekontu Orokorretan aplikatuko dira.

2. Finantza trukerako eragiketetan, trukaturiko kapitalen printzipal edo interesen diferentzien ondoriozko likidazioa hitzartzen denean, diferentzia horiek dirusarrera edo gastuen aurrekontuari egotziko zaizkio, likidazio bakoitzean bidezko denaren arabera.

Hala ere, trukearen bi alderdietariko batek, dela zorduna dela hartzekoduna, besteak ez bezalako likidazioaldi zatigarri bat daukanean, diferentziak aldirik luzeeneko dirusarrera edo gastu aurrekontuari egotziko zaizkio, bidezko denaren arabera, eta bitartean likidazio zatigarrien emaitza aurrekontuetatik kanpoko eragiketetarako kontu batean mantenduko da.

**66. artikulua.** Zorpetze eragiketen hasiera.

1. Legezko baimena emateko 64. artikuluan aipatzen diren baldintzetan, Nafarroako Gobernuari dagokio, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik:

a) 61. artikuluko zorpetze eragiketak erabakitzea.

b) Eragiketa bakoitzerako gehieneko zenbatekoa ezartzea.

c) Interes tasa finkatzea.

d) Epea adieraztea.

2. Aurreko idatz-zatiko a) eta b) letretan aipatzen direnak izan ezik, gainerako eskumenak Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren esku uzten ahalko dira.

**67. artikulua.** Zorpetzea gauzatu eta administrazioa.

1. Ekonomia eta Ogasun kontseilariak gauzatuko ditu zorpetze eragiketak, aurreko artikuluan aipatzen diren egintzetako baldintzei jarraituz.

2. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak exekutatu, kudeatu eta administratuko ditu zorpetze eragiketak eta haien finantza-tresnak.

**68. artikulua.** Nafarroako Zorraren jaulkipenak.

Gobernuaren erabakiak betearazteko, Ekonomia eta Ogasun kontseilariari dagokio:

a) Jaulkipenaren ezaugarri eta baldintzak zehaztea. Horretarako honako kontu hauek ezartzen ahalko ditu:

1goa. Jaulkipena adierazteko modua, kontuko oharretan, titulu-baloreetan edo formalki aitortzen duen beste edozein dokumentutan.

2garrena. Jaulkipenaren kokapena denboran edo zenbatekoan zatitzea.

3garrena. Data diferenteetako antzeko baloreen jaulkipen homogeneoak elkartzea.

4garrena. Negoziatu ahal izateko kupoiak eta printzipala bereiztea eta haietatik abiatu baloreak berriro osatzea.

b) Jaulkipena egiteko prozedura ezartzea, aseguratze, enkante edo kasuan kasuko eragiketa motaren arabera egokitzeak jotzen diren bestelako tekniken bidez. Enkanteen arauak egin baino lehen finkatuko dira. Bereziki, aukera hauek izanen dira:

1goa. Jaulkipena enkantean ematea, orotariko publikoaren artean, baimenduriko kokatzaileen artean edo baloreak kokatzeko edo bigarren mailako merkatuan negoziatzeko konpromiso bereziak hartzen dituzten kokatzaileen talde murriztu baten barrenean.

2garrena. Jaulkipen bat osorik edo hein batean haien kokapena aseguratzen duten finantza entitatei uztea, hitzarturiko prezioan.

**69. artikulua.** Zorpetzeari buruzko eragiketak.

Kostua gutxitzeko, arrisku finantzarioei aurre egiteko edo zorpetzea hobeki administratzeko, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak ahalmen hauek izanen ditu:

a) Finantzak ganbiatu, bihurtu, luzatu, trukatu, aldatu eta garaia baino lehen osorik edo hein batean amortizatze eragiketak eta antzekoak.

b) Nafarroako Zorraren baldintzak aldatzea erabakitzea, edukitzaileen eskubide ekonomikoei kalte egin gabe.

c) Bigarren mailako merkatuan Nafarroako Zorraren baloreak eskuratzea.

d) Finantza entitateekin eta bereziki inbertsio kolektiborako erakundeekin eta bestelako inbertitzaile instituzionalekin lankidetzak akordioak hitzartzea, Nafarroako Zorra hobeki kokatu ahal izateko eta haren likidezia sustatzeko, kontraprestazio baten bidez.

**70. artikulua.** Nafarroako Zorraren baloreen araubide juridikoa.

1. Nafarroako Zorra ordezkatzeko duten baloreei legeek kasu bakoitzerako ezarritako araubidea aplikatuko zaie, haien modalitateen eta ezaugarrien arabera.

2. Halaber, Nafarroako Zorraren eramailearen dako tituluei, lapurtu, ebatsi, galarazi edo suntsitu bazaizkio, administrazioak ezarritako prozedura aplikatuko zaie edo, horrelakorik ezean, merkataritza buruzko legerian aurreikusirik dagoena.

3. Nafarroako Gobernuak ezarriko du egin beharreko prozedura titulu izendunak edo eramailearendakoak kasuan kasuko bulego publikoan aurkeztu ondoren galdu direnean edo hein batean suntsitu direnean, hau da, identifikatzea eragozten ez duenean.

**71. artikulua.** Nafarroako Zorra hartu eta esku aldatzea.

Nafarroako Zorra hartu eta eskualdatzeko, fede-emailearen partaidetza ez da aginduzkoa izanen, salbu eta hura titulu-baloreek osatzen dutenean eta haiei dagokien legerian hala xedatzen denean.

**72. artikulua.** Preskripzioa.

1. Lau urtera preskribatuko dute:

a) Nafarroako Zorraren interesak ordaindu beharrak eta diru-itzulketarako dei egiten diren kapituluak itzuli beharrak. Preskribatzeko epe horiek, hurrenez hurren, interesak iraungitzen direnetik aurrera eta diru-itzulketarako dei egiten denetik aurrera.

b) Nafarroako Zorraren kapitalak itzuli beharrak, bihurtu behar direnean. Kasu honetan, eragiketarako ezarriko mugaegunetik aurrera hasiko da.

2. Diru-itzulketarako dei eginiko kapitalak Administrazioaren aurrera ordainduriko bermeei loturik daudenean, errenboltsatu beharrak preskribatzeko epea bermea beharrezkoa izatetik gelditzen denetik edo kentzea erabakitzen denetik aurrera, interesatuak jakinda.

3. Nafarroako Zorraren ondorioz ordaindu beharrak beste baten bidez egiten direnean eta, horiek, sei hilabete iraganik, funtsak edukitzeleari edo titularrari ezin transferitu dizkionean, haien zenbatekoa horretarako aukeratzen den kontuan gordeko da, eskubidea frogatzen dutenen eskura.

**73. artikulua.** Parlamentuari jakinaraztea.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak hiruhileko naturaleko lehenbiziko hilabetean aurreko hiruhilekoan eginiko zorpetze eragiketen zenbatekoaz eta ezaugarri nagusiez argibideak igorriko ditu Nafarroako Parlamentura, kapitulu honetan aipatzen diren baimenen babesean.

## II. KAPITULUA Abalak

**74. artikulua.** Abalak.

Nafarroako Gobernuak, kapitulu honetan xedaturikoarekin bat, pertsona fisiko edo juridikoek, publiko edo pribatuek Espainian edo atzerrian hitzarturiko kreditu eragiketen ondoriozko betebeharrak finkatzen ahalko ditu, kasuan kasuko abala emanez.

**75. artikulua.** Legezko gaitasuna.

1. Foru lege baten bidez baimendu beharko dira abalak. Horretarako, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak betiere ezarriko du abalen gehieneko arrisku bizia.

2. Ulertuko da aurreko idatz-zatian aipatzen den gehieneko arrisku bizia abalaturiko eragiketen printzipalari dagokiola. Salbu eta Aurrekontuei buruzko Foru Legeak edo abala ematekoak espresuki bestela adierazten badu, ematen den abalak bakarrik printzipalaren ordainketa bermatzen ahalko du.

3. Parlamentuak espresuki baimentzen ez badu, pertsona fisiko edo juridiko bat ere ez da izaten ahalko Aurrekontuei buruzko Foru Legean ezartzen den gehieneko arrisku biziaren 100eko 5etik gorako abalen onuradun.

**76. artikulua.** Abalak emateko erabakia.

1. Nafarroako Gobernuak emanen ditu aurreko idatz-zatian aipatzen diren abalak, erabaki baten bidez, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik.

2. Nafarroako Gobernuaren erabakiak bakarrik eragiketa bakar bat edo eragiketa batzuk ukitzen ahalko ditu, betiere honako hauek zehazturik: abaldunen nortasuna, abalak emateko epea eta gehieneko zenbatekoa, banakakoa edo osoa.

**77. artikulua.** Abalen formalizazioa.

Ekonomia eta Ogasun kontseilariak formalizatuko ditu abalak, erregelamendu baten bidez ezartzen den moduan dokumentatuz.

**78. artikulua.** Arriskuen mugak.

1. Nafarroako Gobernuak, aginduzko eta legezko baimenean ezarritako mugak deusetan galarazi gabe, finantza merkatuetan erabili ohi diren klausulak erabaki, emaniko abalak exekutatzeko arriskua gutxitzeko tresnak sortu eta abalaren onuradunari aski diren bermeak eskaintzen ahalko dizkio.

2. Nafarroako Gobernuak bakarrik zordun nagusiak bere betebeharrak bete ezik hartuko du

bere gain abala ematearen ondoriozko erantzukizuna. Nafarroako Foru Berriko 525. Legeko a) idatz-zatiean aipatzen den salbuespenaren onurari uko egiten ahalko zaio.

**79. artikulua.** Komisioak sorraraztea.

Foru Komunitateak ematen dituen abalek Ekonomia eta Ogasun kontseilariak eragiketa bakoitzerako ezartzen duen komisioa sorraraziko dute haren alde.

**80. artikulua.** Parlamentuari jakinaraztea.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak hiruhileko naturaleko lehenbiziko hilabetean aurreko hiruhilekoan emaniko abalen zenbatekoaz eta ezaugarri nagusiez argibideak igorriko ditu Nafarroako Parlamentura, kapitulu honetan aipatzen diren baimenen babesean.

### III. KAPITULUA

#### Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-entitate publikoei, fundazio publikoei eta entitate publikoei buruzko berariazko xedapenak

**81. artikulua.** Zorpetze eragiketak.

Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek Nafarroako Gobernuaren baimena beharko dute zorra jaulki edo kreditua hartzeko, salbu eta aurrekontu ekitaldi berean hitzartu eta bertan behera uzten diren kreditu eragiketak badira.

Nafarroako Gobernuaren baimena Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik tramitatuko da.

**82. artikulua.** Abalak.

Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek Nafarroako Gobernuaren baimena beharko dute abalak emateko.

Baimen hori Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik tramitatuko da eta eragiketa bat edo batzuk ukitzen ahalko ditu.

### IV. TITULUA Diruzaintza

#### I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

**83. artikulua.** Foru Komunitateko diruzaintza.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen baliabide finantzario guztiek osatzen dute Foru Komunitateko diruzaintza, direla diruak, baloreak edo kreditu-

ak, bai aurrekontuetako eragiketarako, bai aurrekontuz kanpokoetarako.

**84. artikulua.** Diruzaintzaren eginkizunak.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak kudeatuko du Foru Komunitateko Diruzaintza. Eginkizun hauek izanen ditu:

a) Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen eskubideak kobratzea eta betebeharrak ordaintzea.

b) Kutxaren batasun irizpidearen menpe jaretzea, aurrekontuetako eta aurrekontuez kanpoko eragitek sortzen dituzten funts, balore eta efektu guztiak zentralizatuz.

c) Eskura dagoen dirua denboran banatzea, kasuan kasuko betebeharrak behar denean bete ahal izateko.

d) Foru Komunitateak hitzarturiko abalen erantzukizuna bere gain hartzea.

e) Legeen edo erregelamenduen mailetako xedapenek esleitzen dizkioten gainerako eginkizunak burutzea.

**85. artikulua.** Diruzaintzaren aurreikuspena.

1. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak diruzaintzaren aurreikuspena prestatuko du urtero.

2. Horretarako, bidezkotzat jotzen dituen argibide guztiak biltzen ahalko ditu, aurreikuspen horretan eragina izan dezaketen ordainketa eta kobrantzei buruz.

3. Aurreikuspen hori exekutatzeko, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak xedatu bezala egingen da.

**86. artikulua.** Administrazioaren kobrantza eta ordainketak.

1. Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kobrantza eta ordainketa guztiak horretarako Espainiako Bankuan eta Nafarroan kokaturik dauden finantza entitate publiko edo pribatuetan irekirik dauden kontuen bidez bideratuko dira.

2. Nafarroako Gobernuak baimena eman ondoren, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak aurreko idatz-zatian aipatzen diren lankidetzak hitzarmenak izenpetzen ahalko ditu finantza entitateekin, erabili beharreko kontu motak eta prozesuak zehazteko eta kontu haien bidez bideratzen diren kobrantza eta ordainketen fluxu guztiak kontrolatu eta justifikatzeko.

3. Zenbait kobrantza eta ordainketaren kudeaketa eta kontrola hobetzeko, xedatzen ahalko da

haiek horretarako irekirik dauden berariazko kontuen bidez egin daitezela.

**87. artikulua.** Diruzaintzaren funts likidoak.

1. Foru Komunitateko diruzaintzaren funts likidoak edozein finantza entitate publiko edo pribatutan egoten ahalko dira.

2. Nafarroako Gobernuak baimena eman ondoren, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak aurreko idatz-zatian aipatzen diren finantza entitateekin lankidetzaz hitzarmenak izenpetzen ahalko ditu, diruzaintzaren funts likidoak daudeneko kontuen funtzionamendu araubidea zehazteko.

**88. artikulua.** Kontuak irekitzea.

1. Aurreko artikuluetan aipatzen diren kontuak irekitzeko Ekonomia eta Ogasun kontseilariak alde aurretik baimena eman beharko du. Baimen hori banan banakoa izanen da eta kasuan kasuko kontua erabiltzeko baldintzak ezarriko ditu.

2. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak administrazioko kudeaketa organoari, erakunde autonomo titularrari edo finantza entitateari eskatzen ahalko dio kontua irekitzeko baimenerako baldintzak egiaztatzeko edozein datu eta agintzen ahalko du bertan behera utzi edo haren erabilera geldiarazi dadila egiaztatzen denean irekitzeko zergatikoek ez dirautela edo erabiltzeko ezarri ziren baldintzak ez direla betetzen.

**89. artikulua.** Diruzaintza eragiketak.

1. Ekonomia eta Ogasun kontseilariak, diruzaintzaren kudeaketa hobetzeko, bidezkotzat jotzen diren eragiketa finantzarioak hitzartzen ahalko ditu horretarako finantza merkatuetan dauden tresnen bidez. Eragiketa horiek nahitaez diruzaintzaren aldi baterako defizitei aurre egiteko erabili beharko dira eta aurrekontuen indarraldian bertan behera utziko dira. Foru lege honetako III. tituluko I. kapituluari aipatzen den araubidearen menpe ez dira behin ere egonen.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren eragiketak aurrekontuetatik kanpokoak izanen dira, haien ondoriozko gastu eta dirusarrera finantzarioak izan ezik.

**90. artikulua.** Kobratu eta ordaintzeko baliabideak.

1. Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kobrantzak Ekonomia eta Ogasun Departamentuak eginen ditu, ondoren aipatzen diren baliabideen bidez:

a) Banku-transferentzia baten bidez.

b) Esku dirutan, foru lege honetako 86. artikuluan aipatzen diren kontuen bidez.

c) Txeke baten bidez.

d) Kobratzeko beste edozein baliabideren bidez, dela bankukoa edo ez, erregelamenduen bidez ezarritako baldintzetan.

2. Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen ordainketak Ekonomia eta Ogasun Departamentuak eginen ditu, ondoren aipatzen diren baliabideen bidez:

a) Banku-transferentzia baten bidez.

b) Txeke baten bidez.

c) Zuzenean kontuan kargatuz, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak espresuki baimena eman ondoren.

d) Ordaintzeko beste edozein baliabideren bidez, dela bankukoa edo ez, erregelamenduen bidez ezarritako baldintzetan.

3. Ekonomia eta Ogasun kontseilariak baliabide bereziak erabiltzea erabakitzen ahalko du kobrantza edo ordainketa batzuk egiteko. Kasu bakoitzean erabiltzeko berariazko baldintzak zehaztuko dira.

## II. KAPITULUA

### Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-entitate publikoei eta sozietate publikoei buruzko berariazko xedapenak

**91. artikulua.** Diruzaintzaren kudeaketa.

Foru lege honetako 2. artikuluko e) eta f) letretan aipatzen diren entitateek beren funts likidoen kudeaketa Ekonomia eta Ogasun kontseilak ematen dituen jarraibide eta arauen menpe jarriko dituzte.

## V. TITULUA

### Nafarroako sektore publikoa osatzen duten entitateen kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren barne kontrola

## I. KAPITULUA

### Arau orokorrak

**92. artikulua.** Nafarroako sektore publikoaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren barne kontrola.

Comptos Ganberak bere dituen eskumenak galarazi gabe, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, titulu honetan xedaturikoarekin bat, Foru Komunitateko Administrazioaren, haren erakunde publikoen eta foru lege honetako 2. artikuluko f)

eta g) letretan aipatzen diren gainerako entitate eta sozietateen jarduera ekonomiko eta finantzarioa kontrolatuko du.

**93. artikulua.** Barne kontrolaren helburuak.

1. Titulu honetan arautzen den kontrolak helburu hauek ditu:

a) Kontrolatu beharreko kudeaketari dagokion araudia betetzen dela egiaztatzea.

b) Eginiko eragiketen erregistroa eta kontabilitatea egokia dela eta, aplikatzekoak diren xedapenekin bat, organo edo entitate bakoitzak osatu behar dituen kontu eta egoera-orrietan zintzotasunez eta aldian-aldian adierazten dela egiaztatzea.

c) Kontrolatzen diren jarduera eta prozedurak kudeaketa finantzario egokiaren printzipioekin bat egiten direla ebaluatzea, betiere Nafarroako Ogasun Publikoaren interesak errespetatuz.

d) Nafarroako Aurrekontu Orokorretan esleituriko helburuak betetzen direla egiaztatzea.

2. Kontu-hartzearen, kontrol finantzario iraunkorraren eta auditoretza publikoaren bidez eginen da kontrola, titulu honetako II., III. eta IV. kapitulutant xedatu bezala.

3. Urtero, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak barne kontrolerako plana onetsiko du, kontrol finantzario iraunkorreko eta auditoretza publikoko eragiketak, urtean zehar egin nahi direnak, bilduko dituen. Inguruabar bereziak gertatzeagatik hala komeni denean, plan hori aldatzen ahalko da.

**94. artikulua.** Kontrolaren esparrua eta erabilera.

1. Foru Komunitateko Administrazioan, erakunde publikoetan, fundazio publikoetan eta sozietate publikoetan, Ekonomia eta Ogasun Departamentua arduratuko da barne kontrolaz, Kontu-hartzailza Nagusiaren bidez, foru lege honetan eta haren erregelamenduzko xedapenetan ezarriko baldintzetan.

2. Hala ere, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak laguntza ematen ahalko die beste entitate publikoei barne kontrolerako eginkizunetarako. Eragiketak gauzatu ere egiten ahalko du, horretarako Ekonomia eta Ogasun Departamentuak eta kasuan kasuko entitate publikoak

**95. artikulua.** Jarduteko printzipioak eta prerrogatibak.

1. Barne kontrolerako eginkizunak autonomia, decentralizazio eta barne hierarkia printzipioei jarraituz eginen dira.

2. Titulu honetan aipatzen den kontrola erabateko autonomiaz erabiliko da kudeaketa kontrolatzen zaion organo edo entitateari dagokionez. Horretarako, kontrola burutzen duten funtzionario eta langile guztiek independentzia funtzionala izanen dute kudeaketa kontrolatzen dieten organoetako titularrei dagokienez eta beren jarduketak indarra duen araudiaren eta Kontu-hartzailza Nagusiak ematen dituen jarraibideen menpe jarriko dituzte.

3. Prozedura kontraesankorra kontu-hartzean agertzen ahal diren desadostasunak gainditzeko izanen da arau. Printzipio hori desadostasunak gainditzeko foru lege honetan arautzen den prozeduran gauzatuko da.

Kontrol finantzario iraunkorraren eta auditoretza publikoaren esparruan, prozedura kontraesankorraren nondik norakoak kasuan kasuko txostenei buruzko araudian ezarriko dira, foru lege honetan 108. artikuluan eta 113. artikuluko 3. idatz-zatian xedaturikoa galarazi gabe.

4. Kontrol eginkizunak esleituri dauzkatenek, erregelamenduen bidez ezarriko diren baldintzetan, beharrezkotzat jotzen dituzten aholkularitza juridiko eta txosten teknikoak eta beren eginkizunetan aritzeko behar diren aurrekari eta agiriak eskatzen ahalko dituzte.

**96. artikulua.** Kontrolatzaileen eginbehar eta ahalmenak, lankidetzak eta laguntza juridikoa eman beharra.

1. Kontrol lanetan ari diren langileek isilpekotasuna gorde beharko dute beren lanagatik dazagutzaten kontuei buruz. Beren eginkizunetan lorturiko datu, txosten edo aurrekariak bakarrik kontrolaren berezko helburuetarako erabiltzen ahalko dira, txostenetan aipatzen diren gomendioak burutzeko irekitzen diren espedienteen oinarri gisa, eta, bidezko bada, ustez arau-hauste administratiboak, kontabilitateko erantzukizunekoak edo delituak diren egintzak salatzeko eta Foru Komunitateko Administrazioan berean edo lankidetzak esparruen arabera beste administrazio publiko batzuetan irregulartasunak saihesteko.

Europar Batasuneko araudia aplikatzeko eginkizun kontrolatan, kontrol txostenak haren arabera bidezko diren agintari edo entitateei jakinarazten ahalko zaizkie.

Legez kontrol txostenak eskuratzea bidezko den gainerako kasuetan, haien hartzaileei eskatzen ahalko zaizkie.

2. Edonolako agintariak, bulego publikoetako buru edo zuzendariak, Nafarroako sektore publikoa osatzen duten entitateetakoak eta eskuarki

eginkizun publikoetan dihardutenek edo entitate haietan lan egiten dutenek kontrolaz arduratzen diren langileei behar duten sostengua, sorospena, laguntza eta lankidetzak eman beharko diete, kontrol horretara behar diren agiri eta argibideak haien esku utziz.

3. Pertsona natural edo juridiko oro, publiko zein pribatu, beharturik dago, kontrol organoak hala eskaturik, datu, txosten edo aurrekari guztiak luzatzera, zuzenean beste pertsona batzuekiko harreman ekonomiko, profesional edo finantzarioen ondoriozkoak badira eta garatzen dituzten kontrol jarduketarako eragina badute.

## II. KAPITULUA Kontu-hartzea

### 97. artikulua. Definizioa.

Kontu-hartzearen xedea eskubideak aitortzeko edo gastuak egiteko egintzak kontrolatzea da, onetsi baino lehen, baita haien ondoriozko dirusarrerak edo ordainketak ere, eta eskuarki haien funts publikoak inbertitu edo aplikatzea, haien kudeaketa kasuan-kasuan aplikatzekoak diren xedapenetan bat datorrela bermatzeko.

Hala ere, aurretiko fiskalizazioaren ordezkari eta eskubideen eta dirusarreraren kontu-hartzearen ordezkari, erregelamenduen arabera, kontrol finantzario iraunkorrean eta auditoretza publikoan aritzean gertatzen diren egiaztapenak egiten ahalko dira, salbu eta behar ez ziren dirusarrerak itzultzeko ordainketak eta ordainketa materialak agintzeko egintzetan.

### 98. artikulua. Aplikazio esparrua.

1. Kontu-hartze eginkizunak Kontu-hartzailtza Nagusiak eta Kontu-hartzailtza Delegatuak burutuko dituzte Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek gauzaturiko egintza, agiri eta espedientei dagokienez, foru lege honetako 94. artikuluko 2. idatz-zatian aipatzen diren hitzarmenen esparruan egiten diren jarduerak galarazi gabe.

2. Egintza, agiri eta espediente horiek sortzen dituzten kudeaketa prozeduretan administrazio publiko batzuek parte hartzen dutenean, kontu-hartzea 1. idatz-zatian aipatzen den esparruan gertatzen diren jarduketetan burutuko da bakarrik.

3. Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik, Kontu-hartzaileak alde aurretik txostena eman ondoren, erabakitzen ahalko du alde aurreko kontu-hartzea bakarrik betebeharrak edo gastuak sortzen dituzten edo sortzen ahal dituzten egintza administratiboan kontu batzuetarako egin dadila edo egintza administratibo horiek

alde aurreko kontu-hartzetik salbuets daitezela, bai haien zenbatekoagatik, bai haien eduki edo izaeragatik. Hala ere, alde aurreko fiskalizazio araubide orokorra aplikatzeko izanen da zenbateko zehaztugabeko gastuetan eta Nafarroako Gobernuak onetsi behar dituen besteetan.

4. Kontu-hartze mugatuaren menpeko egintzak edo alde aurreko kontu-hartzetik salbuetsiak, aurreko idatz-zatian xedaturikoaren arabera, kontrol finantzario iraunkorraren menpe egonen dira.

**99. artikulua.** Xaxa finkoko justifikatu beharreko ordainketa eta aurrerakinen alde aurreko fiskalizazioa eta kontu-hartzea.

Erregelamendu baten bidez justifikatu beharreko ordainketen aginduak alde aurretik fiskalizatzeko eta, bidezko bada, funtsak berrezartzeko egiaztatu beharreko betebeharrak ezarriko dira, baita haiek justifikatzeko kontu-hartzean ere.

### 100. artikulua. Erabilera motak.

1. Kontu-hartzea formala eta materiala izaten ahalko da. Kontu-hartze formalean erabakia hartzeko behar diren legezko betebeharrak egiaztatuko dira, agindurik dagoenez, espediente osatu behar duten agiri guztiak aztertuz. Kontu-hartze materialean funts publikoen aplikazioa egiazkoa eta eraginkorra izan dela egiaztatuko da.

#### 2. Kontu-hartzeak alderdi hauek edukiko ditu:

a) Eduki ekonomikoko eskubideak aitortzen dituzten egintzak, gastuak onesten dituztenak, gasturako konpromisoak hartzen dituztenak edo funts eta baloreen mugimenduak erabakitzen dituztenak alde aurretik fiskalizatzea.

b) Betebeharren aitortzearen kontu-hartzea eta, bidezko bada, inbertsioa egiaztatzea.

c) Ordaintzeko proposamenaren kontu-hartze formala.

d) Ordainketaren kontu-hartze materiala.

### 101. artikulua. Erreparoa.

1. Kontu-hartzaileak, fiskalizazioa edo kontu-hartzea egitean, bere desadostasuna adierazten badu aztertutako egintzen edukiarekin edo haiek egiteko erabiliriko prozedurarekin, bere erreparoa idatziz aurkeztu beharko ditu, bere irizpideak oinarritzen direneko legezko aginduak aipatuz.

2. Kasu hauetan erreparoa aurkezpenak bertan behera utziko du espedientearen tramitazioa, konpondu arte:

a) Kreditua aski ez denean edo proposatu dena egoki ez denean.

b) Betebeharraren aitortpena justifikatzen duten agirietan irregulartasun larriak atzematen direnean edo hartzailearen eskubideak aski frogatzen ez direnean.

c) Obra, hornidura, erosketa eta zerbitzuen egiaztapen materialen ondoriozkoa denean.

d) Egintza baliorik gabe uzten ahal duen betebeharraren edo izapideren bat burutu ez denean, edo kudeaketa administratiboaren jarraipenak Nafarroako Ogasun Publikoari edo beste norbaiti kalte ekonomikoa egiten ahal dionean.

e) Aurrekontuak aldatzeko foru lege honetan aipatzen diren betebeharrak betetzen ez direnean.

f) Nafarroako Gobernuak erabakitzen duenean, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak proposaturik.

Espedientean atzematen diren akatsak aurreko puntuetan aipatzen ez diren betebeharrak edo izapideak ez betetzearen ondorioz badira, Kontu-hartzaileak akats horiek nabarmenduko ditu, baina ez du espedientearen tramitazioa bertan behera utziko.

#### **102. artikulua.** Ezadostasunak.

1. Kudeaketa organoak erreparoa onartzen ez badu aurkezturiko erreparoa, Kontu-hartzaileak Nagusiari ezadostasuna adieraziko dio, arrazoiak emanda, idatziz, irizpideen oinarri diren legezko aginduak aipatuz.

2. Ezadostasuna adierazirik, honelaxe egingen da:

a) Kontu-hartzaileak delegatu batek aurkeztu badu erreparoa, Kontu-hartzaileak Nagusiari egokituko zaio ezadostasuna ezagutzea eta nahitaez ebazpena eman beharko du.

b) Kontu-hartzaileak Nagusiak aurkeztzen duenean erreparoa, bere kasa arituz edo kontu-hartzaile delegatu batena berretsiz, eta kudeaketa organoaren ezadostasunak bere horretan badirau, horrek Ekonomia eta Ogasun Departamentura igorriko du espedientea, behin betiko ebazpena eman dezan.

#### **103. artikulua.** Fiskalizazioa ez egitea.

1. Aplikatzekoak diren xedapenetan ezarritakoaren arabera, kontu-hartzea aginduzkoa bada eta egin ez bada, ezin izanen da betebeharrak aitortu, ez eta ordainketa tramitatu, ez eta kasuan kasuko espedientearen alde kontu hartu ere, ez-egite hori artikuluko honetan ezarritako baldintzetan ezagutu eta haren gainean ebatzi arte.

2. Kasu horietan, aginduzkoa izanen da txosten bat kontu-hartzea esleiturik daukanak egitea, ez-egite horren berri duenak hain zuzen ere. Txosten hori jarduketak hasi dituen kudeaketa organora igorriko da eta ez da fiskalizaziotzat hartuko.

3. Aurreko idatz-zatian xedaturikoaren arabera, Kontu-hartzaileak arau-hausterik edo ezadostasunik ez dagoela adierazten badu, fiskalizazioaren hasierako ez-egitea izan ezik, egintza balioetsiko da, prozedura administratiboari buruzko arauetan xedaturikoaren arabera.

4. Kontu-hartzaileak bere iritzia adierazten badu, legeriaren hausteak edo kudeaketa organoen jarduketarekiko ezadostasunak nabarmentzen baditu, espedientea Nafarroako Gobernura igorriko da, ebazpena eman dezan. Ebazpena aldekoa bada ere, horrek ez du erantzukizunik baztertuko, horrelakorik eskatu behar baldin bada.

### **III. KAPITULUA**

#### **Kontrol finantzario iraunkorra**

##### **104. artikulua.** Definizioa.

Kontrol finantzario iraunkorra hurrengo artikuluan ezarritako organo eta entitateetan burutuko da eta haren xedea da entitate, unitate organiko edo arlo funtzional bakoitzaren egoera eta funtzionamendua eten gabe egiaztatzea, ekonomiari eta finantzei dagokienez, araudia eta jarraibideak betetzen direla egiaztatzeko eta, eskuarki, haren kudeaketa bat datorrela kudeaketa finantzario egokiaren printzipioekin.

##### **105. artikulua.** Aplikazio esparrua.

1. Kontrol finantzarioa barne kontrolerako ohiko sistema izaten ahalko da:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan.

b) Foru Komunitateko Administrazioak dituen erakunde autonomoetan.

2. Bidezko bada, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak proposaturik, kontrol finantzario iraunkorra barne kontrolerako ohiko sistema gisa aplikatzeko esparru zehatza ezartzen ahalko du.

3. Betiere, alde aurreko kontu-hartzetik salbetsitatzat jo diren jarduketak kontrol finantzario iraunkorraren menpe egonen dira.

##### **106. artikulua.** Kontrol finantzarioaren edukia.

1. Kontrol finantzario iraunkorrak jarduketa hauek biltzen ahalko ditu:

a) Kudeaketa ekonomikoaren kontuei dagozkien araudi eta prozedurak bete direla egiaztatzea, haietan kontu-hartzea burutu ez bada.

b) Aurrekontuen exekuzioa begiratu eta gastua kudeatzen duten zentroyen programei esleituriko helburuak lortzen direla egiaztatzea.

c) Titulu honetako II. kapituluari aipatzen den kontu-hartzearen bidez burutzen ahal diren gainekoak.

2. Lehen aipatu diren jarduketak txostenetan adieraziko dira.

Urtero, txosten bat prestatuko da, ekitaldian eginiko kontrol finantzario iraunkorreko jarduketaren emaitzak bilduko dituena.

3. Ekitaldi bakoitzean egin beharreko kontrol finantzario iraunkorreko jarduketak haien nondik norakoak foru lege honetako 93. artikuluko 3. idatz-zatian aipatzen den Barne Kontrolerako Urteroko Planeari zehaztuko dira.

**107. artikulua.** Kontrol finantzario iraunkorreko txostenak.

Erregelamendu mailako arau baten bidez, aurreko artikuluan aipatzen diren txostenak prestatzeko aldizkakotasuna, edukia, hartzaileak eta prozedura zehaztuko dira.

**108. artikulua.** Jarduketaren gaineko txostenak eta neurri zuzentzaileen jarraipena.

1. Kontu-hartzaitza Nagusiak jarduketaren gaineko txostenak egiten ahalko ditu, kudeaketa organoetarako kontrol finantzario iraunkorreko txostenetan aipatzen diren gomendio eta jarduketa proposamenen ondoriozkoak, 106. artikuluko 2. idatz-zatian aipatzen direnak, gorabehera hauetariko baten bat gertatzen denean:

a) Akats larriak atzeman direnean eta kudeaketa kontrolatuaren titularrek konpontzeko behar diren neurriak eta aurreikusiriko epea adierazten ez dituztenean. Akats larria Nafarroako Ogasunari kaltea egiten diona da edo kaltea egiteko arriskugarria dena.

b) Kontrolatu beharreko kudeaketaren titularrek akats larriak buruzko ondorio eta gomendioekin ezadostasunak adierazten dituztenean eta kontrol organoak onartzen ez dituztenean.

c) Akats larriak buruz eginiko gomendioekin adostasuna adierazirik ere, nabarmendu diren akatsak zuzentzeko neurriak hartzen ez direnean.

2. Jarduketaren gaineko txostenak kontrolaturiko organoa edo entitatea zein departamenturen menpe dagoen edo zeini dagoen atxikirik eta

horretarako igorriko dira eta, departamentuko titularrak ados ez badago, Nafarroako Gobernura igorriko dira, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren bidez. Nafarroako Gobernuak horretaz hartzen dituen erabakiak lotesleak izanen dira kudeaketa eta kontrol organoetarako.

3. Kontu-hartzaitza Nagusiak jarraipen eten-gabea eginen du txostenetan atzematen diren akatsen ondorioz erabakirik neurri zuzentzaileei buruz.

#### IV. KAPITULUA Auditoretza publikoa

##### 1. atala Xedapen orokorrak

###### 109. artikulua. Definizioa.

Auditoretza publikoaren funtsa Nafarroako sektore publikoaren jarduerari ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzea da, gerora eta sistematikoki, foru lege honetako 2. artikuluko b) eta c) letretan aipatzen diren organo eta entitateena izan ezik, aplikatzeak diren auditoretza arau eta jarraibideetako berrikuste eta hautatze prozeduren bidez.

Halaber, Nafarroako sektore publikotik kanpoko pertsona fisiko eta juridikoek funts publikoak zuzen aplikatzen dituzten ere aztertuko du.

###### 110. artikulua. Aplikazio esparrua.

1. Foru lege honetako 93. artikuluan aipatzen den barne kontrolerako urteroko planeari zedaturikoaren arabera, auditoretza publikoa Nafarroako sektore publikoa osatzen duten organo eta entitateei eginen zaie, aurreko artikuluan adierazten diren salbuespenak salbuespen, kontu-hartzeari eta kontrol finantzario iraunkorrari dagozkien jarduketak eta Kontuen Auditoretzari buruzko uztailaren 12ko 19/1988 Legeko auditoretza pribatuaren menpeko jarduketak, sektoreko legeriak merkataritza sozietateei ezarriak, galarazi gabe.

2. Bereziki, hurrengo artikuluan aipatzen den dirulaguntzen auditoretza funtsen hartzaileei ere eginen zaie.

###### 111. artikulua. Erabilera motak.

1. Hona hemen auditoretza publikoaren motak:

a) Kontabilitate-erregulartasuneko auditoretza, kontabilitateko argibide eta agiriak berrikusi eta egiaztatzen dituena. Haren xedea da kontabilitateari eta, bidezko bada, aurrekontuei buruz aplikatzeak den araudiarekin bat datorrela begiratzea.

b) Betetze-mailaren auditoretza. Haren xedea kudeaketa ekonomiko eta finantzarioko egintza,



eragiketa eta prozedurak aplikatzekoak diren arau-ekin bat garatu direla egiaztatzea.

c) Auditoretza operatiboa, erakunde, programa, jarduera edo eginkizun publiko baten eragiketa eta prozeduren miaketa sistematiko eta objektiboa da. Haren xedea haren arrazionaltasun ekonomiko eta finantzarioaren eta kudeaketa egokiaren printzipio-ekiko egokitzapenaren balorazio independente bat ematea da, izan litezkeen akatsak atzeman eta haiek zuzentzeko bidezko diren gomendioak proposatzeko.

d) Dirulaguntzen auditoretzaren xedea egiaztatzea da onuradunek eta entitate laguntzaileak dirulaguntzak modu zuzenean eskuratu, erabili eta kudeatu dituztela, funtsak kudeatzen eta aplikatzen eginbeharrak egin dituztela eta haiekin finantzaturiko eragiketak egiazkoak eta erregularrak direla.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren jarduketan moduen helburuak konbinatzen direneko auditoretzak egiten ahalko dira.

#### **112. artikulua.** Auditoretza txostenak.

1. Auditoretza publikoaren jarduketa bakoitzaren emaitzak txosten idatzietan adieraziko dira. Txosten horiek alde aurretik onesten diren erregelamenduko mailako arauekin bat prestatuko dira. Arau horietan txostenak prestatzeko edukia, hartzaileak eta prozedura zehaztuko dira.

2. Betiere, txostenak erakunde edo entitate kontrolatuko titularrari, Ekonomia eta Ogasun kontseilariari eta organo edo entitate kontrolatua zer departamenturen menpe dagoen edo zeini dagoen atxikirik eta bertako departamentuko kontseilariari igorriko zaizkio.

3. Halaber, kontrol finantzario iraunkorraren ondoriozko jarduketan gaineko txostenetarako 108. artikuluan xedaturikoa aplikatzekoa izanen da auditoretza publikoko txostenetan.

### **2. atala** **Urteroko kontuen auditoretza**

**113. artikulua.** Definizioa eta aplikazio esparrua.

1. Urteroko kontuen auditoretza kontabilitate-erregulartasuneko auditoretza mota bat da. Haren xedea da egiaztatzea urteroko kontuek ondarearen, egoera finantzarioaren eta entitatearen emaitzen irudi zehatza adierazten dutela afera nagusi guztietan eta, bidezko bada, aurrekontuen exekuzioa kontabilitateari eta aurrekontuei buruz aplikatzekoak diren arau eta printzipioekin bat egin dela eta egoki interpretatu eta ulertzeko behar den informazioa daukatela.

2. Urtero, Kontu-hartzailatza Nagusiak hauen kontu auditoretza eginen du, bere kasa edo berak zuzendurik:

- a) Enpresa-entitate publikoenak.
- b) Entitate publikoenak.
- c) Sozietate publikoenak.

3. Urtero, Kontu-hartzailatza Nagusiak urtean eginiko kontuen auditoretzen txosten-laburpen bat prestatuko du, non auditoretza horietako salbuespenak adieraziko baitira.

#### **114. artikulua.** Edukia.

1. Sozietate publikoen eta enpresa-entitate publikoen urteroko kontuen auditoretzek, aurreko artikuluko 1. idatz-zatian aipatzen den helburutik aparte, egiaztatu beharko du foru lege honetako 128. artikuluan dirulaguntzei eta plantillari buruz aipatzen diren argibideak bat datozela urteroko kontuetako gainerako argibideekin.

2. Fundazio publikoen urteroko kontuen auditoretzek, 113. artikuluko 1. idatz-zatian aipatzen den helburutik aparte, honako hauek izanen dituzte:

a) Egiaztatzea foru lege honetako 129. artikuluan dirulaguntzei eta plantillari buruz aipatzen diren argibideak bat datozela urteroko kontuetako beste argibideekin.

b) Egiaztatzea fundazioen helburuak eta, bidezko bada, langileak hautatzeko eta kontratuak egiteko beren jarduerak iradoki behar dituzten printzipioak betetzen direla.

c) Ustiapenaren eta kapitalaren aurrekontuen exekuzioa egiaztatzea.

3. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak kudeaketaren beste arlo batzuetara zabaltzen ahalko du auditoretzaren xedea.

### **3. atala** **Berriazko auditoretza publikoak**

**115. artikulua.** Betetze-mailaren auditoretza.

Kontu-hartzailatza Nagusiak betetze-mailaren auditoretza barne kontrolerako urteroko planean ageri diren Nafarroako sektore publikoko organo eta entitateei eginen die. Haren xedea auditaturiko entitateen jarduera ekonomiko eta finantzarioaren edozein alderdi legeekin bat datorrela egiaztatzea izanen da.

**116. artikulua.** Auditoretza operatiboa.

Kontu-hartzailatza Nagusiak foru legeko 111. artikuluko 1. idatz-zatiko c) letran aipatzen den auditoretza operatiboa barne kontrolerako urteroko

planean ageri diren Nafarroako sektore publikoko organo eta entitateei eginen die, plan horretan ezartzen diren mugak muga, modalitate hauen bidez:

a) Aurrekontuetako programen auditoretza. Haren funtsa da kudeaketa organoek garaturiko helburuak eta jarraipen sistemak egokiak diren aztertzea eta emaitzen balantzeen eta kudeaketa txostenen fidagarritasuna egiaztatzea.

b) Sistema eta prozeduren auditoretza. Haren funtsa da kudeaketa finantzariorako prozedura administratiboa aztertzea, izan litzakeen akatsak atzeman eta bidezko diren neurri zuzentzaileak proposatzeko.

c) Ekonomia, eraginkortasun eta efizientzia auditoretza. Haren funtsa da faktore horiek balortzea, baliabide publikoen erabilerari dagokionez.

#### **117. artikulua.** Dirulaguntzen auditoretza.

Kontu-hartzaitza Nagusiak 111. artikuluko 1. idatz-zatiko d) letran aipatzen den dirulaguntzen auditoretza eginen du, barne kontrolerako urteroko planean ezartzen diren mugak muga. Alderdi hauek biltzen ahalko ditu:

a) Kontabilitateko erregistroak, kontuak edo egoera-orri finantzarioak eta horiek biltzen dituzten agiriak aztertzea, direla onuradunenak, direla entitate laguntzaileenak.

b) Banakako eragiketak eta zehatzak aztertzea, emaniko dirulaguntzekin zuzenean edo zeharka loturik badaude.

c) Inbertsio edo gastu finantzatuen egiaztatze materiala.

d) Kasuan kasuko araudian aipatzen diren kudeaketa alderdien betetze-maila eta onuradunen betebeharrak bete direla egiaztatzea.

e) Funts publikoak egokiro aplikatu direla ziurtatzeko behar diren egiaztapen guztiak, dirulaguntzen xede diren jardueren ezaugarri bereziak kontuan hartuz.

## **VI. TITULUA** **Kontabilitatea**

### **I. KAPITULUA** **Arau orokorrak**

#### **118. artikulua.** Printzipio orokorrak.

1. Nafarroako sektore publikoa, foru lege honetako 2. artikuluko b) eta c) letretan aipatzen diren entitate eta organoak izan ezik, titulu honetan

aurreikusiriko kontabilitate araubideari atxikiko zaio.

2. Nafarroako sektore publikoaren kontabilitatea informazio sistema ekonomiko eta finantzario bat eta aurrekontuei buruzko bat bezala osatzen da. Haren xedea da, egoera-orrien eta txostenen bidez, ondarearen, egoera finantzarioaren, emaitzen eta aurrekontuaren exekuzioaren irudi zintzo bat erakustea, hura osatzen duen entitate bakoitzari buruz.

**119. artikulua.** Nafarroako sektore publikoaren kontabilitatearen helburuak.

Nafarroako sektore publikoaren kontabilitateak bide eman behar du kudeaketa, kontrol, azterketa eta informazio arloetako helburu hauek lortzeko:

a) Aurrekontuen exekuzioa erakustea, aurrekontuen emaitzak adieraziz.

b) Ondarearen osaera eta egoera eta haien aldaketak erakustea eta ekonomia eta ondare ikuspegietatik emaitzak zehaztea.

c) Zerbitzu publikoen kostuak zehazteko informazioa ematea.

d) Nafarroako Parlamentuan, Comptos Ganberan eta gainerako kontrol organoetan aurkeztu edo horietara igorri behar diren edonolako kontu, egoera-orri eta agiriak prestatzeko informazioa ematea.

e) Administrazio publikoen eta sozietate ez-finantzario publikoen kontuak prestatzeko informazioa ematea, Europako Nazioetako eta Erregioetako Kontuen Sistemaren arabera.

f) Legezketasun, finantza, ekonomia, eragimen eta eraginkortasun arloetako kontrolak burutzeko informazioa ematea.

g) Entitate publikoen jardueren ondorio ekonomiko eta finantzarioak aztertzeko behar den informazioa ematea.

h) Erabakiak hartzeko informazio ekonomiko eta finantzario erabilgarria ematea.

i) Indarra duten xedapenetan adierazten diren gainerako helburu guztiak.

**120. artikulua.** Kontabilitate printzipioen erabilerak.

1. Nafarroako sektore publikoa osatzen duten entitateen kontabilitatea bidezko diren kontabilitate printzipioak erabiliz garatuko da, hurrengo idatz-zatietan adierazten diren irizpideei jarraituz.

2. Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek hurrengo artikuluan

aipatzen diren kontabilitate irizpide publikoak erabili beharko dituzte eta Kontabilitate Publikorako Plan Orokorrean eta hori garatzeko xedapenetan ezarritako printzipio eta arauak gauzatu.

3. Sozietate publikoek eta enpresa-entitate publikoek Merkataritza Kodean, Espainiako Enpresen Kontabilitate Plan Orokorrean, haien egokitza-penetan eta haiek garatzeko xedapenetan aipatzen diren printzipio eta arauak erabili beharko dituzte.

4. Fundazio publikoek Irabazi asmorik gabeko entitateen Kontabilitate Plan Orokorrean egokitza-penean eta haiek garatzen dituzten xedapenetan aipatzen diren kontabilitate printzipio eta arauak aplikatu beharko dituzte

**121. artikulua.** Kontabilitate printzipio publikoak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek, foru lege honetako II. tituluari aipatzen diren aurrekontu printzipioez gain, kontabilitate printzipio hauek erabili beharko dituzte:

a) Gastu eta dirusarreraren aldi baterako egozpena, ekonomia eta ondare ikuspegietatik, haiek ordezkatzeko dituzten ondasun eta zerbitzuen egiazko korrentearen arabera egin behar da, aurrekontuetan egozteko erabili beharreko irizpideak galarazi gabe.

b) Kontabilitate gertaera guztiak denborazko hurrenkerari jarraituz erregistratu beharko dira.

c) Ulertuko da jarduerak denbora mugarik gabe segitzen duela.

d) Ekitaldi batetik bestera balorazio irizpideak ez dira aldatuko.

e) Ekitaldia ixtean egiazki eginiko dirusarrerak bakarrik zenbatu beharko dira. Gastuei dagokienez, egiazki eginikoak ez ezik aurreikusten ahal diren arriskuak edo izan litezkeen galerak dakartzatenak ere zenbatu beharko dira, haien jatorria ekitaldi berean edo aurreko batean badago, haien berri izaten denetik aurrera. Hala ere, egiazki egitean egotziko zaizkie aurrekontuei.

f) Ondasun, eskubide eta betebeharrak guztiek erosteko prezioaren edo ekoizteko kostuaren arabera agertu behar dute. Betebeharrak diru-itzulketaren balioaren arabera zenbatu behar dira.

g) Kontabilitate sistemak adierazi beharko du entitate batek eginiko gastuen eta ekitaldian finantzatzeko behar diren dirusarreraren arteko harremana.

h) Aktiboko eta pasiboko kontusailak ez dira behin ere konpentsatuko ez eta urteroko kontuan osatzen dituzten gastu eta dirusarreretakoak ere.

i) Nortasun juridikoa eta berezko aurrekontua dituen entitate orok izanen du kontabilitaterako izaera, kontuak prestatu eta errendatu behar baldin baditu.

j) Transakzioen edo kontabilitate egintzen egozpena, ekonomia eta ondare ikuspegitik, aktiboak, pasiboak, gastuei edo dirusarrerari egin behar zaie, Kontabilitate Publikorako Plan Orokorrean ezarritako arauari jarraituz. Gainera, gastu eta dirusarreraren aurrekontuei egin behar zaizkien eragiketak, aurrekontuei dagokienez, lege honetako II. Tituluari aurreikusitako arauarekin bat erregistratu beharko dira.

k) Printzipio hauek aplikatzean, haiek eta haien ondorioak erlatiboki izan dezaketen garrantzia izanen da arau, baldin eta nahitaez bete beharreko arau bat urratzen ez baldin bada.

2. Kontabilitate printzipio publikoen artean, gatazkarik baldin bada, aurreko idatz-zatiko a) eta b) lerroaldeetan aurreikusitako printzipioak lehentetsiko dira.

Aipatu diren kontabilitate printzipioak urteroko kontuek 118. artikuluko 2. idatz-zatian aipatzen diren irudi zintzoa adierazteko moduan aplikatu behar dira. Printzipio horiek aski erabiltzen ez direnean edo helburu horrekin bateraezina denean, irudi zintzoa lortzeko kontabilitate printzipiorik egokienak erabiliko dira. Urteroko kontuetan hala esanen da.

**122. artikulua.** Kontabilitate informazioaren hartzaileak.

Nafarroako sektore publikoko entitateen kontabilitateak ematen duen informazioa haren zuzendaritza eta kudeaketa organoetarako, kanpo eta barne kontrolerako organoetarako, ordezkaritza politikoetarako eta Espainiako eta nazioarteko erakundeetarako izanen da, indarra duen araudian aurreikusitako baldintzetan eta mugekin.

**123. artikulua.** Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren eskumenak.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuari dago-kio:

a) Foru Komunitateko Kontabilitate Publikorako Plan Orokorra onestea. Planak Estatuko Sektore publikoaren planarekin batera koordinatu eta artikulatu behar du. Espresuki onetsi ezik, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak Estatuko sektore publikorako onesten duen Kontabilitate Publikorako Plan Orokorra aplikatuko da.

b) Erregelamenduzko ahalmena erabiltzea, egitura zehazteko eta kontuak kontabilitate publikoari buruzko gainerako agiriak justifikatu, tramitatu eta errendatzeko.

c) Nafarroako Kontu Orokorrek prestatzea.

d) Kontabilitate printzipio publikoak erabili behar dituzten entitateek onartu beharko dituzten kontabilitate arauak ezartzeko kontabilitateko jarraibideak eta kontabilitate agirien eredu eta egiturak, kontuak, egoera-orriak eta eskuarki kontabilitate txostenak onestea.

e) Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen esparruan, prozedura operatiboen eta sistema informatikoen betebeharrak ezartzea, kontabilitatean adierazi behar diren eragiketak gauzatzeko.

f) Nafarroako sektore publikoko entitateek Kontu-hartzailatza Nagusira igorri behar duten kontabilitate informazioaren zehaztapenak, prozedura eta aldizkakotasuna zehaztea.

## II. KAPITULUA Urteroko kontuak

### 124. artikulua. Kontuen urterokotasuna

Nafarroako Parlamentura igorri behar diren kontu eta agiriak urtero prestatu eta itxiko dira, foru lege honetako 59. artikuluan aipatzen den informazioa igorri beharra deusetan galarazi gabe.

**125. artikulua.** Nafarroako Aurrekontu Orokorren edukia.

Nafarroako Aurrekontu Orokorrek foru lege honetako 2. artikuluan aipatzen den Nafarroako sektore publikoa osatzen duten entitate guztienak biltzen dituzte.

**126. artikulua.** Foru erakunde zenbaiten urteroko kontuen edukia.

Foru lege honetako 2. artikuluko b) eta c) letretan aipatzen diren foru erakundearen urteroko kontuen edukia bat etorriko da foru lege honetako xedapen gehigarri bakarrean xedaturikoarekin.

**127. artikulua.** Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen urteroko kontuen edukia.

Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen urteroko kontuek ekitaldian egiten diren aurrekontu, ondare eta diruzaintza arloetako eragiketa guztiak bilduko dituzte eta agiri hauek edukiko dituzte:

a) Aurrekontuen likidazioa, Nafarroako Parlamentuak ekitaldi bakoitzerako onetsiriko aurrekontu agirien egiturarekin bat aurkeztuko dena.

b) Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zehazten dituzten aurrekontu programen emaitzen balantzea eta kudeaketa txostena, kasuan kasuko arduradunak prestatuak.

c) Egoeraren balantze bateratua eta banakakoa, entitate bakoitzerako.

d) Ekonomia eta ondare arloetako emaitzen kontua bateratua eta banakakoa, entitate bakoitzerako.

e) Memoria global bat, balantzean, ekonomia eta ondare arloetako emaitzaren kontuan eta aurrekontuaren likidazioaren egoera-orrian informazioa handitu eta iruzkintzen duena. Partikularzki, memoriak argibide hauek emanen ditu:

– Diruzaintzako gerakina.

– Ekitaldi itxietatik kobratu beharreko eskubi-deen eta ordaindu beharren bilakaera eta egoera erakusten dituen egoera-orria.

– Geroko ekitaldien kargura harturiko gastu konpromisoen egoera, foru lege honetako 40. artikuluan aipatzen den baimenaren babesean.

– Diruzaintzako kontu orokorra. Ekitaldia hasi eta bukatzean den egoera eta ekitaldiko eragiketarik adierazi beharko ditu.

– Zorpetzearen kontu orokorra.

– Ondasun eta eskubideen inbentarioa.

– Emaniko abalen egoera. Aldi horretan saldo bizi ebaluatuan izaniko aldaketak adieraziko dira.

– Ekitaldian, erabilera orokorrari lotutako jabari publikoko ondasunetan egindako inbertsioak erakusten dituen egoera-orria.

– Plantilla organikoaren egoera eta bilakaera adierazten duen egoera-orria.

**128. artikulua.** Sozietate publikoen eta enpresa-entitate publikoen urteroko kontuen edukia.

Foru lege honetako 2. artikuluko e) eta f) letretan aipatzen diren sozietate publikoen eta enpresa-entitate publikoen kontuak Espainiako Enpresen Kontabilitate Plan Orokorrean aipatzen direnak izanen dira. Gainera, gutxienezko eduki hau ere izanen dute:

– Administrazio publikoetatik harturiko dirulaguntza eta bestelako transferentziak adierazten dituen egoera-orria. Foru Komunitateko Administrazioak edo haren erakunde autonomoek emanak adieraziko dira.

– Plantillaren egoera eta bilakaera adierazten duen orria.

– Parte harturiko sozietateen kapitala ordezkatzeko duten titulu baloreen zerrenda, kasuan kasuko sozietatea, partaidetza portzentajea, hasierako balorazioa, eta erosketengatik edo salmentengatik ekitaldian izaniko aldaketak adierazirik.

– Kontabilitate erregulartasuneko auditoretza.

**129. artikulua.** Fundazio publikoen urteroko kontuen edukia.

Foru lege honetako 2. artikuluko g) letran aipatzen diren fundazio publikoen kontuak Irabazi asmorik gabeko entitateen Kontabilitate Plan Orokorren egokitzapenean aipatzen direnak izanen dira. Gainera, gutxienezko eduki hau ere izanen dute:

– Administrazio publikoetatik harturiko dirulaguntza eta bestelako transferentziak adierazten dituen egoera-orria. Foru Komunitateko Administrazioak edo haren erakunde autonomoek emanak adieraziko dira.

– Plantillaren egoera eta bilakaera adierazten duen orria.

– Kontabilitate erregulartasuneko auditoretza.

**130. artikulua.** Kontu Orokorren onespena.

1. Nafarroako Parlamentuari dagokio Nafarroako Aurrekontu Orokorren onestea, foru lege baten bidez.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren ondorioetarako, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak proposaturik, kasuan kasuko foru lege proiektua onetsi eta urtean urteko irailaren 15a baino lehen Nafarroako Parlamentura igorriko du.

## VII. TITULUA Erantzukizunak

**131. artikulua.** Printzipio orokorra.

Agintariek, funtzionarioek eta maila guztietako langileek, iruzurreratik edo erru larriagatik, hurrengo artikuluan aipatzen diren egite edo ez-egiteak egiten badituzte, haien ondoriozko kalteengatik konpentsatu beharko diote Nafarroako Ogasun Publikoari, legokiekeen zigor edo diziplina arloko erantzukizuna deusetan galarazi gabe.

**132. artikulua.** Ondare arloko erantzukizuna sortzen ahal duten egitezak.

Egite edo ez-egite hauek sortuko dute aurreko artikuluan aipatzen den konpentsatu beharra:

a) Nafarroako Ogasun Publikoaren funtsen administrazioari zorrak kitatu ez izanak edo iruzur egin izanak.

b) Nafarroako Ogasun Publikoaren baliabideak eta gainerako eskubideak haien likidazioa, dirubilketa edo sarrera arautzen duten xedapenei lotu gabe administrazteak.

c) Gastu konpromisoak hartzeak eta ordaintzeko aginduak emateak behar adinako krediturik izan gabe, edo foru lege honetan, aurrekontuei buruzko lege aplikagarrietan xedatutakoaren kontra.

d) Esleituriko eginkizunetan aritzean obligazioak likidatzean edo agiriak luzatzean behar ez diren ordainketak egiteak.

e) Eskaturiko kontuak ez errendatzeak edo akats larriekin aurkezteak.

f) Foru lege honetako 56. artikuluan aipatzen diren funtsen aplikazioa ez justifikatzeak.

g) Kontu-hartze egikizunetan kasuan kasuko egintzaren bidezko tasun edo legezkotasunik ezari buruzko erreparatuak adierazi ez izanak, iruzur, erru, utzikeria edo ezjakin barkaezinaren bidez.

**133. artikulua.** Arduradunen bateragarritasuna.

Arduradun batzuk batera gertatzean, erantzukizuna parte berdinetan mankomunatu da, iruzur kasuetan izan ezik, horietan solidarioa izanen baita.

**134. artikulua.** Organo eskuduna eta prozedura.

1. Comptos Ganberaren eta Kontuen Auzitegiaren eskumenak galarazi gabe, foru lege honetako 132. artikuluan tipifikaturiko egite edo ez-egiteen ondoriozko erantzukizuna kasuan kasuko espediente administratiboaren bidez eskatuko da. Hori, betiere, interesatuei entzunaldia eman ondoren tramitatuko da.

2. Espedientea irekitzeko eskumena instruktoreari dagokio eta ebazpena honakoei:

a) Nafarroako Gobernuko kontseilari eta idazkariari, erantzukizuna Gobernuko lehendakariari eskatzen zaionenan.

b) Nafarroako Gobernuko lehendakariari, hark berak izendaturiko kargudunak izanez gero.

c) Nafarroako Gobernuari, hark berak izendaturiko kargudunak izanez gero.

d) Ekonomia eta Ogasun kontseilariari, gainerako kasuetan.

3. Espedientearen gaineko ebazpenean Nafarroako Ogasun Publikoaren ondasun eta eskubideei eginiko kalteez iritzia emanen da eta arduradunei konpentsatu beharra ezarriko zaie, zehazten den zenbatekoan eta epean.

**135. artikulua.** Eginiko kalteen araubide juridikoa.

1. Aurreko artikuluan aipatzen diren espedienteetan adieraziriko kalteak Nafarroako Ogasun Publikoaren eskubidetzat joko dira eta, bidezko bada, premiamendu bidez kobratuko dira.

2. Nafarroako Ogasun Publikoak eskubidea izanen du foru legeko 18. artikuluan aipatzen den berandutza interesak eskatzeko, bere ondasun eta eskubideei eginiko zor kitatugabe, iruzur eta kalteen zenbatekoaz gain, kalteak egiten diren egunetik hasita.

**136. artikulua.** Aurreko eginbideak.

Nafarroako Ogasun Publikoari zor kitatugabea, iruzurra edo kaltea egin zaiola edo foru lege honetako 56. artikuluan aipatzen diren epeak bertan adierazten diren ordaintzeko aginduak frogatu gabe iragan direla jakin bezain laster, ustezko arduradunen nagusiek eta ordainketak proposatzen dituztenek, aurreko eginbideak instruituko dituzte. Halaber, Nafarroako Ogasun Publikoaren eskubideak bermatzeko behar diren neurriak hartuko dituzte eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren horren guztiaren berri emanen diote berehala.

**Xedapen gehigarri bakarra.** Zenbait foru erakunderen araubidea.

1. Foru lege honetako 2. artikuluko b) eta c) idatz-zatietan aipatzen diren foru erakundeek, beren berariazko araudian xedaturikoarekin bat, beren aurrekontu proiektua onetsi eta ekitaldi bakoitzeko urriaren 1a baino lehen Nafarroako Gobernura igorriko dute, Nafarroako Aurrekontu Orokorretarako proiektuan sar dadin.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren erakundeen aurrekontuaren exekuzioa eta likidazioa berariazko araudian xedaturikoarekin bat eginen da.

3. Erakunde horiek Foru Komunitateko diruzaintzari itzuliko dizkote ekitaldian aitorturiko betebeharrak bete beharrik ez duten funtsak.

4. Erakunde horien edukia eta onespena haien berariazko araudian xedaturikoari lotuz eginen da. Kontuak, onetsi ondoren, kasuan kasuko ekitaldia eta hurrengoko irailaren 1a baino lehen Nafarroa-

ko Gobernura igorriko dira, Nafarroako Kontu Orokorretan sar daitezten.

**Lehen xedapen iragankorra.** Zerga onurak aurrekontuetako gastuen egoera-orrian sartzea.

Foru lege honetako 32. artikuluko 2. idatz-zati c) letran aipatzen diren zerga onurak emeki-emeki sartuko dira gastuen egoera-orrian. Aurrekontuei buruzko Foru Lege bakoitzean kasuan kasuko gastuen egoera-orrian zer zerga onura sartu behar diren adieraziko da.

**Bigarren xedapen iragankorra.** Foru lege honek indarra hartu aurretik sorturiko eskubide eta betebeharrak.

Foru lege honek indarra hartu baino lehen Nafarroako Ogasun Publikoak zituen eskubide eta betebeharrak ekonomikoek honen bidez indargabetzen den araudiaren bidez segituko dute betetzen.

**Hirugarren xedapen iragankorra.** Erregelamenduzko arauen iraupena.

Foru lege honetan aipatzen diren erregelamenduzko xedapenak ematen ez diren bitartean, hark indarra hartzean indardunak zirenak aplikatuko dira, bertan xedaturikoari aurka egiten ez dioten bitartean.

**Azken xedapenetan lehena.** Erregelamenduzko ahalmena gaitzea.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren erregelamenduzko xedapen guztiak emateko. Horik kanpo geldituko dira lege honek Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren esku uzten dituenak.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Zenbatekoak eguneratzea.


Gobernuak, foru dekretu baten bidez, eguneratzen ahalko ditu foru lege honetan aipatzen diren zenbatekoak.

**Azken xedapenetan hirugarrena.** Indargabetzea.

Foru lege honetan xedaturikoari aurka egiten dioten maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak eta bereziki Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legea indargabetzen dira.

**Azken xedapenetan laugarrena.** Indar hartzea.

Foru lege honek 2008ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

## HARPIDETZA ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 45,15 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,18 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,34 »	